E S K O L A T I K E U S K A R A?

EUSKARAREKIKO JARRERAK
BIZKAIAKO
O.H.O.KO 8. MAILAKOEN
ARTEAN

IZIAR BASTERRETXEA MORENO

ESKOLATIK EUSKARA?

DEITURIKO IKERLANA

IZIAR BASTERRETXEA MORENO
LIZENTZIATUAK

AURKEZTEN DU

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO
SOZIOLOGIA FAKULTATEAN
DOKTOREEN MAILAN ONARTUA IZATEKO TESIA LEGEZ

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

F. GARMENDIA

DEUSTU-BILBO, 1987

LEHENENGO LIBURUKIA

ESKEINTZA

Gurasoei.

A U R K I B I D E A

LEHENENGO LIBURUKIA

0.- SARRERA 9

OHARRAK 41

I.- EDUKI AZTERKETA: OINARRI TEORIKOAK 45

1.- Definizioa 47

2.- Azpideiak 47

3.- Baldintzak 50

4.- Borobiltzen 54

OHARRAK 57

II.- METODOA 59

1.- Galdeketa 62

- Fitxak 62

- Idazlanak 63

- Orokorrean 64

2.- Lagina 65

- Zelan eratu den 65

- Lortu dena 83

- Orokorrean 90

3.- Zabalketa eta batuketa 91

- Burua aurkeztu 92

- Lanak banatu 92

- Lanak batu 93

- Lanak zenbatu 94

- Jasotako inpresinuak 95

4.- Aplikapena 98

- Kategorien eraketa 98

- Kategorien azalpena eta balorapena 102

- Fitxei buruz 103

- Idazlanei buruz 120

- Iruzkinak 144

OHARRAK 148

III.- DATU AZTERKETA 149

1.- Aurkezpena 151

2.- Datu orokorrak 154

- Datu soziodemografikoak 165

- Hizkuntza: Ezagutza eta erabilera 166

- Hizkuntza aukera 166

- Hizkuntza aipamena 167

- Datu soziodemografikoak 169

- Hizkuntza: Ezagutza eta erabilera 177

- Hizkuntza aukera 182

- Hizkuntza aipamena 208

- Laburpen gisara 215

3.- Ikastetxe moten araberako datuak: Ikastolak, Pribatuak eta Publikoak 222

- Datu soziodemografikoak 237

- Hizkuntza: Ezagutza eta erabilera 247

- Hizkuntza aipamena 263

- Laburpen gisara 256

4.- Hizkuntza aukera eta erabileraren araberako datuak 304

- Datu soziodemografikoak 325

- Hizkuntza aukera 342

- Hizkuntza aipamena 390

- Laburpen gisara 405

OHARRAK 408

IV.- ONDORIOAK 411

OHARRAK 429

V.- BIBLIOGRAFIA 431

BIGARREN LIBURUKIA

SARRERAKO OHARRA 5

I.- FITXAK 7

II.- DATUAK 13

III.- UMEEN ESALDI BATZUK 317

HIRUGARREN LIBURUKIA

SARRERAKO OHARRA 5

IKASLEEN IDAZLANAK 7

0

SARRERA

Etxea jaso ondoren egokitu ohi dugu atadia. Antzeko zerbait gerta ohi zaigu ikerlanekin ere: burutu ondoren apaintzen diogula atarikoa. Dena den, etxea jaso aurretik erabaki behar da zein aldetara joko duen ateak.

Sarrera izena eman dioguna ere gure azterketa hau bukatu ondorengo iharduna duzu. Baina hainbat hilabetez irauli-mirauli erabili dugun galdera aspalditik genuen finkatua eta ardatz horren jirabiran bildu ditugu jasotako datoak eta bururatutako gogoetak. Hona hemen ikerlan honen sustraiko galdera labur emana: **euskara gizarteratzeko edota gizartea euskalduntzeko eskolan hainbat esperantza jarri den urteotan, zer-nola erantzuten diote eskolako umeek -beren buruz eta jarreraz- gure gizarteak haiengan jarri duen hainbateko esperantzari?.**

Horra hor gure galderaren muina eta ardatza. Dena den -garenak garelako edo-ta gaudenean gaudelako- gure gizartea euskalduntzeko euskarari eta eskolari hainbateko garrantzia ematea bera ere argitu beharreko zerbait denez, ezinbestekoa iritzi diogu, gure galdera hori gizartezko bere ingurune jakinean -zertxobait bederen- argitzen saiatzea. Gure eusko-barrutian kokaturik bizi den biztanlegoak bere buruaz ari duen eztabaidak berak osotu beharko luke tesia bat baino gehiagoko emaitza eskainiko lukeen azterketa. Ez dugu, beraz, bere sakonean hortaz aritzeko asmorik. Bai, ordea, gure arteko hainbat kezkaren baitan kokatzekoa, guk jorratu nahi dugun barruti berezia. Izan ere, zelai hortatik kanpo, gure galdera ez baita ulergarri gertatzen. Hortara datoz, hain zuzen, sarreran eskaintzen ditugun oharrok.

1. EUSKALERRIA: IZENA ETA IZANA

"Gutariko bakoitzak Euskalerria osotzen du". 1)

"El pueblo vasco está cogiendo una fuerza terrible, quiere que le oigan en Madriz quiere que le entiendan, así todo el pueblo vasco está formado por todos los vascos y todo lo de los vascos." 2)

"Nik uste dut euskalerria saintzeko eta maitatzeko ez dela izan behar euskalerrikoa, bizitzen ba zara euskalerrian maite euki behar duzu honeri, honegatik Euskaldunak eta euskalerrian bizitzen garana euskalerria danari oso ondo zaindu egin behar dugu". 3)

"En estos momentos tenemos un problema de identificación. Si tus padres dicen que eres vasco, los libros dicen que eres español". 4)

Horrela azaltzen dira hamalau urteko gazte batzuk. Euskalerriko izateari buruz, hemen agertzen den moduan, gauzak ez daude oso argi eta modu asko saiatu dira mugatu edo definitu gurean.

Euskalerria zer den, galderari erantzuteko, txikitan esaten genuen moduan, posibilitate bi dago: zer edo zer izatea ala ezer ez izatea.

Bigarren kasuan "ez da ezer gertatzen" eta hauxe da batzuk hartu duten erabakia, baina gauzak ez dira hain sinpleak. "Izena, izana" dio esakera zahar batek eta, geroago Merton-ek 5) azaldu duen moduan, giza talde batentzat zer edo zer "erreala" bada,

nahiz eta ez izan, erreala bihurtu egingo da.

Beraz geure jokoan, Euskalerria ezer ez bada, noren errealitatea ari gara finkatzen? Eta zer edo zer bada, zer da?

Argi dago kasu bietan galderak bardinak direla eta azken finean horrela plantea genezake: Euskalerria ezer ez bada batzuentzat, azkenean ez da ezer izango?; eta Euskalerria zer edo zer bada batzuentzat, azkenean zer edo zer izango da? Hementxe beraz, oinarrizko kontrakotze bat agertzen zaigu: nork du bere errealitatea finkatzeko posibilitaterik handiena? Baina hementxe lan honetan ikutzen ez diren galderetan sartzen gara, nor (edo zer) den Historiaren egilea, sujetua, eta zelan finkatzen den gizartearen errealitatea, esate baterako.

Gai horietan sartu barik, era errezago baten planteatuko dugu arazoa.

"Ezer ez bada ez da ezer gertatzen" esan dugu jadanik, baina "zer edo zer bada" zer da?. Erantzuteko eta Historian zehar modu asko izan dira. Azaletik ikusiko ditugu batzuk.

Arraza.- Euskalerriko edo, hobe esanda, euskaldunen errealitate "berezia" frogatzeko erabili den kriterioa izan da. Ideia honen bidez lortu egiten zen, alde batetik hain garrantzitsuak diren froga "materialak", odol berezitasunak aztergarriak zirelako eta "zientzia" edo "natur zientzien" arlo barruan sartzen zirelako.

Bestetik arraza gordez, kontingentzia transtzendentzia bihurtzen zen. Arraza berezia den bitartean ezbardintasuna errealitatean frogatzeko aukera dagoelako.

Zentzu honetan ulertzen dugu Sabino Arana-k [6] esan zuena, euskeraz egiten duen kanpotarra baino, gazteleraz egiten duen Bizkaitar odol garbikoa nahiago zuela, hiskuntza berreskura daitekelako, arraza aldiz ez.

Hementxe beraz, aipatu egiten da guretzat garrantzitsua den eta geroago ikusiko dugun beste kriterio bat, hizkuntza.

Ideia honek ez du oso harrera hona izan, aipatu ditugun zentzu bietako arrazoiak direla eta. Lehenengoz "arraza" oso ideia labankorra delako eta "frogak" ez direlako hain errezak eta argiak agertu. Eta bigarrenez, arrazaren ideiak geroago eta gizartearentzat gogorragoak izan diren fenomenoak gertatu direlako, hasieran ez zuen esanahia hartu zuelako. Honela arrazaren ideiaren aurka arrazakeria salatu egin da, planteamendu hau nahiko inpopularra bihurtuz.

Jaioterria.- Biologia alde batera utzirik, nolabait "Geografiaren" esparruan sartzen gara oraingoz.

Euskaldunak (edo, "Vascos") dira, Euskalerrian jaio direnak. Ideia hau, gure umeek aipatu dituzten ideietan ere agertzen da.

Dana dala, gauzak erreztu egiten direla pentsatzen badugu

ere, ez gara askorik poztu behar. Alde batetik sortzea nahikoa den ala ez mugatzea ez da oso erreza. Guraso Australiarrak izan, eta oporretan egonda umeak Bilbon jaiota bizitza osoa Australian ematen badu, euskalduna dela esango dugu?

Eta alderantzizko kasuan?

Gainera, zer da Euskalerria? Treviño bai ala ez esate baterako?

Umeen aipamenekin jarraituz, batek honela dio:

"Aita batzuk ez dakite euskeraz ez direlako Euskalerrian jaio, emakume batzuk euskeraz dakite Euskalerrian jaio direlako". 7)

Hementxe bada, ideia ezbardinak nahastu egiten dira, hizkuntza eta jaioterria alde batetik, hizkuntza sorlekua eta gizon-emakumeak bestetik. Batzuentzat hauxe interesgarria balitz ere guk ez dugu, dana dala, aztertuko.

Aipamen honen bidez hauxe azpimarratu gura izan dugu: esaten ditugun ideiak ez direla, alde batetik, joandakoak eta bestetik ez direla bakarrik agertzen.

Lana.- Bere lanerako indarra ohizko eusko lurretan saltzen duena da euskalduna.

Definizio hau, ikuspegi marxistatik planteatzen da, eta Euskalerriko gizartean eman den oinarrizko injustizia garaitzen

saiatzen da, hau da, Euskalerriko gizartea eraikitzeko kanpotik (beraz ez arrazaz ez eta jaiotzez ere euskaldunak edo "vascos" ez direnak goiko definizioen arabera) etorri den jendearen garrantzia onartzeko eta zentzu materialago baten pertsonak egiten duenak pertsona bera ere egiten duela onartuz.

Ez dugu uste, gauza barririk diogunik, planteamendu hau S. Arana eta bere inguruan sortutako mugimenduaren kanpotik sortua dela aipatzen badugu.

Dena dela, lanerako indarra saltzearen definizioak izan dituen kritikak eta berrazterketak honela definitutako euskalduntasunari buruz ere egin ditzakegu.

Sentimenduak.- "Todos los que nos sentimos vascos aunque no lo seamos..."[8] dio ume batek. Planteamendu honetan, lehenengoz "neurtezina" den ideia bat agertzen da (ikusi dugu, dena dela, orain arte aipatutakoak ere ez direla hain "neurgarriak"). Baina, esaldi horretan kontraesan bat dago, "nos sentimos" baina "no somos", eta hemendik orain arte aipatutako kriterioetan, gure ustez agertzen den ideia batera joango ginateke, euskaldunak (edo "vascos"[9] dira, "euskaldunak" direnak edo beste balditza batzuk betetzen dituztenak, hau da, "euskalduna" ez bazara, baina odol garbikoa bazara... "vasco" zara, "euskalduna" ez bazara baina Euskalerrian jaio bazara... Euskalerrian lan egiten baduzu... "vasco" sentitzen bazara... orduan "vasco" zara.

Ez dira, halan eta guztiz ere, hain errez konpontzen gauzak.

Vasco eta euskaldunak izateko baldintzak betetzen dituztenak eta batzuen eritziz euskaldunak/vascos ez direnak [10] ere badaude eta.

Gainera, arazoa bardin antzekoa baino areagotuta agertzen da. Nor da euskalduna orduan? Eta, euskaldun ezbardinak ote daude Euskalerrian?

> "Nik Euskalerria gizarte bitan ikusten dot, batzuk dira euskaldunak eta beste batzuk erdaldunak". [11]

Eta hemendik guri interesatzen zaigun puntu batera pasatzen gara, goikoak, aipatu arren eta lanaren ingurua finkatzeko erabili arren ez direlako gure lanean zuzenean sartzen.

1.1.- Hizkuntza: Mugatzaile berezia

> "Hizkuntza hau denbora pasa eta gero, nik uste dut galdu egingo dala eta askenean ezin izango dugu Euskalerria deitu baizik Pueblo Vasco". [12]

> "Euskalerrian egongo bazan euskaldunek bakarrik euskaraz egingo zan euskalerri guztian baina kanpotarrak dagozen lez berakaz aituteko erderaz egin behar da". [13]

> "Mi lengua es el castellano pero la lengua de mi pueblo es el euskera". [14]

Hizkuntza oso tresna berezia dela esatea ez da harritekoa. Gizarte-izate bat da, [15] ideia hau Durkhein-ek sortu zuen soziologian eta Saussure-k [16] hizkuntzalaritzan erabili.

Hizkuntza, beraz, zehatza eta abstraktua da, pertsonala eta

gizartekoa. Bikoiztasun honek eragin handia izan du hizkuntza eta hizkuntza-gizartearen arteko harremanetako planteamenduetan. Alde batetik arauak eta erabilera, ona eta txarra, goikoa eta behekoa, estandarra eta dialektoa... eta horrelako ideiak ere gertatudira. Bestetik gaur egun plangintza linguistikoetan egiten diren "lurraldekako" eta "pertsonal" kriterioak esate baterako. 17)

Elebitasunari buruzko teorietan ere agertu dira, eta gaur egun elebitasuna eta diglosiaren artean egiten diren banaketak, edo eta elebitasuna, hizkerari dagokiola eta ez hizkuntari esaten denean, pertsonak elebidunak direla, gizarteak barriz diglosikoak esanez. 18)

Planteamendu honek sortzen du, gure umeak egin duen baieztapenaren aukera ere: "nire hizkuntza gaztelera da baina nire herrikoa euskera". Zelan ulertu orduan "herria"?. Ideia hau, beraz, beste batek gorago esan duen baten aurrez-aurre ipintzen da: "Gutariko bakoitzak Euskalerria osotzen du". Zelan ulertu behar dugu bada gizakia eta gizartearen arteko lotura?

Hizkuntzak "errealitatea" bilbatzen du eta errealitateak hizkuntza bera.

Baina ikusi dugu lehen ere "errealitatea", zehatz, "gizarte errealitatea" gizartean edo eta gizartez sortzen dela 19) età "errealitate" ezbardinak egon daitezkela (eta izatez gehienetan daude) borrokan, bakoitzaren irabazteko aukerak, errealitate hori defendatzen duen taldearen indarrean datzatela.

Horregaitik Sanchez Carrion-ek esan dezake:

> "En realidad lo que define la situación de una lengua en un territorio... (es) el número y la potencialidad de los sujetos adscritos a él...". 20)

Eta zentzu honetan azpimarratuko genuke, gure umeak ziguna:

"... liburuek española zarela diote".

Badago beste hizkuntzaren funtzio edo berezitasun bat. Hizkuntza, talde batek barrurantzako loturak hestutzeko eta kanporantzakoak apurtzeko erabili duen modu bat izan da. Beraz, hizkuntza taldearen berezitasuna eta muga izanik, kanpotarrentzat menperatzea, mugen hausketaren bidez egiten den lez, hizkuntza apurtzea, menperatzearen adierazpen bat da. Denboran oso urrundik badaude ere, ideia hau Historian zehar onartuta eta idatzita izan da: honela, Nebrija-k "siempre la lengua fué compañera del imperio" 21) eta Knappert-ek "boterea gura duenak hizkuntza behar du". 22)

Argi dago bada, hizkuntza-boterea edo eta hizkuntza-gizartearen artean dagoen lotura eta planteamendu hauek, linguista batzuk planteatu dituztenengandik oso urrun daudela. 23)

Orain arte dugunaren laburpen gisa, P. Bidart-ek, idatzitako esaldia aipatuko dugu. Honela dio:

> "Toute société présente nécessairement une individualité linguistique qui lui est reconnue, contestée ou simplement niée. L observation sociale met rapidement en évidence la

réalité d une "correspondance" (souvent dysharmonique) entre identité sociale, identité culturelle et identité linguistique.

Et considérer la langue comme un simple code de practiques communicatives revient ignorer aussi bien les conditions sociales de construction d imposition, d officialisation d une langue que ses autres fonctions sociales". 24)

Uste dugu, hementxe, orain arte aipatutako ideia nagusiak agertu egiten direla, hizkuntza komunitate bat bereiztutzeko modu bat dela, berezitasun hau beste batzukin agertzen dela, baina eta hauxe ere garrantzitsua dela uste dugu ez dela beti (izatez oso kasu gitxitan) berezitasun guztien arteko bardinketarik ematen. Eta hauxe gure kasuan interesgarria ikusten dugu, askotan, gure artean berezitasun bakoitzaren esparruak batuta eta bardinduta ikusten direlako.

Azkenean, ahalmenaren eta gizartearekiko lotura agerten da.

Beraz beste puntu batera pasatzeko momentu ona dela uste dugu.

1.2. Berreuskeraduntze-Berreuskalduntzerako bidea.

Gaur egun, Euskalerrian euskera berreskuratzeko bidea urratzen saiatzen gara, eta ez da izango inor-guri izatea ukatzen diguten hoiek alde batera utzirik jakina- euskera euskaldunon eta Euskalerriaren ezaugarritzat aitortzen ez duenik. Zentzu honetan agertzen dira langileak, lanorduetan, euskera ikasteko aukera eskatzen dutenean; gurasoak eta ikasleak euskerazko ereduak eskatzean; erakundeak, lanpostuetarako euskera eskatzean; dendariak, banketxeak... iragarkiak euskeraz ipintzean; jaurlaritza, legeak eta eskubideak ezarriz, dirua eskeiniz...

Ez gara hemen sartuko, errealitatean edo eta eskaerak eta eskubideak gauzatu gurean gertatzen direnak azaltzen eta aztertzen ere ez.

Baina, berreuskeraduntze-berreuskalduntze hitzen eta kontzeptuen erabileraren arrazoiak azaltzen saiatuko gara.

Ikusi dugun moduan euskalduna zer dan definitzeko modu asko izan da. Euskera, hau da, hizkuntza, euskaldunak mugatzeko kriterio bat izan da, batez ere euskaldunengandik eta euskeraz egin denean. Baina, ikusi dugu ere, hizkuntza, gizartea eta kultura ez direla beti, ezta kasu gehienetan ere, elkarrekin agertzen.

Beraz, euskalduna izatea, orokortasun baten definitzen badugu, hau da, euskal hizkuntza-gizarte-kultura baten bilbatuta egotea lez, argi ago, berreuskalduntze prozesu bat ezin daitekela hizkuntza berreskuratzeko prozesu soila izan.

Eta zentzu honetan, gaur egun, gure ustez, fenomeno bi ematen da gure artean.

1.- Hizkuntza, gizartea, kultura batu egiten dira edo hizkuntzaren nagusitasuna azpimarratuz, hizkuntzaren bidez beste arloak lortu egingo direla uste izaten da.

Puntu honetan eta orain arte umeen esanak aipatu ditugun lez, beste bat emango dugu:

"El catalán, el Gallego y Euskera son idiomas secundarios, hasta que sus respectivas regiones consigan la independencia y sean naciones independientes". 25)

Umeak horrela ikusten badu ere, badirudi gu eritzi ezbardinekoak garela eta laburtuz, berreuskeraduntze prozesuaren bitartez, berreuskalduntzea lortuko dugulakoan gaude. Eta hau, axioma baino, aztertzeko hipotesi bat izan beharko lukela uste dugu.

2.- Bide honetan, berreuskeraduntzearen bitartez berreuskalduntzea lortzeko gogoan hain zuzen ere, puntu bat da nagusi: **Eskola.**

Bide hau gerora begira dago eta planteamendua, orokorrean hartuta, honela azalduko genuke.

Normalean jendeak hizkuntza bat erabiltzen du, edo nahiago bada, erabiliz ikasi egiten du, gero eskolara doa eta eskolan erregistro landuak ikasten ditu; honela, bere gaitasuna gehituz, erabiltzeko zaletasuna eta erreztasuna lortzen du eta prozesua zabalduz doa.

Baina gure kasuan bidea apurtuta dago, guk zaletasuna badugu (edo horrela dirudi behintzat) baina erabilera, ezagutza galdu egin dugu. Eskola bultzatuz lortu gura duguna zera da: gure zaletasuna erabiliz gure umeak ikasterazi (eta kasu batzutan erabilerazi).

Beraz, trasferentzia bat dago, desbideratze bat, guk gura

duguna, beste batzuk lortuko dute.

Galdera asko baina nagusi bi:

1.- Baiezta dezakegu, ikasiz, eskolan ikasiz esan gura dugu, erabilera eta zaletasuna, gizarteratzea lortuko dugula?

2.- Baiezta dezakegu gure zaletasuna eta umeena bardinak direla? Guk gura duguna, haiek ere gura dutela?

Hauxe da planteamendu orokorra. Ikusi dugun moduan, euskalduntzea, euskeraduntzea baino zabalagoa da, baina gu hemen hizkuntzari buruzko planteamendutaz ari garen lez, aurrerantzean berreuskeraduntzea erabiliko dugu, argi dago, dana dala, guk ez dugula euskalduntzearen ideia ukatzen.

Ikus dezagun orain zein den honen inguruan dagoen gizartea edo behintzat gizartearen berezitasun batzu.

Horretarako eta batzuentzat oso fidagarriak ez badira ere, datu batzu aztertuko dugu.

2.- EUSKALERRIKO GIZARTEKOTZAREN ZENBAT EZAUGARRI

Urrengo orrialdetan Euskadiko Komunitate Autonomoko datu batzu eskeintzen dira.

Ez da askorik, baina horrela erabaki dugu, gure helburua lana kokatzea delako eta datuok ez direlako lanekoak zuzenean.

Batzuentzat daturik garrantzitsuenak ez izan arren 26), aurreko orrialdetan agertu diren ideia batzukin lotuta daude, sorlekua, euskera eta eskola hain zuzen ere.

Eta beste barik has gaitezen bada, datuok ikusten.

- Biztanleria migratzailea, jatorriaren arabera

Jatorria	Euskadiko K.A.	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztia	1.077.549	136.331	605.591	335.627
Araba	45.032	28.064	10.628	6.340
Bizkaia	301.018	15.544	270.107	15.367
Gipuzkoa	181.739	11.283	17.062	153.394
Nafarroa	33.025	5.369	7.022	20.634
Estatuko Gaineratikoak	486.153	72.197	284.976	128.980
Atzerria	30.582	3.874	15.796	10.912

(Iturria: Eusko Jaurlaritza. Estatistika Zuzendaritza. 1.981eko Euskadiko Komunitate Autonomoko Etxebizitzen eta Biztanleen zentsua. 4garren liburukia: Migrazio Mugimenduak).

- Biztanleria migratzailea den ala ezaren eta migratzaileentzat beren jatorriaren arabera 1.981ean (portzentaietan).

Jatorria	Euskadiko K.A.	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Ez migratzaileak	50,3	47,1	49,1	51,7
Migratzaileak				
Arabakoak	2,1	10,9	,9	,9
Bizkaikoak	14,1	6,-	22,7	2,2
Gipuzkoakoak	8,5	4,4	1,4	22,1
Nafarrokoak	1,5	2,1	,6	3,-
Estatu Gaineratikoak	22,1	28,5	24,-	18,6
Atzerrikoak	1,4	1,5	1,3	1,5

(Iturria: Eusko Jaurlaritza. Estatistika Zuzendaritza. 1.981eko Euskadiko Komunitate Autonomoko Etxebizitzen eta Biztanleen zentsua. 4. liburukia: Migrazio-Mugimenduak.

Beraz, lehenengo ideia hauxe da: Komunitatean biztanleria bertokoa da, portzentai haundi baten, orokorrean Estatuko gaineratikoak eta atzerritarrak zenbatuz, %23,5 baino ez dira.

Beraz lehen aipatu ditugun kriterioak kontutan izanik eta jaioterriarena azpimarratuz, komunitate Autonomoan, %76,5 euskaldunak direla esan dezakegu.

Hauxe, behar bada apur bat harrigarria izango da, baina gogoratu egin behar dugu migratzaileak ez direla orain lehengo moduan etortzen Euskalerrira. 27)

Zalantzarik ez dago "arraza" aztertuz gero ehunekoa txikitu egingo litzatekela. Baina goaz orain beste puntu bat ikustera: zenbat euskaradun dago komunitatean?

- Euskeraz hitz egiteko gaitasuna (ehunekoak)

	Ezer ez	Nekez	Ondo	
Araba	88,54	7,65	3,80	100,-
Bizkaia	74,84	10,62	14,54	100,-
Gipuzkoa	46,65	14,80	38,55	100,-
Komunitatea	67,35	11,62	21,04	100,-

(Iturria: Gobierno Vasco. Presidencia. Gabinete Prospección Sociológica. **Atlas Lingüistico Vasco.** 1.984).

Gauzak hementxe alderantzizkoak bihurtzen dira, komunitatean euskaldunak-euskeradunak bardinduz eta berba egiteko gaitasuna bakarrik kontutan harturik.

Hemen irakurtzeko eta idazteko ahalmenak ez ditugu kontutan hartu. Orain arte gaur egungo egoeraren kontrakoa izan delako fenomeno normalena. Hau da: jendeak berba egiten zuela baina eskolako eta ofizaltasunaren hizkuntza gaztelera zelarik, ia inork ez du oraintsu arte idazten edo eta irakurtzen jakin

(gazteleraz txarto, kasu askotan, eta euskeraz ezertxo ere ez). Datuetara joanda, komunitateko euskeradunen ehunekoa %21 bada, lurraldeka datua banatu eta ezbardindu egiten da, Bizkaian %15, Araban %4, Gipuzkoan %39, (datuak borobilduz).

Ikusten dugu, beraz, ez dagoela ohizko euskal lurretan dagoen jendetza bardintzeko kriterio bakarra eta baliozkoa. Hementxe beste galdera bat plantea liteke, ea zein neurritan euskaldunak edo "vascos" mugatzeko bideak kanpotik ala barrutik sortutakoak diren edo beste era batera esanda, ezbardintasunak gaindituz edo baztertuz, bardintasunak azpimarratzen ditugunean ez ote gabiltzan gurea ez den galdera bati erantzuten eta zein neurritan geure galdera zein den ezagutzen dugunez.

Dana dala "geure" ideia erabiltzen dugunean, zer esaten dugun ere ez dago argi.

Hementxe beraz arazoak agertzen dira eta batek baino gehiagok Filosofia edo Antropologia Filosofikoan sartzen garela baieztatuko luke.

Momentu honetan beraz ez dugu honelako galderarik egingo, eta galdera beste batetik hartu gurean honela planteatuko genuke. Zer da egin gura duguna?. Hementxe geroko ideia agertzen da eta zalantza barik nahiko galdera "materialista" dala esango genuke. Zergatik? Ideia honen oinarrian honako hau dagoelako: gu garela egiten dugunak, hain zuzen ere (batzuk, gu, garenaren arabera

egiten dugula esango luke baina ez gara honetan ere sartuko).

Baina aria hartuz: guk egin gura dugun gauza bat gizartea berreuskeraduntzea delarik, zein da gaur egun, zentzu honetan, dugun ingurua? Zer da orain arte egin duguna?

Ikastolei eta eskolaren bidezko berreuskeraduntzeari buruz hainbat azterketa egin dira[28] èta kasu askotan, poztasun ofizialaren aurrean aztertzaileen tristezia kontrajarri izan da.

Ikasleak mailaka, irakaskuntzaren izaeraren arabera, lurraldeka.

Euskadiko K.A.

	Guztia	Publikoak	Ikastolak	Pribatuak
Eskolaurre	79.661	38.752	19.333	21.576
O.H.O.	321.571	157.751	41.977	121.823
B.B.B. eta U.B.I.	78.516	50.336	3.894	24.286
L.H.	53.050	22.777	--	30.273
H.B.	2.743	1.046	--	1.697

(Iturria: 1985ko urtekari Estatistikoa. Eusko Jaurlaritza. Estatistika zuzendaritza.)

Zer da, hementxe agertzen zaiguna? Lehenengo gauza, behar bada, ikastoletan oso jende gitxi dagoela, beste ikastetxe motekin konparatuta eta gainera Lanerako Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian ez dela ikastolik agertzen. Zera ere argi ikusten da:

ikastolen ikasle kopuru nagusia O.H.O.-n ematen dela eta BBB/UBI-n aldiz, ez dagoela ikasle askorik.

Lurraldeka azterturik, datuak aldatu egiten dira zenbakiz, baina ez arazoz. Orokorrean hementxe ikusi duguna gertatzen da, Araban ikastoletako ikasle kopurua baxuena da, Bizkaian erdikoa eta Gipuzkoan altuena.

Galderak borobildu aurretik beste datu batzu ikusiko dugu. Denok dakigu, orain irakaskuntzan eredu ezbardinak daudela, euskeraren aldeko joerak sortutakoak, eredu hauek, A, B, eta D dira eta honela ezbardintzen dira.

A eredua: Dana gazteleraz, euskeraz asignatura moduan agertzen delarik.

B eredua: Erdizka, elebiduna.

D eredua: Ia dana euskeraz gaztelerarekin lotuta dauden gaiak gazteleraz ikasten direla.

Ereduok kurtsoz kurtso ipini dira eta honek suposatzen du, goi mailako ikasleek ez dutela eredu aukeratzerik izan kasu askotan.

Badira ere euskera ikusi ere egiten ez dutenak (Hauek X-en bidez adierazi ditugu ondoko laukian).

Zenbat dira beraz eredu bakoitzean aurkitzen diren ikasleak? Hona hemen datuok (1985.ko urtekari Estadistikotik).

Ikasleak mailaka, irakaskuntzaren izaeraren eta euskera-ereduaren arabera.

Euskadiko K.A.

		Eskolaurrea	OHO	BBB/UBI	LH	Guztira
Publikoak	X	624	32.255	8.343	5.665	46.887
	A	24.011	103.868	38.587	16.442	182.908
	B	10.244	9.360	609	117	20.330
	D	3.873	6.726	2.797	553	13.949
Ikastolak	X	—	—	—	—	—
	A	—	545	690	—	1.235
	B	4.603	5.953	545	—	11.101
	D	14.730	35.426	2.659	—	52.815
Pribatuak	X	2.359	6.750	6.662	9.444	25.215
	A	13.686	101.928	16.647	19.199	151.460
	B	3.212	6.176	823	759	10.970
	D	2.319	4.234	154	871	7.578
Guztira	X	2.983	39.005	15.005	15.109	72.102
	A	37.697	206.341	55.924	35.641	335.603
	B	18.059	21.489	1.977	876	42.401
	D	20.922	46.386	5.610	1.424	74.342

(Iturria: Eusko Jaurlaritza. Estatistika Zuzendaritza. Irakaskuntza Estatistika. Ikasleak, Irakasleak eta Ikastetxeak.)

"Guztira"-ko datuak harturik, argi dago A eredua dela oraingoz nagusi. Zentzu honetan, eskolaurrea salbuespena litzateke, hementxe A eta D ereduak parekatuta ez badaude ere, hurbildu egiten dira. Beste mailetan berriz ez da horrelakorik gertatzen eta gainera:

a) D ereduaren galera OHO-tik BBB-ra pasatzean A ereduarena baino haundiago da.

b) Orokorrean, euskeraz ikasten dutenen kopurua eta euskera ikasten ez dutenena bardin antzekoak dira.

Ikastetxe motak aztertuz gero, Publiko eta Pribatuetan A eredua guztiz nagusia dela nabaria da.

Esan behar da ere lanerako heziketa euskeraz, honelako ikastetxeetan ematen dela bakarrik.

Amaitzeko, aurreko taulan ikusten genuena hementxe ere agertzen da, hau da, euskeraz, batez ere hasierako mailetan ikasten dela goi mailako mailetan oso kopuru urria izanik.

Dana dala urria baino urriago dela esango genuke eta maila guztietan gainera.

Izatez, O.H.O.-ko D ereduko ikasle kopurua %14 da, OHO-ko ikasle kopuru osoan (D eredua hartu dugu eta ez B, alde batetik, B eredua oso heterogenoa delako eta bestetik, eredu honetako

lorpenak ez direlako hain onak [29]). Esan dezakegu beraz, Euskadiko Komunitate Autonomoko euskeradun ehunekoa, %21 bada, ehuneko hau mantendu ere ez dela egiten eskolan OHO-n, BBB-UBI-n zer esanik ere ez. Hementxe, ikasle kopurua 78.516-koa izanik, D ereduan 5.610 dira, %7a beraz. Azkenean, lanerako Hezkuntzan D ereduan 1.424 ikasle dago, honek kopuru osoaren %3-a betetzen du.

Datu hauen aurrean galdera ez litzake, eskolak berreuskalduntze lortzeko ahalmenik duenentz izango, baizik eta ea eskola honek zer edo zertarako ahalmenik ote duen galdetu beharko genuke. Eta ez dugu galdetuko ea zergatik dagoen horrela eskola -euskal eskola esatea gure buruak iruzurtzea, hitz mingotsago bat ez erabiltzearren, litzateke- edo agintariengandiko zelako ahalmena edo eta gogoa suposatzen duen.

Gainera, eta hauetatik aparte, beste arazo batzu suertatzen da euskeradun ereduetan.

Kanpotik, askotan, ez daudela oso ondo onartuta. Ikasle batek horrela zion "En Euskadi está obligada la enseñanza del euskera que está muy desaprobada por la mayoría" [30] eta aldarrikatze teorikoen aurrean Bilboko S.Inazioko Ikastola eta Publikoaren arteko iztiluak sortzen dira, A.Ariz [31] pertsonai ofiziala,agintariaren agerpenak, etabar.

Barrutik ere, eskolari, inguruak eskeintzen ez dituen normalkuntzarako baldintzak bete ditzan eskatzen zaio dituela.[32]

Honek eskola eta gizartearen arteko iztiluak sortzen ditu, eskolarenak ez diren erantzunkizunak eskatzen zaizkiolako.

Gauzak gehiago luzatu barik, orain arte ikusitakoaren lapurpen bat egingo dugu.

1.- **Zer da Euskalerria? Nor da euskalduna?**

Hori buruzko ideia nagusiak izan dira:

- Definitzeko modu ezbardinak saiatu direla.
- Definizioen kriterioak gehienetan ez datozela bakarrik.
- Kriterio hoiek ez dutela arazoa konpontzen: azken finean mugaketa egin barik gelditzen dela.
- Errealitate ezberdinak finkatzeko nahia ezbardinak dabiltzatela bata bestearen kontra. Azkenean, galdera hauxe da: Nork erabakitzen du zeintzuk diren erabili edo aukeratu behar diren kriterioak? Zelan mailakatuko dira eta nork egingo du?

Zer esan galdera berari buruz?

- Izantasunari buruzko galdera labankorra dela eta ez dela behar bada oso egokia.
  Izantasunak betidanik eta betirako den berezitasunen bat suposatzen du. Behinbetirakotzea azken finean. Behar bada, gertatzena azpimarratuz izantasuna baino izabideari buruz galdetu beharko genuke. Honela, izatea eta egitea batu eginez, esentzia baino helburua bihurtzen dugu

arazoa.

- Izantasunari eta izanbideari buruzko galdera, labana izan arren, askotan planteatu da gaur egun. Ez gara munduko kasu berezirik, askotan planteatu gura izan den moduan. Eleaskodun komunitateak ugari dira munduan zehar eta esan dugun lez, hizkuntza, kultura, Estatua, gizartea ez dira gehienetan batzen. Gaur egun batze eta banatze mugimenduak leku eta zentzu guztietan agertzen dira 33): makro-hizkuntzak mikro-hizkuntzen aurrean, Estatua gizarteaen aurrean, Teknologia gizatasunaren aurrean, eskubide pertsonalak giza eskubideen aurrean...

Ez da, beraz, bakarrik bizi dugun arazoa alde batetik eta bestetik kanpoko giro honek, duda barik eragina izango du gugan.

2.- Hizkuntza, fenomeno berezia eta gaur egungo definitzeko erizpide nagusi bat.

- Hizkuntzak errealitatea bilbatzen du eta errealitateak bilbatua da hizkuntza.

- Errealitatearen definizioa eta definitzeko ahalmenaren loturak direla eta, hizkuntza ahalmenarekin ere lotuta doa.

Horrexegatik, errealitatea aldatu gura bada, definitzeko modua aldatu egin behar da. Hizkuntza ere aldatu egin behar da. Zentzu honetan berreuskeratzearen beharrizana planteatzen da. Baina kontuz, Ninyoles-ek dion moduan, normalkuntza linguistikoak demokratizazioa eskatzen du [34]. Hizkuntza, gizartea, kultura, lotuta daude, baina ez dira bardinak, eta, autore honentzat [35] ez dago elebidun orekarik, elebitasuna elebarkartasunerako pausu bat baino ez da.

Botereak hizkuntza behar du eta hizkuntzaz aldatu egin behar bada, botereak ere aldatu egin behar du.

Hauxe guztia, urrengo puntura joateko azaldu dugu, edo gurago bada, urrengo puntuetan agertuko diren ideiak, neurri baten behintzat, zehaztutzeko.

3.- **Berreuskeraduntzea**

Gaur egun gure arteko hizkuntzaren inguruko mugimenduak, oro har, agerpen ezbardinak eskaintzen dizkigu:

- Alde batetik, gizarteak, oro har, euskeraren aldeko jarrera bidezkotu egiten du.

- Berreuskeratze hori lortzeko, esperantzak, nahiak, umeengan ipintzen dira. [36]

- Esperantza hoiek bideratzeko eskola erabiltzen da.

Zein da planteamendu hau aurrera ateratzeko dagoen oinarria?

- Biztanleria: Euskadiko komunitate Autonomoko gehienak, ohizko eusko lurraldetakoak dira (%76,5).

  Euskadiko komunitate Autonomoan euskeradunak gitxiengo lez agertzen dira (%21). 37)

- Eskola: Gaur egun oraindik %14 a OHO-n %7 BBB-UBI eta %3 L.H.-n baino ez dira D. Ereduetan, hau da, heziketa euskeraz duten ikasle kopuruak.
  Heziketa hau Ikastoletan ematen da batez ere. Publikoan eta Pribatuan gehienak A ereduan, hau da gazteleraz eta euskera gai bezela, daude.

  Eskolaren euskeraren aldeko jarrera hau, dana dala, ez dute denek onartzen.

  Onartzen dutenek ere iztiluak sortzen dituzte, gizarteak eskeintzen ez dituen baldintzak eskolari eskatzen zaizkiolako, askotan eskolaren funtzioetatik kanpo gelditzen badira ere.

Honaino esan dugunaren laburpena. Ez dakigu arazoa bere osoan agertzen asmatu dugunik. Ez dugu uste ingurua oso baikor agertzekoa denik, baina, gure ustez planteamendu honetan agertzen diren edo eta ager litezken galdera guztiak erantzuten saiatzea

interesgarria balitz ere, puntu garrantzitsu bat kanpoan gelditzen da eta horixe da hain zuzen ere planteatu gura genukena.

3.- GURE GALDERA

Esan ditugu guk gura dugun gauza bat lortzeko, urratzen ari garen bideak eta aurkitzen ditugun ortopoak. Esan dugu ere, planteamendua orokorrean hauxe dala.

- Guk gura dugu gizarte euskaldun bat.
- Gizarte hori lortzeko, euskeraduntzea beharrezko pausutzat jotzen dugu.
- Euskeraduntzea geure umeei leporatzen diegu. Beraz beraiek lortu behar dute guk gura duguna.

Uste dugu, planteamendua honela izanik galdera argi dagoela. **Eta umeek zer gura dute?.**

> **"Nosotros que somos el futuro de Euskadi debemos promocionar el idioma como si fuera un producto de supermercado".** 38)

> **"Euskeraren alde txikitatik ez dugu ezertxo ere egiten, nagusiak garenean gauza asko euskeraren alde egiten dugu".** 39)

Badirudi beraz, beraien artean ere ez daudela gauzak oso argi. Umeek hizkuntza arazoari buruz duten irizpidea eta jarrera aztertzea da ikerketa honen helburua. horretarako umeek eurek

"Gure hizkuntza"-ri buruz egindako idazlanen eduki azterketan oinarritu gara.

Idazlanok 1.985.go Maiatza-Ekainan bildu ziren, Bizkaiko Ikastola, Ikastetxe Publiko eta Pribatuen artean egindako laginaz.

Ikastetxe bakoitzean 8.mailako ikasgela guztiak hartzen ziren. Ikasle bakoitzak, hiru lan betetzen zuen, galdeketa txiki bat eta idazlan bi,"Gure hizkuntza" eta "Gure herriari"-ri buruz, hamabost egunetan, gutxi gorabehera.

Geroago, hiru lanok batu eta aztertu egin ziren. Lan honetan, dana dala, galdeketa eta "Gure hizkuntza"-ri buruzko idalanaren datuak aztertzen dira, bakarrik.

Orokorrean, galdera 2.000 ikasleri egin zitzaion, baliotsuak izan diren erantzunak, eta aztertu direnak, azkenean 538 izanik.

Ez erantzunen arrazoiak ezbardinak izan dira. Ikastetxeak batzutan ezetza ematen zuen eta, nahiz eta ordezkoak bilatzen saiatu, ez da beti posiblea izan erantzunik lortzea. Beste batzuetan irakaslea ez da oso baikor agertu; ikasleek ere ez dute beti erantzun eta azkenean, gure errua ere izan da. Baina arrazoirik nagusienak ikastetxeen edo eta irakasleen ezetzak izan dira.

Erantzunak euskeraz zein gazteleraz batu dira eta

hizkuntza aukeratzeko bide zabala emon gura izan dugu. Puntu honetan ere, ikastetxe motak bere eragina izan du eta ezin dugu argi esan zein neurritan aukera benetan zabala izan denentz.

Ikusten da, bada, gaia oso zabala dala eta puntu asko eta adar anitz agertzen dala, bide honetatik behin abiatuz gero, baina gure asmoa ez zen dana aztertzea, hastea baino.

Umeak neurri baten geure izpiluak izango dira baina ez dira gu, eta hauxe kontutan hartu egin behar da. Gizarte euskeradun bat gura badugu eta umeen bitartez gainera, bide honen zilegitasunaz edo baliotasunaz galdetzeaz aparte, geure gogoetan objetu-subjetuek zer pentsatzen eta sentitzen dutenaz galdetzea eta ezagutzen saiatzea behar beharrezkoa dela uste dugu.

Bestela aidean gelditzeko arriskua izango genuke: zer gertatuko litzateke asmoak guztiz kontrakoak izango balira?

Edo zelan baztertu guk interesbakoa eta haiek guztiz interesgarria ikusten duten ideiaren bat? Zelan inposatu ajola gabeko ikusten duten zer edo zer?

Puntu hauek hutsik daude gaur egun gure artean. Egia da, bestetik, gitxi garela eta dana batera ezin dala egin baina, honek ez du gaiaren garrantzia ukatzen.

Ideia hauetan finkaturik, abiatu gara bada honelako lan bat egiteko, eta urrengo orrialdetan Bizkaiko, OHO-ko 8garren mailako

umeen artean egindako azterketa aurkezten dugu.

Maila hori hartzeko arrazoi nagusiak, bi izan ziren:

- Maila hori ikasleen sakabanatzearen aurretikoa delako
- Maila horretan, idazteko eta ideiak azaltzeko gaitasuna suposatzen genizkielako.

Argi dago arazoak ez ditugula konpondu eta askotan gauza barri zoragarriak agertu baino, susmoak baieztu zein ukatu egin direla eta hauxe ere interesgarria eta beharrezkoa dela uste dugu. Gehien bat, eritzi eta sentimendu ezbardinak agerten direla uste dugu eta ezbardintasun hauek talde berezietan ematen direla ere. Baina esakeran baino egikeran daude ezbardintasun nabarienak. Esaten dana eta egiten danaren arteko apurketa, maila eta gizarte guztietan ematen bada ere, galdetu beharko genuke zein neurritan jasan dezakegun banaketa hori eta nora garamatzan.

Baina, bigarren pausua emon aurretik has gaitezen lehenengoa azaltzen eta guri dagokiguna behintzat urrengo orrialdetan hobeto agertuko dala uste dugu.

OHARRAK

1.- Mutila, etxeko euskalduna, tartekoa, %80-100 euskaldunak, pribatukoa.

2.- Mutila, etxeko euskalduna, hirikoa, %40-60 euskaldunak, pribatukoa.

3.- Neska, etxeko euskalduna, landakoa, %80-100 euskaldunak, publikokoa.

4.- Mutila, etxeko euskalduna, Bilbokoa, %20-40 euskaldunak, pribatukoa.

5.- Merton, R.K. **Teoría y Estructura Sociales**. Fondo de Cultura Económica México 1984.

6.- Arana, S. **"Aberria. Euzkotar bateri. Euskaltzale bateri"**, Baserritarra-n, 6gn zenbakia, 1897-Bagilla-6 Bilbao, in: **Obras Completas**, Buenos Aires, Sabindiar-Batza, 1965.

7.- Neska, ikastolako euskalduna, hirikoa, %40-60 euskaldunak, ikastolakoa.

8.- Mutila, erdalduna, Bilbokoa, %20-40 euskaldunak, pribatukoa.

9.- Mitxelena, K. "Los vascos y su nombre" RIEV Año 32, Tomo XXIX n 1. Enero-Junio 1984, 25.o.a. Artikulu honetan Mitxelenak, historian zehar euskaldunak edo vasco-ei emandakko izenen esanahiak azaltzen ditu.

Berak dionez, "Vasco" zen gazteleraz, euskal probintzietatik izatearen gain, euskeraz egiten zuena. Dena dela, berak planteatzen duen arazoa da guk hemen planteatu gura duguna, neurri baten behintzat, eta hauexe da: "De cualquier modo "euskaldun" seguirá siendo una tentación continua mientras "vasco" no tenga un equivalente aceptable y aceptado, y esto no porque, como ocurre ahora a cada paso, se parta de paradigmas semánticas castellanas y haya que buscarles apareamientos casilla por casilla; para gente que "ejerce de vasco", que eso viene a ser sentirse tal, le es imposible no tener un medio apropiado de señalarse con el dedo, y eso en su propia lengua (la sepa o no)".

10.- Lopez Adan, K. (Beltza) **Nacionalismo Vasco y Clases Sociales**, Txertoa Arg. Donostia 1.976. 112.o.a: "Las burguesías locales actuan principalmente como partes de la totalidad burguesa española y no como clases vascas o catalanas".

11.- Mutila, etxeko euskalduna, hirikoa, %40-60 euskaldunak, pribatukoa.

12.- Mutila, etxeko euskalduna, tartekoa, %80-100 euskaldunak, pribatukoa.

13.- Mutila, etxeko euskalduna, hirikoa, %40-60 euskaldunak, pribatukoa.

14.- Mutila, erdalduna, Bilbokoa, %20-40 euskaldunak, pribatukoa.

15.- Durkheim, E. **Las Reglas del Método Sociológico**. Schapire Editor, Buenos Aires, 1.976.

16.- Saussure, F.**Curso de Linguistica General** Editorial Losada, Buenos Aires 1.967 (6garren argitarapena).

17.- Ninyoles, R.Ll. **Estructura Social y Politica Linguistica**,Fernando Torres Editor, Valencia 1.975.

18.- Ikus, e.b.: Fishman,J.: "Diglosia with and without Bilingualism, Bilingualism with and without Diglosia", JOURNAL OF SOCIAL ISSUES, XXIII, 1.967. Eta iritzi hauen aurka, e.b.: Coseriu.**Sincronia, Diacronia, Historia**, Gredos, Madril 1.973; Sanchez Carrión J.M. "Bilinguismo, Diglosia, Contacto de Lenguas" Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo VIII, 1.974. Exma. Diputación de Guipuzcoa, San Sebastiàn 1'981; Ninyoles, R.Ll.:**Idioma y Poder Social**, Ed. Tecnos, Madril 1.980. Diglosiaren planteamendu klasikoa: Ferguson "Diglosia" WORD 1.969, 15.

19.- Puntu honi buruz, ikus. e.b.: Merton, R.K. **Teoría y Estructura Sociales** op.cit.; Berger/Luckmann: **La Construcción Social de la Realidad**, Amorrortu Eds. Buenos Aires 1.969; Habermas,J.: **Problemas de Legitimación en el Capitalismo Tardío**. Amorrortu Eds. Buenos Aires 1.975; Durkheim, E. **La División del Trabajo Social**, Akal Ed. Madrid 1.982 eta **El Suicidio**, Akal Ed. Madrid 1.985.

20.- Sanchez Carrión, J.M. "Bilinguismo,Diglosia, Contacto de Lenguas" op.cit.azpimarratua geurea.

21.- Nebrija, E.A. **Gramática de la lengua Castellana** (Prólogo) Editora Nacional Madrid 1.984 (2garren argitarapena).

22.- Knappert, J. "The function of language in a Political Situation" LINGUISTIC. May 1.968. Mouton. The Hague, Paris.

23.- Hizkuntza "sistema ideala" moduan aztertzen dutenen artean ikus, e.b. Saussure, Bloomfield, Chomsky.

24.- Bidart, P. "Langue et idéologie dans la culture basque" in **La nouvelle société Basque**. L'Harmattan, Paris 1.980, ikus ere, gai bardinetaz eta egile bardinena: "Elementos para una economia politica de la lengua" SAIOAK, Año IV, n 4, 1.980, 69-97 o.a.

25.- Mutila, erdalduna, Bilbokoa, %20-40 euskaldunak, pribatukoa.

26.- Datu bila dabiltzanak jo dezala ondoko argitalpenetara: Eusko Jaurlaritza: 1.981gneko zentsua, 1.981-82,1.982-83, 1.983-84, eta 1.985gnetako Urtekari Estadistikoak; Ruiz Olabuenaga eta beste, **Atlas Linguistico Vasco**, Eusko Jaurlaritza, Gazteiz 1.984 eta **Euskeraren Borroka** Eusko Jaurlaritza, Gazteiz 11.983.

27.- Urteen zeharko datuak zentsuan agertu dira ere eta 1.985-ko Euskal Urtekari Estadistikoan, orain arteko datuak. Dena dela, 1.986-ko zentsua ere irtetzeko dago eta datu berriak izango ditugu.

28.- Gai honetaz eta ikuspegi ezbardinez, ikus. e.b.:**La Problemática del Bilinguismo en el estado Español** Jornadas de Bilinguismo de Zarauz, 1.979 ICE de la Universidad del Pais Vasco. Lejona; Goroztidi, K. "Las Ikastolas" in **La Nouvelle Société Basque** op.cit.; SIADECO: **Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina**, Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Idazkaritza. Gazteiz 1.986; Lasa,M. "Irakaskuntza Elebiduna Euskal Herrian" JAKIN 7. 1.978; Etxezarreta,I; Garagorri,X; Osoro,I; "Elebitasuna Ikastoletan: egoera eta irtenbideak" JAKIN 32, 1.984; Euskarazko Kulturaren Batzarrea: "Euskararen Plangintzarako Oinarriak" JAKIN 34, 1.985.

29.- SIADECO-k Eusko Jaurlaritzarentzat egindako lanean agertzen da, euskeraz eta gaztelerazko trebetasun bardina, D ereduan eta batez ere euskaldun famili edo girokoek bakarrik lortzen dutela. B ereduan gaztelera da nagusi, ezagutzaz eta erabileraz. (Dena dela, lana, hizkuntzaren ezagutzari buruz da eta ez erabilerari buruz.)

30.- Mutila, erdalduna, Bilbokoa, %20-40 euskaldunak, publikokoa.

31.- Ariz, A. "de las ikastolas salen los jóvenes que participan en las manifestaciones de Herri Batasuna en las que se grita Gora ETA Militarra, que se vayan y mátalos". EGIN,1.986 Azaroak 18.

32.- Idiazabal, I.: **"Euskera eta Eskola"** in **Hizkuntza Minorizatuen Soziologia**, Ruiz Olabuenaga/Ozamiz (Argitaldariak), Ttarttalo, S.A. Donostia, 1.986

33.- Puntu honetan, e.b.: Touraine, A; Dubet, F eta beste:**Le pays contre L'État**, Editions du Seuil, Paris 1.981; Jauregui, G: **Contra el Estado Nación**, Ediciones S.XXI, Madrid 1.986; Colectivo Herria 2000 Eliza:**Autodeterminación de los Pueblos**, Bilbao 1.985 (Ale 2).

34.- Ninyoles, R. Ll.: **Idioma y Poder Social**, op.cit.

35.- Ikus zentzu berdinean: Sanchez Carrión, J.M.:**El Espacio Bilingue**, op.cit.; Azurmendi, M.J.: "Elebitasuna" in **Euskeraren Liburu Zuria**, Euskaltzaindia, Bilbo 1.978;

Txillardegi eta beste: **Klebidun Gizarteen Azterketa Matematikoa**, Udako Euskal Unibertsitatea, Iruina 1.984; Aracil, Ll.: **Papers de Sociolinguistica**, Ediciones de La Magrana, Barcelona 1.982.

36.- Ideia hau, e.b.: Garaikoetxea, C. Gernika-n egindako hitzaldian.

37.- Hementxe interesgarria litzateke zera aztertzea: a) etorkinen artean zenbatek ikasi duen euskeraz berba egiten, eta, b) ezagutzatik aparte zeintzuk diren euskeraz egiteko posibilitateak. Honetaz alderatu e.b. **Euskadiko Komunitate Autonomoko Zentsua** eta Txillardegi eta besteek aipatutako **Klebidun Gizarteen Azterketa Matematikoa**, liburua. Azken hau nahiko ezkor agertuko litzateke puntu honetan, haiek planteatzen duten azterketaren arabera, horrelako ehunekoekin, ia ezina gertatzen delako gizarte mailan, euskeraz aritzea.

38.- Mutila, eskolako euskalduna, Bilbokoa, %20-40 euskaldunak, pribatukoa.

39.- Neska, ikastolako euskalduna, hirikoa, %40-60 euskaldunak, ikastolakoa.

I

EDUKI AZTERKETA: OINARRI TEORIKOAK

1.- DEFINIZIOA

"Eduki azterketa komunikazio baten agiri dagoen edukiaren deskripzio objetibo, sistematiko eta kuantitatiboa lortzeko teknika bat da".

Honela definitu zuen B. Berelson-ek, klasikoa bihurtu den "Content Analysis in Comunication Research" liburuan 1.952 garren urtean.

Berelsonek berak azterketa honen azpideiak eta baldintzak finkatu zituen. Hauxe da orain azaldu eta komentatuko duguna, gaur egun onartzen diren ideiak ere aipatuz.

2.- AZPIDEIAK

Aztertzen dena eduki agiria dela argi dago eta ondoko azpideietan finkatzen da.

2.1.- Eduki azterketak, guraria eta edukia edo eta edukia eta ondorioen harremanei buruzko benetazko inferentziak egin daitezkela suposatzen du.

Hau da: edukia eta intentzioen artean ez dagoela etenik.

Beraz, edukian agertzen denatik, zuzenean, ez dagoenari buruzko ezagupenak lortu daitezkela, baina hementxe arazo bi aipatu egin behar dira.

Alde batetik, honek arrisku bat dakar: edukia lortu nahi denaren arabera aztertzea eta, etenik ez dagoen aitzakian, edukiari ikertzailearen kategoriak ezartzea. Zelan ezbardindu ikertzailearen eragina dena eta egilearen nahian egoana?

Honek bigarren puntura garamazki.

Komunikazioaren fenomenoa eta harremanaren berezitasunak ondo ezagutzeko beharrizenera eza. Horretarako komunikazioaren kontextua eta hizkuntza berari buruzko ezagupen sakonagoak behar dira.

2.2.- Eduki azterketak, agirian dagoen edukia (manifest content)[1] esankorra dela suposatzen du. Cicourel-ek azpimarratzen duen moduan, hementxe edukia "topa lekua" bihurtzen da. Hontan: emalea, hartzailea eta ikertzailea aurkitu egingo lirateke, bakoitzaren interpretaziorako baldintzak alde batera utziz edo garrantzigabekoak izanik.

Beraz, zehazki, idatzizko forma sinbolikotara itzul daiteken kultura komun baten sinisten du.

Egileak diona edo eta, idazten duena, esan edo eta idatzi gura duenarekin eta besteek ulertzen dutenarekin harreman hestu baten dagoela suposatzen da beraz, baina hauxe ez dago hain argi: zeintzuk dira kultura komun horren berezitasunak? Zeintzuk dira kontutan hartzen diren egilearen nahiak eta ekintzen arteko

ezbardintasunak? Zeintzuk hartzaileenak eta zeintzuk ikertzaileenak?.

Cicourel-ek dionez hauxe ez da eduki azterketan bakarrik gertatzen den arazoa. Landa azterketak egiten dituen guztiak badaki, ekintzei erantsi behar zaien zentzua erabakitzea arazogarria gertatzen dela.

2.3.- Eduki azterketak, komunikazioaren edukiaren zenbateko deskripzioa, esankorra dela suposatzen du. Hau da, edukiaren berezitasun batzuen agerpenaren maiztasuna berez dela garrantzitsua.

Ideia honek suposatzen duena zera da: aztertzen den edukiaren unitate guztiek, azterketaren helburuetarako antzeko pisua dutela.

Beraz, eduki baten, unitate bat beste guztiak batera bezain garrantzitsua balitz, eduki azterketak ez luke baliorik izango.

Puntu honetan kritika gogorrak izan ditu metodo honek, askotan ezagerpena agerpena bezain esankorra delako batetik; eta zenbatu baina ez duelako egiten bestetik egoera kontutan hartu barik [2] ondoko ideiak argi azaltzen duenez:

"... askotan aipatzen den gai baten garrantzia ziurtatu dezaken ezer edo alderantziz, gitxitan aipatzen den gai bat, esangaitza edo ukatuta dagoen oinarrizko irudi batekin lotuta ez dagoena ziurtatu dezaken ezer ere ez dago".

Honarte, Berelson-en definizioa eta azpideiak ikusi ditugu, eta, gertatu diren hainbat kritika bestaldetik. Ikus ditzagun orain, zeintzuk ziren Berelson-entzat eduki azterketak bete behar zituen baldintzak, ondoren hauei komentarioren bat edo beste egiteko.

3.- BALDINTZAK

Definizioan emanda, oinarrizko baldintzak hauxek dira: Objetibitasuna, sistematikotasuna, eduki agirian bakarrik finkatuta, zenbakotasuna. Banan banan ikusiko ditugu.

3.1.- Objetibitasuna

Honek suposatzen du azterketak baieztagarria izan behar duela, hau da, beste edozein ikertzailek, metodo bardinak erabiliz ondorio bardinetara heldu behar duela.

Ideia honi buruz Juan Javier Sanchez Carrion-ek [3] zehaztapen batzu egiten du.

Ikertzaile batek, objetu bera behin baino gehiagotan neurtzen badu eta ondorio bardinak lortzen baditu orduan neurketa "iraunkorra" da. Iraunkortasuna, dana dala, ez da nahikoa neurketa zuzena izateko.

Ikertzaile ezbardinek zera bat bera neurtzen dutelarik, denek ondorio bardinak lortuz gero, orduan neurketa "berregingarria" litzateke. Hauxe da textu azterketan lortu

beharko litzatekeen maila.

Amaitzeko, aurreko operazio biak neurketaren balio exaktuarekin konparatuz, denak bat badatoz, orduan neurketa "zehatza" da.

Maila hau zailtasunez lortuko litzateke textu azterketan.

Beraz bigarren mailarekin konformatu beharko genuke. Baina hementxe ere arazoak sortzen dira. Kode lanaren mugagabetasunean gertatzen dira arazoak. Nahiz eta definizio oso zehatzak izan, ezin da berregingarritasun hori ziurtatu. Hauxe da hasieratik eta hainbat lanetan agertu den arazoa. E. Nochmann-ek aipatzen du, projektu askotan, eta kategoriak, zailtasun normal batekoak izanda, kodetzaileen arteko adostasuna %80 koa izaten dela, kategoriak zailagoak izanik adostasun hau %60 edo gitxiagoko mailara jatsiten delarik.

Bardin-ek zera dio:

> ..."Hertz bi hauek, zehaztasunaren gogoak eta aurkitzearen beharrizanak, aurreratzearenak eta itxuraren atzetikoa jakitearenak, bere bilakaera historikoaren indar lerroak eta gaur egun oraindik ildo bi hoien artean mugierazten duen zatiketa adierazten dituzte (...) Metodolgikoki, ildo bi aurka edo batera agerten dira: baieztapen zuhurra ala "interpretapen" lilugarria4)".

Azkenean, askotan lanaren helburuek eta posibilitate errealek mugatuko dituzte baldintza honen burupen mailak.

3.2.- Sistematikotasuna

Hau da, azterketak ikertzen den arazoarekin lotuta dagoen guztia kontutan hartu behar du eta ikerketarako landu diren kategoria guztien arabera aztertu.

Hementxe ere gauzak ez dira hain errez gertatzen, eta informazioaren galeraren hainbat arrazoi dago.

- Aurretik erabakita dauden kontutan ez hartzekoak (errepikapenak, ulergaitzapenak...).

- Azterketaren kategoriak finkatzeko erabiltzen diren laginetan agertu ez direlako geroago agertzen diren ideia batzuk.

- Azterketa metodoak baztertu egiten dituelako ulergaitzak diren proposamenak.

Askotan guzti honek, gutxi gorabehera edukiaren %60-a betetzen du.

3.3.- Eduki agirian finkatuta

Dagoena bakarrik hartu behar da kontutan. Egoera edo pertsonak ezagutzen, imaginatu edo suposatu daitezkeenak alde batera utzi behar dira.

Honek ez du esan nahi ez dela inferentziarik egin nahi, egiten direnak dagoenatik sortu behar direla baizik.

Dena dela, puntu honek kritika gogorrak jaso ditu.

Eduki azterketa, lehen ere esan dugu (ikus 2.1), komunikazio prozesu baten ematen da. Beraz, prozesu hori osotzen duten osagari guztiak garrantzitsuak dira. Ezina bihurtzen da, osagarri guzti hoiek baztertuz, baten azterketa soila egitea, hau epe aldagarri baten moduan hartzen ez bada behintzat. Hau da, zientzia mailan onartzen da, eratzen diren azterketa ereduak aldatuz doazela etengabe zentzu honetan, errealitatean saiatu eta baieztu zein ukatu egiten dira eta hipotesi eta eredu berriak sortu egiten dira.

Honela, planteamendu hau lehenengo pausu baten moduan onartu baliteke ere ezin da behin betirakotzat hartu.

3.4.- Zenbatekotasuna

Azterketaren zihurtasuna sendotzera dator baina eztabaidagarria da.

Batez ere aniztasunean finkatzen da, baina ikusi dugu, jadanik, ideia honek sortzen duen hainbat arazo (ikus 2.3.).

Alde batetik ezin da frogatu maiztasuna eta garrantzia, esankortasuna, batera dijoazenik eta, bestetik, aniztasuna

onartuta ere, zelan egin behar den honen pisuaren neurketa ere eztabaidagarria agertzen da.

4.- BOROBILTZEN

Gaur egun orokorrean, eduki azterketa teknika "bat" baino, teknika multzo bat dela onartzen da.

Ikertzaile bakoitzak ikerketa helburu eta inguru ezbardinak izanik, bere metodoa sortzen du eta honek lorpenak konparagaitzak bihurtzen ditu.

Soziologiaren ikuspegitik, zentzu lexikal baten baino teoria soziologiko ezberdinen hipotesien arabera aztertzen ditu komunikazioaren edukiak.

Baina kontuz ibili behar da, eduki azterketak komunikazio prozesu osoa kontutan hartzea eskatzen du eta honek itzelezko zailtasuna suposatzen du.

Alde batetik linguistika mailan fenomeno zailak gertatzen direlako eta metodologia ezezik teoria ere finkaturik gabe dagoelako.

Komunikatzeko ekintza berean gertatzen diren harremanak ezin direlako suposatu eta ikertzailearen egoera ere kontutan hartu behar delako. Hementxe fenomeno bi agertzen dira: alde batetik kulturaren mundua, zelan gertatzen den sinbolo eta esanahi

sozialen banaketa, eta, bestetik, talde eta momentu baten gertatzen dena egokigaitza bihurtzen delako beste komunikazio egoera edo prozesua aztertzen dugunean.

Hau "kultura" bardinean momentu ezbardinetan gertatzen diren komunikazioetan eta momentu bardinetan baina "kultura" ezbardinetan ematen direnean.

Metodoa gaur egun bere oztopoak gainditu nahiean dabil. Honako hauek dira, goian aipaturikoetaz aparte, kontutan hartzekoak.

Mugagabetasuna: hau da, hitzek duten polisemia. Hontan ere kontextuaren garrantzia agertzen da, hitz bardinek kontextu ezbardinetan esanahi ezbardinak izan ditzakete eta bestetik kontzeptuek ez dute hizkuntza guztietan balio berbera.

Zehaztasunaren arazoa, goikoari lotuta, eratzen diren kategorien mugagabetasunean ere ematen da. Ezin da ziurtatu, nahiz eta kategoriak oso ondo definitzen saiatu, ikertzaile ezbardinek sailkapen bardinak egingo lituzketenik.

Dana dala, eduki azterketak ez du kasu guztietan horrenbeste zehaztasunik eskatzen baliotsua izateko.

Gero eta gehiago gizartearen eraketa eta sorketa, maila kulturala eta giza-harremanak sortzen dituzten arlo guztiek eta giza-harremanek sortzen dituzten arlo guztiak, hau da orokorrean

gizamundua eratzeko ematen diren harremanak komunikazio harremantzat hartuak izaten dira. Zentzu honetan, eduki azterketak, komunikazio prozesuaren berezitasun batzuengana hurbiltzeko posibilitateak eskaintzen dizkigu. Ez da bide bakarra, jakina, baina bide bat da.

OHARRAK

1.- Cicourel, A.:**El Método y la Medida en Sociología**, Editora Nacional, Madrid 1.982.

2.- Ikus. e.b.: Chiglione; Beauvois eta beste:**Manual d'Analyse de Contenue** Armand Colin, Paris 1.980 (Collection U).
Mochmann, E.:"Análisis de Contenido mediante ordenador aplicado a las Ciencias Sociales" Centro Internacional de Investigaciones Cientificas, REVISTA INTERNACIONAL DE SOCIOLOGIA, Madrid 43 (1) 1.985; Kientz, A.:**Para analizar los mass media. El análisis de contenido**. Fernando Torres Editor. Valencia 1974.
Puntu honetan, beste arazo bat ere agertzen da: maiztasunaren balorapena. Zelako pisua eman behar zaio maiztasunari? Ikus. Mohler, P. PH. in REVISTA INTERNACIONAL DE SOCIOLOGIA cit. "Algunas observaciones prácticas sobre la utilización del anàlisis de contenido en ordenador".

3.- Sanchez Carrión J.J.:"Técnicas de análisis de los textos mediante codificación manual" REVISTA INTERNACIONAL DE SOCIOLOGIA op.cit.

4.- Bardin, L. **L'Analyse de Contenu**, Presses Universitaires de Frances, Paris, 1.980.

II

METODOA

Atal honetan datuak lortzeko bidea ikusiko dugu. Zelakotasunetik zenbatekotasunera pasatzeko bide guztiak bezela, hau ere luzetsua izan da, baina pausuz pausu azalduko dugu, horrela bide osoaren mugarririk nabarmenenak agertzeko aukera izango dugu.

Kronologikoki aurkezten saiatuko gara. Honek esan nahi du, puntu batzutan gauzak, behar bada, errepikatu egingo direla. Sarritan gauzak batera gertatzen dira, baina, azaltzerakoan, banan-banan azaldu behar izaten dira.

Lau zati nagusitan banatu dugu aurkezpena:

1.- Galderak: Zelan eta zeintzuk izan diren
2.- Lagina: Nori egin zaizkion galderok.
3.- Zabalketa eta bilketa: Zelan egin eta zelan bildu diren erantzunak.
4.- Lanketa: Idazlanetatik, ordenagailuan sartzeko moduko kodeakuntza.

Has gaitezen bada, banan banan ikusten.

1.- GALDEKETA

1.1.- Fitxak

Azterketa egitean alde ezbardinak ipini gura izan dira harremanetan. Alde batetik umea bera, berak sentitzen duena eta pentsatzen duena edo, behintzat esaten duena. Bestetik "inguru hurbila" deitu duguna hau da, familia: zeintzuk diren bere berezitasunak, jatorria, hizkuntza, egunkaria... eta, neurri baten, eskola, hau, batez ere, lana zabaltzea eskolaka egin dugulako eta suposatzen dugun, honek ere bere eragina izan duela. Azkenez, "inguru urruna" deitu duguna, hau da: herria, non dagoen, zenbat bizilagun dituen, jendea lan egiten kanporantza doan ala bertara datorren... eta horrelako gauzak.

Atzean dagoen ideia erreza da: idazlanen arteko ezbardintasunak azaltzeko ea honelako arrazoirik balioko lukenik ala ez.

Beraz, maila bakoitzerako fitxa ezbardinak osotu ditugu (ikus iraskinak).

Hiru izan dira: bat herriarentzako, bestea eskolarentzako eta hirugarrena umearentzako. Hirugarren honetan familiari buruzko datuak ere eskatu ditugu.

Lehenengo biak guk bete ditugu, hirugarrena umeak berak.

1.2.- Idazlanak

Hauxe izan da umearen betebehar nagusia. Hementxe bat baino aztertzen ez bada ere, bi izan dira umeak bete behar izan dituenak bat hizkuntzari buruz eta bestea herriari buruz.

Izenburuak "Gure hizkuntza" eta "Gure herria" izan dira. Nahiko ideia topikoak baina guk interesgarritzat jotzen ditugunak.

Guk aztertu nahi izan dugu, ea benetan, hainbat bider aipatzen den, talde ezbardinen ideia hori errealitatea den ala ez.

Herria eta hizkuntzari buruz eritzi ezbardinak agertzen dira egunero eta maiz. Maila guztietan agertzen diren ideiak dira, egunkarietan, eskolan, liburuetan, politikarien ahoetan... umeei aukera ematea ere ondo ikusi dugu.

Bestaldetik eta hizkuntzari dagokionez, Ninyolesek 1) aipatzen duen Fishmanen ideia ere kontutan hartu dugu:

> "J.A. Fishman ha propuesto una distinción muy útil para nuestro contexto: La establecida entre actitudes expresadas **a través** del lenguaje y actitudes que se expresan **sobre** el lenguaje(...) afirmamos simplemente que a través del uso concreto de un idioma (...) podemos indagar hasta cierto punto cuál es la actitud subyacente del sujeto, aún cuando tal actitud no llega a ser en ningún momento explícita. Y esto equivale a decir que ambas actitudes lingüísticas, implícita (= a través del lenguaje) y exlícita (=sobre el lenguaje) van muy frecuentemente unidas".

Beraz guk adierazitako jarrerak aztertuko genituzke.

Azken puntua, "Gure" ideiarena litzateke eta zergatia ere simplea da: taldearen mugak non ipintzen diren jakiteko, umearen aukera eta implikapena bilatu izan ditugu.

1.3.- Orokorrean

Fitxen eta idazlanen bidez, umea eta ingurua ezagutu nahi izan ditugu.

Guk fitxa bi bete ditugu, ikastetxekoa eta herrikoa.

Umeak, fitxa bat eta idazlan bi.

Umearen lanari buruz ere kriterioak hartu behar izan dira ahalik eta kontrolik gabeko aldagai gitxien izateko.

Finkatutako kriterioak, honako hauek izan dira:

- Fitxa (umearentzakoa) euskeraz zein gazteleraz aurkeztu da.

- Erantzuterakoan aukera egon da euskeraz zein gazteleraz erantzuteko. Puntu hau ere, ikastetxe guztietan komentatu da, ahalik eta aukerarik zabalena emateko

- Idazlanetan, euskeraz zein gazteleraz erantzuterko aukera eman gura izan dugu eta horrela esan dugu eskoletan.

- Ez da zehaztu hizkuntzarik ez eta herririk ere.

- Erantzunik ez ematearen aukera ere zabalik egon da.

Aukera askearen ideia leku guztietan komentatu dugu. Badakigu planteamendu hau, neurri baten "inoxua" izan daitekela. Baina guk ez dugu hizkuntza bati buruzko ideiarik jaso nahi izan bakar-bakarrik, guk egoeraren neurri edo ideia oso bat lortu gura izan dugu eta horrelako planteamendu baten, entzun gura ez zenukena ere entzuteko prest egon behar duzu eta, zentzu honetan, nahiz eta gura barik horrelako ziriak agertzen direla onartu, guk ahalik eta zabalen eta zintzoen jokatu gura izan dugu.

Egia da ere, ikastetxea ezin izan dugula alde batera utzi eta honek ere bere eragina izan duela. Nahiz eta bere zenbatekoan neurgaitza eta frogagaitza izan, guretzat argi agertu da lanaren emaitzetan.

Baina horrelako ideiak azkenengo puntuan komentatuko ditugu eta goazen beraz aurrera.

2.- LAGINA

2.1. ZELAN ERATU DA

Lagina zati nagusi bitan banatu dugu: Bilbo eta Bizkaia (Hau da Bilbo Hiria eta Bizkaiko beste lurraldeak).

Hasieran Bizakiko lagina osotu zen, ezbardinaketa hau egin barik, baina zozketaz Bizkaiko ikastetxeak atara zirenean, Bilbori ez zitzaion bat ere suertatu.

Pentsatu genuen, Bilbo oso berezia dela: Bizkaiko hiri-egitura kontutan harturik [2] probintzi osoko "burua" delako eta biztanlego kopururik haundiena eta bateratuena duelako, beraz, ez genuen ondo ikusten, Bilbo laginatik kanpo itxitea.

Beste alde batetik Bilbok Bizkaia osoan daukan pisua laginan bersortuz gero, beste lurraldeetako pisuak desagertu egingo lirateke.

Beraz, erabaki hori hartu zen: Bilbo alde batetik eta Bizkaia bestetik, lagina ataratzeko orduan behintzat.

Oraintxe, bada, lagin bakoitza zelan eratu den ikusiko dugu. Azkenean, datuak batuz, aztertu den erantzunen kopurua zein izan den azalduko dugu.

2.1.1.- Bizkaia

Ikasle kopurua (8garren mailan eta 82-83 ikasturtean) Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eskeini dizkigun datuen araberan 20.096-koa da.

Kopuru honek 400-go lagina eskatzen du. Baina 400 hauek nondik eta zelan aukeratu erabakitzeko beste aldagai batzu hartu dira kontutan.

Hiria/Herria

Ezbardintasun hau oso klasikoa da, baita sortzen dituen arazoak ere, baina eraginkorra dela argi dago. Gainera geure kasuan gauza jakina da euskera herrietan gorde dela batez ere. Beraz guk interesgarritzat jotzen dugu bereizketa hori.

Udalak aldagai honen arabera sailkatzea erabaki da, 1.981ko Euskadiko Komunitate Atonomoko Etxebizitzen eta Biztenleen zentsuan agertzen dena erabiliz.

Eta zentsuan sailkapen hau honela agertzen da 3):

ZONAK

"Biztanleri entitateen taldekatze bat da, biztanleriako maila ezberdinak beren bizimoduari dagokion ezaugarri-sail baten arabera talde homogenoago batzutan banatzeko xedearekin.

Hiritakoa.- Gertatzez 10.000 biztanletik gorako biztanleri entitate singularrezko multzoa.

Tartekoa.- Gertatzez 2.001 etik 10.000 biztanlera bitarteko biztanleri entitate singularrezko multzoa.

Landatarra.- Gertatzez, 2.000 biztanle eta gutxiagoko biztanleri entitate singularezko multzoa."

Hontan ere Bilbo aparte hartzeko beste arrazoi bat aurkitzen dugu, horrelako definizio batez, Bermeo eta Bilbao bardinduta gelditzen bait dira.

- **Hizkuntza**

Hizkuntzari buruzko azterketa osotu gura izan dugu eta honetarako hizkuntzaren ezagutza maila garrantzitsutzat jo dugu.

Gauza bera gertatzen zaigu hontan: ezagutza maila definitzea, ezagutza eta erabilera banatzea eta horrelako arazoak, guk ezin ditugu konpondu. Beraz, eginda dagoen sailkapena aukeratu dugu, kasu honetan Atlas Lingüstico Vasco[4] delako liburuan agertzen dena.

Bizkaiko herrialdeak lau zonatan banatzen dira. Zona bakoitzean euskeraren ezagutza ehuneko ezbardinetan gertatzen da. Hona hemen zonok:

- %80-100 euskaldunak
  Gernika-Bermeo
  Markina-Ondarroa 74.366 biztanle

- %60-80 euskaldunak
  Plentzia-Mungia 33.544 biztanle

- %40-60 euskaldunak
  Arrati-Ibaizabal
  Durangaldea 113.203 biztanle

- %20-40 euskaldunak

- %0-20 euskaldunak
  Bilbo Handia
  Enkarterriak 968.165 biztanle

Osorik 1.189.278 biztanle

Hauxe, lauki txiki baten ipini ezkero, honela gertatzen da:

	Biztanle	%
%80-100	74.366	6,3
%60-80	33.544	2,8
%40-60	113.203	9,5
%20-40	- -	- -
%0 -20	968.165	81,4
	1.189.278	100,-

- Ikastetxe mota

Ikastolak, Publikoak eta Pribatuak berezitu ditugu.

Banaketa hau ere interesgarria da. Eztabaida handiak sortu dira honen inguruan eta, gainera, badugu banaketa honekin experientziaren bat.

Puntu honetan beste zehaztapen bi egin behar dugu. Alde batetik, ereduak, hau da, ofizialki hiru eredu ezbardintzen dira:

A.- Gazteleraz ematen da dana eta euskera asignatura moduan dago.

B.- Elebiduna, hau da, euskeraz eta gazteleraz antzeko orduak ematen dira.

D.- Euskeraz ematen dira gai gehienak, gazteleraz gai zehatz batzuk emanez.

Ikastoletan, ez da arazorik izan euskeraz ematen delako, baina besteetan gauzak ez daude han argi. Dana dala errez konpondu da arrazoi bategatik: ikasturte honetan (84-85) 8garren mailan oraindik eredu euskaldunak finkatu barik daudelako eta beraz Pribatu eta Publikoetan gazteleraz ematen da dana.

Bigarren puntua zera izan da: zerrenda ofizialetan ikastetxe guztiak agertzen dira. Baina guri O.H.O.ko 8garren maila dutenak bakarrik interesatzen zaizkigu. Beraz, haurtzaindegiak, helduen ikastetxeak, hezkuntza berezikoak eta orokorrean, O.H.O.-ko 8garren mailarik ez duen guztia zerrendatik atara da.

Aurreko guztia kontutan harturik, lagina (400 pertsona) proportzionalki banatzea erabaki da.

Ikastetxe kopurua, ikastetxe motak eta hiri-zonen arabera (Hemendik aurrera, "Hiri-zona" erabiltzen denean, hiria, tarteko eta Landa, zonen arteko ezbardintasuna edo sailkapena adieraziko da).

	Ikastolak	Publikoak	Pribatuak	
Hiria	30	149	114	293
Tartekoa	14	37	17	68
Landa	2	13	--	15
	46	199	131	373

(Iturria: Eusko Jaurlaritza Hezkuntza saila, eraketa geurea).

Lauki honetan O.H.O. osorik ematen duten ikastetxeak agertzen dira (horrela sailkatuta daudenak behintzat).

Ondoan, lauki berbera, baina ehunekoetan aurkezten dugu:

Ikastetxe kopuruaren ehunekoa

	Ikastolak	Publikoak	Pribatuak	
Hiria	8,-	39,6	30,3	77,9
Tartekoa	3,7	10,-	4,5	9,2
Landa	,5	3,4	- -	3,9
	12,2	52,0	34,8	100,-

Baina guk ikasle kopurua ezagutu behar dugu eta datu hori orokorrean agertzen da, hau da zenbat ikasle Bizkaiko Ikastoletan, zenbat Pribatuetan zenbat Publikoetan. Beraz, hurbilpen bat baino ez da posiblea izan eta horrela egin dugu.

Kalkuluak honela egin dira:

Ikastolak.- Ikasle kopurua: 943

Ikastetxe kopurua: 46

Ikasle/Ikastetxeko: 943/46=20.5

Hirietan: 30 x 20.5= 615 ikasle

Tartekoetan: 14 x 20.5= 287 ikasle

Landetan: 2x 20.5= 41 ikasle

Publikoak.- Ikasle kopurua: 11.064

Ikastetxeak : 199

Ikasle/Ikastetxeko : 11.064/199=55,6

Hirietan : 149 x 55,6 = 8.284 ikasle

Tartekoetan : 3 x 55,6 = 2.057 ikasle

Landetan : 13 x 55,6= 723 ikasle

Pribatuak.- Ikasle kopurua : 8.089

Ikastetxeak : 131

Ikasle/Ikastetxeko : 8.089/131 =61,75

Hirietan : 114 x 61,75= 7.040 ikasle

Tartekoetan: 17 x 61,75= 1.049 ikasle

Landetan :---------- ikasle

Honela, ondoko laukia osotu dugu:

Ikasle kopurua

	Ikastolak	Publikoak	Pribatuak	
Hiria	615	8.284	7.040	15.939
Tartekoa	287	2.057	1.049	3.393
Landa	41	723	--	764
	943	**11.064**	**8.089**	**20.096**

(Gogoratu egingo dugu barriz, datuak gitxi gorabeherakoak direla, datu zuzenik ezin izan dugulako lortu).

Ehunekoetan datuak honela izango lirateke.

Ikasle kopurua (Ehunekoetan)

	Ikastolak	Publikoak	Pribatuak	
Hiria	3,1	41,2	35.-	49,
Tartekoa	1,4	10,2	5,2	16,8
Landa	,2	3,6	- -	3,8
	4,7	**55,0**	**40,2**	**100,-**

Ehuneko hauek, laginari egokituz leku bakoitzean zenbat ikasle hartu behar dugun lortzen dugu:

Lagina.- Ikasle kopurua

	Ikastola	Publikoa	Pribatua	
Hiria	12	165	140	318
Tarteko	6	41	21	67
Landa	1	14	--	15
	19	**220**	**161**	**400**

Kopuru hau barriz ikastetxeetan banatu egin behar izan da, eta ikastetxe bakoitzaren ikasle/ikasgelako kopuru "media" kontutan izanik ondoko datuak agetzen dira.

	Ikastola	Publikoak	Pribatuak	
Hiria	1	3	3	7
Tartekoa	1	1	1	3
Landa	1	1	-	2
	3	**5**	**4**	**12**

Errez, ikusten da, arazoak sortzen direla. Alde batetik euskera mailak ez dira kontutan hartzen, eta bestetik oso zaila gertatzen da, ikasgela baten 12 ume aukeratzea e.b. (edo 1 beste kasu baten).

Erabakiak hauexek izan dira:

Hiru euskera maila eratu da:

%60-100 euskaldunak.

%40-60 euskaldunak.

%0-20 euskaldunak. 5)

Maila bakoitzeko hiru mota ezbardinetako ikastetxe bana hartuko dugu, honela, 3 x 3 x 3= 27 ikastetxe hartuko dugu eta hau arrazoi bategatik, guretzak landak hiriak bezain garrantzitsuak direlako.

Honez gain ikastetxe bakoitzean 8 garren mailako ikasle guztiei egingo zaie froga. Honela aukeraketa baten arazoak ez dira agertuko.

Beste puntu bat dago oraindik, landetan oso ikastetxe gitxi agertzen da, eta agertzen direnak kasu gehienetan publikoak dira. Beraz beste ikastetxe motek itxiten duten hutsuna betetzeko, eskola publikoak hartu dira.


Azkenean bada, 27 ikastetxe eta, gitxi gorabehera, 1.200 ikasle hartu dira, "Bizkaian" hau da Bilbo kontutan hartu barik.


Ikastetxeak zeintzuk izango diren jakiteko, zozketaz egin da eta urrengo orrialdean Herri-zerrenda, ikastetxe moten araberan eskeintzen dugu. Geroago mapa batzuk agertzen dira, ikastetxe moten banaketa azaltzen da lehenengo hiruretan, eta laugarrenean, gure laginaren banaketa bizkaiko lurraldetan.


BIZKAIKO LAGINA


IKASTETXEAK

	IKASTOLAK	PUBLIKOAK	PRIBATUAK
Hiria	Bermeo Zornotza Galdakao	Bermeo Zornotza Galdakao	Bermeo Zornotza Santurtzi
Tarteko	Miravalles Markina Güñes	Miravalles Markina Güñes	Markina Elorrio Güñes
Landa	Zaratamo Loiu	Zaratamo Mundaka Mallabia Gatika Muxika Zeanuri Gordexola	Zaratamo


IKASTOLAK
HONDARRIBIA
BERRIGO
LEKEITIO
ONDARROA
GETXO
ALGORTA
LEIOA
LOIU
MUNGIA
GERNIKA
MARKINA
SANTURTZI
PASAIA
ORIAZTIA
S.SEBASTIAN
BARAKALDO
BILBO
BASAURI
GALDAKO
ZORNOTZA
GUEÑES
ARRIGORRIAGA
ZARATAMO
BALMASEDA
MIRANDALES
IGORRE
DURANGO
BERRIZ
ERMUA
ELORRIO
+10.000
2.001→10.000
—2.000
1 : 400000


PUBLIKOAK
PORTUGALETE
SOPELANA.
PLENCIA.
SESTAO
GETXO
URDULIZ
BARRIKO
ERANDIO
LEIOA
BERANGO
GATIKA
MUNGIA
BUSTURIA
LEKEITIO
ONDARROA.
GERNIKA
MUNDAKA
MUXIKA
BILBO
LEZAMA
BASAURI
GALDAKO
ZORNOTZA
MARKINA
SOPUERTA
CARRANZA
ZALLA
GUENES
BALMASEDA
GORDEXOLA
ARRIGORRIAGA
ZARATAMO
BEDIA
LEMOA
MALLABIA
ERRIGOITI.
ZALDIBAR
DURANGO
IGORRE
ABADIÑO
ELORRIO
BERRIZ
NIKRAVALLES
ARTEA
AREATZA
ZEANURI
OROZKO
DIMANDIO
ORDUÑA
+ 10.000
2.001 → 10.000
— 2.000
1:400.000


PRIBATUAK
PORTUGALETE
SESTAO
AB. GERNIKA
BERMEO
LEKEITIO
MUNGIA
ALGORTA
ONDARROA
LEIOA
GERNIKA
MUSKIZ
SANTURTZI
BILBO
MARKINA
S.S.JUAN
BARACALDO
BASAURI
ZORNOTZA
GUECHO
ZALLA
DURANGO
ERMUA
BALMASEDA
ELORRIO
OROZCO
ORDUÑA
+ 10.000
2.001 — 10.000
— 2.000
1:400.000


IKASTETXEEN ZERRENDA
BERMEO
MUNDAKA
GATIKA
LOIU
MUXIKA
SANTURTZI
Bilbo
MARKINA
GALDAKO
ZORNOTZA
GUEÑES
ZARAUTZ
MALLABIA
GORDEXOLA
MIRAVALLES
ELORRIO
ZEANURI
IKASTOLAK
PUBLIKOAK
PRIBATUAK
1: 400.000

- **Bilbo**

Ez dugu Bilboko 8garren mailako ikasle kopurua eta hutsuna betetzeko kalkulatu egin dugu zein den Bizkaia osoko eta ehuneko bardina aplikatu dugu Bizkaiko 8garren mailako ikasle kopuruan. (Beste posibilitate bat ere bazegoen, 8garren mailakoen ehunekoa atara, Bizkaiko biztanleriarekin konparatuta, eta ehuneko hau Bilboko biztanleari egokitu: bardin antzekoak gertatzen dira datuak).

Honela, bilboko 8garren mailako ikasle kopurua 7.400 inguruan agertzen da.

Lagina ere 400-koa izanik, urrengo pausua ikastetxe kopurua finkatzea da. Ikastetxe mota bakoitzeko ikasle/ikasgelako media harturik orokorrean, 46 ikasle/ ikasgelako agertzen da beraz 9 ikastetxe dira lagina osotzeko.

Bilboko ikastetxeen %90 (45 eta 45) Pribatuak eta Publikoak dira eta %10 Ikastolak. Beraz 4 Publiko 4 Pribatu eta Ikastola 1 laginan, baina guretzat ikastolak garrantzitsuak dira eta Bilbo osoan ikastola bakarra hartzea ez dugu oso ondo ikusten.

Azkenenan mota bakoitzeko lau ikastetxe hartzea erabaki da.

Beste arazo bat oraindik: zeintzuk hartu? Bilboko auzotegiak hartu dira kontutan eta auzotegi ezbardinen ikastetxeen artean zozketa egin da.

Esan behar da, hiri erdian ere ez dela ikastola askorik agertzen eta auzo guztietan ez dagoela mota guztiko ikastetxerik. Baina bata ez denean beste antzeko bat bilatzen saiatu gara.

Azkenean beraz Bilbon 12 ikastetxez eta gitxi gorabehera 600 ikaslez osotu da lagina.

Ikastetxeak honela aukeratu dira:

Ikastola	Publikoa	Pribatua
S. Inazio	S. Inazio	Deustu
Santutxu	Txurdinaga	Txurdinaga
Erdigunea	Erdigunea	Erdigunea
S. Adrian	Irala	Irala

- Osorik

Ikusi dugun legez, hasieran pentsatu zen 400-go lagina guztiz gaindituta izan da.

Alde batetik, aldagai ezbardinak sortu direlako.

- Hiri zona.
- Ikastetxe motak.
- Euskera maila.

Gainera, ikastetxeen bidez egin behar genuen ikasleen

aukeraketa eta nahiko ezina gertatzen zen ikasgela edo ikasgela barruan ume batzu bakarrik aukeratzea. Beraz ikasgela eta ikasle guztiak hartzea erabaki da.

Honez gain, euskaldunak gitxi izanik eta Publiko eta Pribatuetan oraindik eta ikasturte honetan (1.984-85) B eta D eredurik finkatu barik egonda, ikastolen kopurua laginak edo ehunekoak zioen baino haundiagoa hartzea interesatu zaigu.

Azkenean, Bizkaia eta Bilbo ezbardintzea, berezitasun ezbardinak dituztelako eta Bilbok, hain handia izanik, bizkaiko "ordezkariak" ixilduko zituzketelako lagin "zuzena" hartu izan bagenu.

Beraz, hasieran pentsatzen genuen baino askoz ere jende eta ikastetxe gehiago hartu dira. Hona hemen laukitxo baten emana:

Ikastetxe bisitatuen kopurua

	Bilbo	Bizkaia	
Ikastola	4	8	12
Publikoa	4	13	17
Pribatua	4	7	11
	12	28	40

Gutxi gorabeherako ikasle kopurua: 1.800.

Baina, ikusiko dugunez gauzak ez dira guk pentsatu dugun moduan gertatu.

2.2.- Lortu dena

2.2.1.- Erantzun dutenak

Ikusi dugu jadanik zein izan den azkenean erabili den ikasle eta ikastetxe kopurua.

Ondoko laukian, erantzun dutenak agertzen dira. Erantzun zenbakiaren arrazoi batzu gero ikusiko dugu.

Erantzun duten ikastetxe kopurua:

	Bilbo	Bizkaia	Osorik
Ikastola	4	3	7
Publikoa	3	11	14
Pribatua	2	3	5
	9	17	26

Arrazoiak, nagusiki hiru motatakoak izan dira.

- Zentsua

Datuak ez dira guztietan zuzenak izan. Eusko Jaurlaritzak duen zerrendan, "O.H.O.-ko ikastetxeak (84.X.29)" ipintzen zuen, baina zerrenda horretako ikastetxe batzu (eta batez ere

ikastolak) eskolaurreak dira ; beste kasu baten kurtsoz-kurtso osatzen dute O.H.O.-ko zikloa eta 85-86an 8garren ipintzeko asmoa izan dute.

Talde honetan, ondoko ikastetxeak sartzen dira:

Ikastolak: Arrigorriaga
Bilbo
Güñes
Markina-Bolibar
Markina-Xemein
Miravalles
Santurtzi
Balmaseda
Igorre

eta azkenengo kasuan:

Zaratamo

Pribatuak: Bermeo
Elorrio

- **Ikastetxea**

Batzutan hasieratik ezetz esan dituge: beste batzutan barriz joan, lana aurkitu eta baietz esan ondoren, datuak batzeko orduan ezetz esan dute.

- Irakasle

Ikastetxeak baietz esan arren, batzutan irakasleak ez dira ados egon eta ez dira lanataz arturatu. Ondorioz ikasleek ez dute erantzun.

Kasu guzti honetan ordezkoak bilatzen saiatu gara eta batzutan lortu bada ere, beste batzutan ez da posible gertatu.

2.2.2.- Balio dutenak

Aurreko guztia esanda eta lanak eskuratu ditugunean, hauen sailkapena egin behar izan da, ume bakoitzaren hiru lanak batu egin behar izan dira eta gero lanok aztertu.

Hauxe egitean beste arazo batzu sortu dira eta arazo hauek lan baliotsuen kopurua murriztu egin dute.

- Lanak batu ezina

Umeak ezin identifikatu edo lanen bat osotu barik egotea: hauek izan dira kasu gehienak.

- Umeen asmakizuna

Batzutan idazlanak izan dira. Oso gai interesgarria

azterketa berezi bat egiteko, baina gure kasuan aztergaitza: beraz, horrelako kasuak gorde egin dira, baina ez dira kontutan hartu.

- Gure erruak

Zenbaki bat birritan ipini edo bat ez ipini, ume ezbardinetako lanak batu eta horrelakoren bat ere gertatu zaigu. Gero, ordenagailuan sartzerakoan, konturatu gara honetaz.

Honela bada, erantzun duten denak ez dira baliotsuak izan.

Azkenean, ordenagailuan sartuta eta erabili dugun ikastetxe eta ikasle kopurua hauxe izan da.

Ikastetxeak

	Bilbo	Bizkaia	Osorik
Ikastola	2	2	4
Publikoa	2	7	9
Pribatua	2	3	5
	6	12	18

Ehunekoetan

	Bilbo	Bizkaia	Osorik
Ikastola	11,1	11,1	22,2
Publikoa	11,1	38,9	50,-
Pribatua	11,1	16,7	27,8
	33,3	66,7	100.-

Ikasleak

	Bilbo	Bizkaia	
Ikastola	40	28	68
Publikoa	90	129	219
Pribatua	148	103	251
	278	260	538


Ehunekoetan

	Bilbo	Bizkaia	
Ikastola	7,4	5,2	12,6
Publikoa	16,7	24,-	40,7
Pribatua	27,5	19,1	46,6
	51,7	48,3	100,-

Ikastetxe hauek honela banatzen dira:

	Bilbo	Bizkaia
	Deustu	Zornotza
Ikastolak	S. Adrian	Algorta
	Irala	Markina
	S. Inazio	Galdakao
		Miravalles
Publikoak		Mundaka
		Mallabia
		Zeanuri
		Gordexola
	Deustu	Zornotza
Pribatuak	Irala	Markina
		Gueñes

Hurrengo orrialdean, hauxe adierazteko mapa aurkezten dugu.


ERANTZUN BALIOTSUAK
MUNDAKA
ALGORTA
BILBO
MARKINA
GALDAKO
GUEÑES
ZORNOTZA
MALLABIA
GORDEXOLA
MIRAVALLES
ZEANURI
1:400.000

2.3.- Orokorrean

Zer izan da bada, azkenean lortu duguna? Hasieran hiru aldagai nagusiak aipatu ditugu orain aldagai hoien arabera ere egingo dugu azalpena.

2.3.1.- Hiri zona

Hiria Tartekoa eta Landa ezberdindu egin ditugu eta hementxe lortu ditugun datuak hauexek izan dira:

	Laginan	%	Bizkaian	%
Hiria	387	71,9	924.511	77,7
Tarteko	94	17,5	167.788	14,1
Landa	57	10,6	96.979	8,1
	538	100,-	1.189.278	100,-

2.3.2.- Ikastetxe mota

	Laginan	%	Bizkaian	%
Hiria	4	22,2	46	12,2
Publikoa	9	50,-	199	53,-
Pribatua	5	27,8	131	34,8
	18	100,-	376	100,-

2.3.3.- **Euskera maila**

	Laginan	%	Bizkaian	%
0.20	390	72,5	968.165	81,4
40.60	63	11,7	113.103	9,5
60.80	85	15,8	107.910	9,1
	538	100,-	1.189.278	100,-

Esan behar dugu beraz, azkenean lortu dugun eta erabili dugun laginak alde euskaldunak eta ikastolak azpimarratu eta indartu egiten baditu ere, orokorrean Bizkaian ematen diren berezitasunak nahiko ondo gordetzen dituela.

Azpitaldeei buruz, ezin badugu, agertzen denaren ordezkapena ziurtatu, joerak eta bideak zabaltzeko aukerak bai eskeintzen ditugu, eta lan honen helburua ez da arazorik konpontzea, arlo baten sartzea eta ezagutzen hastea baino. Zentzu honetan, laginaren balioa onartu dugu.

Aipatzeko ere, zabaldu direnak eta lortu direnen arteko ezbardintasuna. Azkenean erabili duguna zabaldu dugunaren %30-a baino ez da eta.

3.- ZABALKETA ETA BATUKETA

Lanak zeintzuk izango diran eta non egingo ditugun erabakita, zabaltzea baino ez dugu falta, beraz horretan hasi

gara.

3.1.- Burua aurkeztu

Ezina da eskoletara beste barik joan eta lana zabaldu gurean gure helburua azaldu. Beraz joan aurretik, laginan suertatu diren ikastetxe guztietara eskutitz bat bialdu dugu. Eskutitz honetan, lanaren helburu orokorra, idazlanak eta geure izena eman ditugu, ikastetxeek geure berri izan dezaten.

Honela, lehenengo ezetzak heldu zaizkigu: ikastetxe batzuk, lanpetuta eta honelako lanetaz azpertuta daudela esan digutelako, telefonoz.

Baina beste kasu askotan ez da hori gertatu eta geure jakingurea bete nahian, haiengana abiatu gara.

3.2.- Lanak banatu

Ikastetxez ikastetxe joan gara eta gure burua aurkeztean, eskutitza gogoratu dugu eta honela, kasu gehienetan, errezago gertatu zaigu.

Eskoletan, hizkuntza-irakaslearekin eta zuzendariarekin egin dugu berba eta, normalean, guk fitxa zabaldu eta batu egin dugu eta haiek idazlanetaz arduratu dira.

Erabakitako kriterioak azaltzeaz gain, orrialde bat ere eskeini diegu kriteioak azalduz.

Hau dela-ta ere ezetzak jaso ditugu: batzuk ez dute ondo hartu eskutitza aurretik idaztea, gauzak bortxatea eta bakoitzaren independentzia ez errespetatea dela pentsatu dutelako.

3.3.- Lanak batu

Ikastetxeetara joan eta fitxak batu egin ditugu kasu gehienetan. Baina idazlanetaz esan dugunez, haiek arduratu dira: beraz, zabaldu eta hamabost edo hogei egun beranduago, jasotzen joan gara.

Hau izan da benetan, momenturik txarrena, hementxe istilu asko sortu delako.

Ezetza gehienak hementxe eman dira: idazlanak egin barik, edo txarto eginda, agertu dira. Beste kasu batzuetan, eskolak azkenean ez egitea erabaki duela: gurasoak asarratu egin direla honelako gauzak ezin direlako galdetu... eta horrelakoak gertatu dira. Zuzendari eta irakasle edo irakasleen arteko ezbardintasunak ere agertu dira.

Dana dala, batu duguna batu eta etxera joan, lortutakoak ordenatzeko eta zenbatzeko.

3.4.- Lanak zenbatu

Esan dugu jadanik, ume bakoitzak hiru lan bete behar izan dituela, fitxa bat eta idazlan bi: beraz, hirurak batera ipini behar izan dira.

Oztopoak gaindituala, barriak sortzen dira. Puntu honetan aurkitu ditugun kasu normalenak hauexek izan dira:

- Lanen bat falta. Sailkatu egin ditugu, alde batetik dana erantzun dutenak, bestetik hizkuntzari buruz bakarrik erantzun dutenak eta bestetik, herriari buruz erantzun dutenak. Lan bat bakarrik eginda zutenak baztertu egin ditugu.

Azkenean, nahiz eta hizkuntzari buruz egindakoak bakarrik landu, hirurak osotuta zutenak hartu ditugu kontutan, arrazoi bategatik: hauek, lana jarraitzeko eta hiru lanen datuak harremanetan jartzeko aukera ematen digutelako.

- Izena falta.- Ez badakigu norenak diren lanak ezin ditugu batu. Eta askotan ez da kasu baten bakarrik gertatu, askotan baizik.

- Asmakizunak.- Ez da askorik emon, baina batzutan umeek ipuinak asmatu egin dituzte gaiari buruz idazteko. Oso interesgarria izan arren eta ipuinak politak ere askotan, guk ezin izan dugu horrelako idazlanak besteekin batera aztertu.

Beraz aparte itxi ditugu.

Honela, azkenean eta esan dugunez, 538 ume gelditu da lanak osorik dituela.

3.5.- Jasotako inpresinuak

Nolabait antolatzeko puntu batzuk aukeratu eta inguruan saituko gara.

Fitxa - Jarrera guztiz ezbadinak izan dira. Batzutan, hizkuntzak eta jatorriak istiluak sortu dituzte. Jendea baztertuta sentitu da edo baztertuta sentitzen den pertsonaren erantzuna izan du:

> "¿es que por no saber vasco somos menos que otros?" "Preguntar de dónde son los padres me parece nocivo" "¿A qué vienen estas preguntas?; esto me parece manipular a los niños".

Eta holako erantzunak entzun ditugu. Aipatu egin behar da, arazo hauek gaztelera giroetan sortu direla. Baina, esan beharra dago, dana ez dela horrela izan eta eskola publiko batzutan halako gauzak komentatu dizkugunean lasaitu eta lana aurrera ataratzeko animatu egin gaituztela.

Dana dala, gure ustez hemen puntu garrantzitsua agertzen da eta ikertu egin beharko genuke hobeto zein den gure ¿"gizartean"? ¿"herrian"? (¿nola aipatu?) dagoen elkarbizitzaren zelakotasuna.

Guk ez derizkiogu oso ona denik eta ez gara oso baikor

agertzen: holako gaietan horrenbesteko minak azaltzen direnean, azpian arazo larriak daudela uste bait dugu.

Irakaslea/Ikastetxea.- Irakaslea, zuzendaria eta haien harremanak, guztiz garrantzitsutzat jo ditugu, maila ezbardinetan. Umeengan, klasean sortzen den giroan, egoeran eta lanak onartzeko moduan.

Erantzunetan **garbi nabarmentzen da dioguna** eta ez bakarrik edukiari dagokionean, itxurari dagokionean ere bai, hau da, idazkeran, luzeeran, garbitasunean.

Orokorrean esan behar dugu, ikastetxe pribatuek (bai ikastolak bai bestelakoak) erantzun hobeagoa izan dutela, interes handiagoa. Baita, ezetzak ere, normalean holako ikastetxeengandik jaso ditugula. Ikastetxe pribatuetan askotan (ez danetan, jakina) dagoen mesfidantza itzelezkoa dala igerri dugu.

Ikastetxe publikoetan ere danetarik izan dugu: Holakoetan, irakasleak eta behar bada klaseetan ere, jendea libreago sentitzen da eta giroa lasaiagoa da, baina askotan, lasaitasun hori interes falta gertatu da.

Kasu bereziak ere izan dira. Ikastetxe publiko baten zuzendariak, euskeraz bazekiela baina gazteleraz egiteko eskatu zigun. Ikastetxe berean ume bat gazteleraz egitera behartuta izan zen eta klase bateko irakasleak barre egin zuen ETB-taz. Hau herri euskaldun baten (%80-100 euskaldunak).

Ikastola baten, idazlanetan umeak gaztelerearen alde agertu ziren; batzar bat sortu zen gurasoekin irakaslegoaren artean eztabaidak... eta idazlan hoiek ez zizkiguten eman ("zentsura" barriak).

Datu hauek kontutan hartzekoak direla uste dugu. Errealitatea ezin da ukatu eta gure ustez, hori da gaur egun kasu askotan egiten ari garena. Zein neurritan ideiak eta errealitatea bananduta daude? Argi dago, gustatzen ez zaiguna izkutatzen badugu ez dugula, alde batetik ingurua ezagutuko eta, bestetik, ezin izango diogula arazoari heldu.

Eredua.- Arazo hau konpontzen ari da, apurka apurka. Baina, dana dala, gu geuk aurkitu duguna ari gara azaltzen. Hona bada guk jasoa.

Datuok 1.985 garren urtean batu dira. Urte honetan O.H.O.-ko 8garren mailan, ikastetxe publikoetan A eredua bakarrik ematen zen (orain 6 garren mailan egongo dira B eta D ereduak).

Ikastolak, gitxi dira Bizkaian eta daudenak hirietan (Lauro eta Lauaxeta ikastolek, Bilboko eta Zornotza-Durangoko umeak hartzen dituzte gehien bat); baina, euskera, komunikabidetzat landa aldetan emoten da eta alde hauetan ikastetxe publikorik baino ez dago.

Hauxe gogortzat jo dugu. Ikastola barriak zabaltzea zaila

dela, konforme; baina inguru euskaldun baten, bizitza, harremana... euskeraz emoten diren lekuetako eskoletan, irakasle euskaldunak direnean eta euren artean euskeraz egiten duten umeek, gazteleraz ikasi beharra ez dugu egokitzat jotzen. Zentzu honetan, eskola publiko bateko irakasleak esan zuten, eredua "A" zela, baina danak euskaldunak zirenez, euskeraz ematen zutela dana.

Honaino bada, ikastetxez ikastetxe izandako abenturan jasotako hainbat zera. Orokorrean, errealitateak sorpresa bat eman digula esan behar dugu. Pentsatzen genuen baino urrunago eta arazodunago gertatu zaigu. Nahiko jarrera ezkorra sortu zaigu, arazoak konponezinak batzutan eta konpontzeko gogorik ez beste batzutan, ikusi ditugulako.

Bestaldetik ere, subjeto/objetuaren arteko etena, aztertzaile/errealitatearena kasu honetan, gogorra izan da guretzat.

Baina hortan luzatzeko tarterik ez dugunez, goazen orain urrengo puntuak ikustera.

4.- APLIKAPENA

4.1.- Kategorien eraketa

Egin dugun lehenengo gauza, idazlan batzuk irakurtzea izan da. Honela hasi gara agerten diren gaiak ezagutzen.

Idazlanen artean, talde bat aukeratu dugu: ikastetxe motak eta Bilbo,Bizkaia banaketa kontuta izanik, hau da, Bilboko, ikastola, pribatu eta publiko bana hartu eta Bizkaiko beste horrenbeste. Lanak, irakurri eta agertzen ziren esaldiak idatzi egin ditugu. Hauxe eginda, ideia bardina azaltzen zuten esaldiak batu eta ideiak, hitz edo esaldi labur baten bidez, aparte idatzi ditugu.

Ideiok barriz taldekatuz, gai orokorrak sortzen dira, honela eskema bat osotu dugu:

Gaia-ideiak-esaldiak.

Eskema honen bidez, agertzen diren gaiak eta hauei lotutako ideiak ezagutu ditugu. Hemendik ere ideiei lotuta dijoazen berezitasun ezbardinak atara ditugu. Honela gauza batez konturatu gara: umeak ez dira bakarrik balorapen ardatzetan kokatzen, hau da, "ona-txarra" "Indartsua=ahula" "handia-txikia"... implikapen ardatz bat ere agerten da, hau da, umeak kanpotik ala barrutik egiten du berba.

Beraz, hau ere kontutan hartzea erabaki da. Ardatz hau, dana dala, nahiko zaila da neurtzeko, batez ere, esaldi edo gai guztietan ez delako agertzen eta implikapen edo sarpen hau ere mailakatuta dagoelako.

Azkenean eta oso zehatza ez dela ere jakinik, honela erabaki

da:

Aipamena: Ez da ez izenorde pertsonalik ez izanlagunik agertzen, baina gaia aipatu egiten da. (3 garren pertsonan normalean).

Balorapena: Izenlagunak edo lehenengo pertsonaren izenorderen bat agertzen denean.

Sarpena: Lehenengo pertsona eta izenlagun superlativo eta enfatikoak agertzen direnean.

Ikusten da, mugetan gauzak ez direla oso argi agertuko baina, mugak beti dira eztabaidagarriak eta guk "gehien bat"-ekoz erabili dugu.

Bestetik, argi dago ere mailakatuta daudela. Hau da: sorpenak balorapena suposatzen du eta honek aipamena.

Esan beharra dago "mugagabetasuna" sarri azaldu dela eta kasu ezbardinetan:

- **Hitzak direnean** Ideia batzuk ez dira oso argi agertu, baikor ala ezkor.

  Honek esan nahi du, lehen aipatu ditugun balorapen ardatz horiek ez direla beti balio berdinekoak izan, guk horrela ikusi dugu behintzat.

- Honekin esan nahi dugu, balorapen ardatz horiek ezin

direla bardindu edo, hobe esanda ardatz horien hertzak ez direla ekibalenteak. Esate baterako, "indarra-ahula" hartzen badugu, badirudi "indarra" baikor izango dela baina ez da honela gertatzen: "indarra" baikor agertzen da, batzutan "aberatsa" edo "zabala" edo antzeko ideiekin batera doanean; baina "zapalkuntza" edo "borroka" ideiekin, gogorkeria moduan agertuko da. Honekin ez dugu oposaketen eztabaidan sartu gura, baina guk argi ikusi dugu, hitz batzuk argi eta garbi agerten badira, beste batzuk ezin ditugula berez ontzat hartu, kontextuan ikusi behar direlako.

Horrelako kasuetan beraz kontextuaren arabera ebatzi da.

- **Esaldiak direnean,** behar bada gogorragoa egiten da. Honelako kasuetan normalean itzelezko kontraesanak agertu dira, batzutan idazlan osoa zati bitan, biak kontrakoak, banatuta agertu da.

Guk ez dugu textu azterketa linguistiko bat egin nahi izan. Beraz, eta geure impresinua bakarrik ez jasoarren, honelako kasuetan ez dugu ezer epaitu eta "aipamenik ez" moduan hartu ditugu.

Orokorrean, nahiko argi agertzen ez ziren kasuak horrela tratatu dira, "erantzunik ez" modukoak.

Gauza guzti hauek kontutan izanik, idazlan hauetatik, ideia eta gai ezbardinak atara ditugu eta beraien berezitasunak eta

balorapenak.

Ideia hauek, ordenagailuan datuak aztertu behar zirela jakinez, landu egin dira eta neurtzeko moduan ipini, ordenagailuko programan datuak sartzeko eta atarateko modua izateko.

4.2.- Kategorien azalpena eta balorapena

Puntu honetan zera ikusiko dugu: Zeintzuk diren eratu diren kategoriak eta zelan kodetu eta neurtu diren "datu bilbea" programa baten bidez aztertu ahal izateko.

Hasierako ideia bilketatik, azkenengo erabakietara, aldaketa eta zuzenketa, ugari izan dira. Beti ere gero agertzen zenari gehiago hurbildu nahian. Baina azkenean, hatzamar tartetik dijoakiguna ezin dugula batu onartu egin dugu eta erabakiak hartu, ze, Brecht-ek dion legez "zertarako balio dio zalantzak erabakirik hartu ezin dezakenari?"

Gure hontan, azkenean erabaki dena baino ez dugu ikusiko.

Puntuz puntu eta, errezago joateko, zati bitan aurkeztuko ditugu. Baten datu "objetiboak" batu dituen fitxaren puntuen mugaketa eta neurketa eta bestean "Gure hizkuntza" idazlanari dagokiona. Herriari buruz ez dugu lan honetan azterketarik egiten eta ez dugu beraz komentariorik egingo.

Azkenean interesgarriak zeintzuk gertatu zaizkigun ere esango dugu, jakina.

Lehen ez dugu aipatu baina, idazlanetatik irten diren ideiak bakarrik ez ditugu sartu, guk susmatzen genituen beste batzuk ere sartu ditugu nahiz eta hauek kasu gehienetan garrantzi gabekoak agertu. Honek zera adierazten digu: hamalau urtetako gazteengandik oso urrun gaudela, guk ikusten eta garrantzitsua jotzen duguna, haiek ez bai dute horrela ikusten.

4.2.1.- Fitxari buruz

Hementxe, umeari buruzko datu "objetiboak" edo datu azterketan "sozio-demografikoak" deitu ditugunak batu dira.

Honela umearen inguruan gertatzen dena ezagutu gura da, berak adierazten duenarekin batu ahal izateko.

Hasiko gara, bada, banan-banan ikusten. Aurrean agertzen den "X-." ordenagailu programaren kategoria ordena dela.

X1.- **Kode Anitza.** Bertan ondoan aipatzen diren puntuak sartzen dira.

- Zenbakia

Honek lanen ordena eta aurkibide bat baino ez digu

eskeintzen. Umeak 538 izanik hiru zenbakiko kodea gorde egin da honetarako.

- **Herria**

Hemen ikastetxeari buruzko datuak hasten dira, lehen esan dugun legez, ikastetxea eta umea bera kontutan hartu dira eta hauxe, fitxaren egituran agertu egiten da.

Herria hemen beraz, ikastetxearena da. Guztira hamabi herri dira eta bi zenbakiko kodea erabili dugu, honela:

Bilbo	00
Bermeo	01
Zornotza	02
Algorta	03
Markina	04
Galdakao	05
Miravalles	06
Gueñes	07
Mundaka	09
Mallabia	10
Zeanuri	12
Gordexola	13

Ez dauden zenbakiak, azkenean gertatu ziren, hau da, balio zuten erantzunak neurtzean, herri hauek ez zuten bat ere ez izan.

- **Maila**

Hementxe hiri zonen mailaketa adierazten dugu, beraz kodea erreza da, zenbaki bakarra eta hiru balio.

1.- Hiria.

2.- Tartekoa.

3.- Landa.

- **Hizkuntza**

Hizkuntza maila neurtzen da hemen, esan dugunez ikastetxea dagoen herriko hizkuntza maila.

Honetarako aipatutako **Atlas Lingüistico Vasco** liburuan agertzen diren ehunekoak onartu ditugu.

Mailaketa ere, zenbaki batekoa eta bost baliokoa da.

1.- %0-20 euskaldun.

2.- %20-40 euskaldun.

3.- %40-60 euskaldun.

4.- %60-80 euskaldun.

5.- %80-100 euskaldun.

- **Tipoa**

Honen bidez herriaren berezitasun bat neurtu gura izan dugu: "hartzaile" eta"emole" deitutako ideia; hau da, "hartzaile" dira, kanpoko langileak eta beste herri batzuentzako serbitzuak eskeintzen dituenak, "emole" barriz, kanpora doazenak, lanean edo erosketak egiten edo medikuarengana...

Baina hauxe zaila, hobe, ezina gertatu zaigu. Oraindik azterketak egin barik edo amaitu barik daudelako eta banaketa ez delako hain errez gertatzen. Batzuk ez dira ez gauza bat ez bestea, eta, gainera, produkzio eta zerbitzu ezbardinetan gauzak ezbardinak izan daitezke.

Beraz, nahiz eta balio biko kode bat izan, ez dugu hauxe kontutan hartu eta kasu guztietan o agertzen da.

Hontan amaitzen da X1. Programak ez du 200 kategoria baino onartzen eta lehenengo biak kode anitzak egin behar izan ditugu; X1-k beraz ikastetxearen herriari buruzko datuak eskeintzen dizkigu.

X.2.- **Ikastetxea** (kode anitza)

- **Zein**

Ikastetxea zein den jakiteko zenbaki bateko kodea eman dugu. Bizkaiko herrietan ikastetxe mota bakoitza bakarra denez mota

argitzen ez dago problemarik. Beraz Bilboko ikastetxeentzat bakarrik eman dugu kodea. Beraz:

Bizkaia 0

Bilbo: . Ikastolak

Deustu 1

S. Adrian 4

. Publikoak

S. Inazio 6

S. Adrian 5

. Pribatuak

Deustu 8

Irala 9

- Mota

Zelako ikastetxea den jakiteko, gauzak ere, errezak dira hemen.

1.- Ikastola.

2.- Pribatua.

3.- Publikoa.

- Eredua

Hementxe ikastetxearena baino, 8 garren mailako umeen eredua jakin gura genuen. Esan dugun legez, hauxe erreza bihurtu zen,

Publiko eta Pribatuetan "A" baino ez zegoelako.

Dana dala, eta "A" izan arren, euskeraz dena ematen zutela esan zigutenen eskola "D" ereduan sartu egin dugu.

Kodea honela zen:

1.- A (Gazteleraz).

2.- B (Elebiduna).

3.- D (Euskeraz).

- Jarrera

Ikastetxearen jarrera zein izan zen besterik ez genuen jasotzen lanaren eta arazoaren aurrean, orokorrean. Zenbaki bateko kode bi eman genuen.

1.- Baikorra.

2.- Ezkorra.

Honela X2 amaitzen da, ikastetxeari buruzko datuak eskainiz eta hau ere anitza izanik.

X3.- Bizilekua

Hementxe umeari buruzko datuak agertzen dira eta kode sinpleak dira, hau da, bakoitzak berezitasun bakarra adierazten du.

Puntu honetan ingurua ezagutu gura genuen edo herritiko urruntasuna. Zenbaki bateko kodea eta hiru balio eman diogu.

1.- Herrian bizi.

2.- Hauzo baten.

3.- Baserri baten.

Bakoitzak, besteak kanporatu egiten ditu. Hau da, "baserrian" ez da hauzoa, hauzo bateko baserri baten bizitzeak "2" balioa suposatzen duelako. Auzoa esaten dugunean, etxe talde bat esan nahi dugu eta ez lurraldea jakina.

Dana dala, hau ez da interesgarria agertu. Ume gehienak herria aipatzen dutelako. Beraz ez dugu kontutan hartu, azterketa egitean.

X.4.- **Maila**

Hiri zona neurtzea ere gura izan dugu: beraz, lehengo moduan:

1.- Hiria.

2.- Tartekoa.

3.- Landa.

X.5.- **Hizkuntza**

Umearen bizilekuko hizkuntza maila jakiteko. Batzutan hau ez

da posible gertatu, auzotegien daturik ez dagoelako. Kodea ere, digito batekoa eta honela izan da:

0.- Ez dakigu.

1.- % 0-20 euskaldun.

2.- %20-40 euskaldun.

3.- %40-60 euskaldun.

4.- %60-80 euskaldun.

5.- %60-100 euskaldun.

X.6.- Tipoa

Berriro ere lehen komentatu duguna gertatu da, eta horrexegatik erabaki bardina hartu dugu: kontutan ez hartzea eta $\bar{o}$ ipintzea.

X.7.- Amaren jaioterria

X.8.- Aitaren jaioterria

Hontan istiluak sortu dira, sailkapen aldetik. Hasieran "bertokoa" eta "kanpotarra" pentsatu genuen, baina "bertokoa" ere, zelan mugatu?

Geografia, alde batetik, eta euskera maila, bestetik, hartu ditugu kontutan.

Euskera maila, hizkuntzari buruzko azterketa izanik, ez dugu

txartzat hartu.

Azkenean erabakia honela izan da:

1.- Bertoko lurralde euskaldunetakoa.

2.- Bertoko lurralde ez euskaldunetakoa.

3.- Kanpotarra.

Bertokoa, Euskalerrikoa da, ipar eta hego aldekoa, Nafarroa ere barruan dagoela. Lurralde euskaldunak, Bizkaian % 60 baino euskaldun gehiago dutenak eta Gipuzkoa, Ipar Euskadi eta hego Nafarroako ipar aldea. Beheko aldea, Araba eta Bizkaiko beste guztiak ez euskalduntzat jo ditugu.

X.9.- **Ama hizkuntza**

X.10.- **Aita hizkuntza**

Honen bidez euskeraz egiten dutenentz eta ikasten dagoenentz galdetzen da.

Gaztelerari buruz ez dugu horrelako galderarik egin, baina argi dago, gaur egun, geure artean gaztelera suposatu egiten dela, denok dakigulako: euskerarena da argi ez dagoena.

Erantzunak honela sailkatu dira:

1.- Badaki eta ez du ikasi/ten.

2.- Ez daki eta ez du ikasi/ten.

3.- Ikasi/ten du eta badaki.

4.- Ikasi/ten du eta ez daki.

Hementxe beraz, 1, euskaldun alfabetatugabeak izango lirateke, 3 alfabetatuak eta 4 ikasten ari direnak. Ez dugu hemen zaharra/barria banaketa kontutan hartu, "badaki ikasi duelako" agertuz gero "3"-an sartuko genuke esate baterako. Azkenez 2, erdaldun hutsak dira.

X.11.- **Ama lana**

X.12.- **Aita lana**

Gai honetan beti gertatzen dira arazoak. Alde batetik mailak finkatzea zaila delako, kriterio bakarrik ez dagoelako, eta, bestetik, erantzunak ere ez direlako beti oso fidagarriak.

Guk oinarri bat hartu, hain zuzen **"Euskeraren Borroka"** lanean erabili dena, eta honako sailkapen hau eratu dugu.

0.- Etxeko lanak/jubilatuak.

1.- Ez du lanik egiten.

3.- Nekazari/arrantzalea (langileak).

4.- Kualifikatu gabeak: Industria serbitzuak.

5.- Kualifikatuak.

6.- Administraritza.

7.- Goiko arduradunak.

8.- Jabedunak eta Burujabedunak.

9.- Militarrak.

Dana dala, gauzak ez dira oso errezak izan. Eta arrazoi

nagusia erantzunen mugagabetasuna izan da: "bulego baten" "Fabrika baten" eta horrelako gauzak esaten dira askotan, eta, beste batzutan, lana barik ikasketak aipatzen dira. Azkenean horrelako kasuetan hurbilketa bat egin dugu eta ahalik eta ondoen ipintzen saiatu gara. Ez gaude dana dala lortu dugunentz oso zihur.

Amaitzeko, amaren lana ez dugula kontutan izan aipatuko dugu. Eta arrazoia erreza da: gehien batek "Etxeko lanak" aipatzen dutelako eta orduan ez dago ama guztien artean bereizketa egiterik. Honetaz ere datuak aztertzean komentarioren bat egingo dugu.

X.13.- Egunkaria

Hasierako zerrenda luzatu egin behar izan dugu. Batzutan egunkari bat baino gehiago agertu delako.

Egunkariari buruz bakarrik egin da galdera eta ez maiztasunari buruz. Ezin dugu, beraz, zein den gehien irakurtzen dutena jakin bat baino gehiago agertzen direnean. Batera ala egun batzutan bat eta bestetan bestea irakurtzen dutenentz ere ez dugu argibiderik.

Baina, banaketa honela egin da:

0.- Ez du irakurtzen.

1.- Deia.

2.- Egin.

3.- Correo.

4.- Gaceta.

5.- Pais.

6.- Bi edo gehiago eta baten bat euskalduna.

7.- Bi edo gehiago eta bat ere ez euskalduna.

"Euskaldunak", Egin eta Deia jo dira.

X.14.- **Sexua**

Argi dago hemen zalantza handirik ez dagoela:

1.- **Neska.**

2.- **Mutila.**

X.15.- **Adina**

Denak 8 garren mailakoak izanik, ez dago ere arazo handirik, baina, batzutan, ezbardintasunak ematen dira ere eta honela banatu dugu:

1.- 13 urte.

2.- 14 urte.

3.- 15 urte edo gehiago.

Banaketa, datuetan oinarrituta dago eta kasu nahiko "3" garren mailan agertzen da.

X.16.- **Jatorria**

Gurasoekin egin dugun gauza bera egin dugu hemen ere:

1.- Bertoko lurralde euskaldunetakoa.
2.- Bertoko lurrlade ez euskaldunetakoa.
3.- Kanpotarra.

Baina hementxe puntutxu bat azpimarratu behar dugu.

Ume askok "Barakaldo" edo "Bilbo" (Sala Cuna) aipatzen du, baina herri txikitxu eta euskaldunetan bizi da. Kasu honetan bizilekua hartzen dugu kontutan, batez ere gurasoak lekukoak direnean. Zalantzarik agertzen bada Barakaldo eta Bilbo gorde egiten dira.

Hauxe egin da, batez ere, ezbardintasuna ezagutzeko. Gaur egun, denok, leku bardinetara goaz "jaiotzeko" baina ez da hori guk neurtu gura izan duguna, hasieratik umearen inguru hurbila zein izan den baino.

X.17.- **Euskera**

Umearen egoera ezagutu gura izan dugu eta honela sailkatu

ditugu umeak:

1.- Kalean edo etxean ikasi duena, nahiz eta gero euskaldun alfabetatua izan.
2.- Eskolan ikasi duena.
3.- Ez daki baina ikasten dabil.
4.- Ez daki eta ez du ikasten.

Puntu honetan sailkapena batzutan arazogarria gertatu da. Ume batzuk, euskera eskolan ikasi dutela esan eta etxean, lagunekin, gurasoekin euskeraz egiten dutela esaten dute.

Honek zera pentsarazi digu:

"Ikasi" hitzaz galdetzea ez dela oso egokia euskaldunentzat. "Ikasi" eskolan egiten da eta zentzu honetan etxekoa eta eskolakoa ezbardindu egiten da.

Kasu bat aipatuko dugu: eskola publiko bateko ikasgela berezi baten, danak ziren euskaldunak. Gela hortako ume batek, galdeketa zabaltzen nengoela zera esan zidan:

- " ¿ qué quiere decir, donde has aprendido?".
- "Bada, zuk badakizu euskeraz ezta?
- "sí".
- "Eta zelan ikasi dozu euskeraz egiten?"
- "Yo no he aprendido, a mi me han aprendido los padres".

Horrelako kasuak beraz gertatu dira eta holakoetan ikasten dugunok ikasi gura dugunarengandiko urruntasunaz konturatzen gara

behin eta berriz.

Kasu hauetan, umeek ikasi ekolan egin dutela esan arren, klasean edo eta etxean ikasi dutenen artean sailkatu dira.

X.18.- **Etxean**

Galdera honen hurrengo bien bidez, euskaldunen eta euskeraz erantzun dutenen artean, euskararen erabilera apur bat ezagutzen saiatu gara.

Erantzunak erraz sailkatu dira:

0.- Ez du egiten.

1.- Egiten du.

2.- erantzunik ez edo gazteleraz erantzuten dutenak.

Etxea, normalean gurasoen etxetzat hartu da. Beste lekuren baten erabiltzen dutenentz erantzuteko aukera ere egon da eta, horrela, "Amamaren etxean" edo lagun euskaldunen "etxeetan" eta antzekoak agertu dira.

Guk "Etxean" etxekoak sartu ditugu: familikoak, gurasoak eta aitita-amamak, iziko-izebak eta kidekoak sartu ditugu.

X.19.- **Eskolan**

Banaketa bardina.

Hontan ere zera gertatzen da: "Eskola" ideia mugagabea dela. Batzutan "klaseak", bestetan eskolako lagunak, irakasleak, eskola orduak eta espazioa hartu dira. Guzti hau, "Eskola" ideian sartuta dago beraz.

X.20.- **Kalean**

Banaketa bardina eta antzeko arazoak.

Kalea espazio fisikoa edo eta afektiboa ere bada. Kaleak, leku moduan, ez du arazorik sortzen; baina batzutan kalekoak ere agertzen dira, ezezagunak edo lagunak izan barik, euskaldunak direnak.

Zentzu honetan ume batek zera esan zuen "Euskaldun dena dakidanarekin egiten dut".

X.21.- **ETB**

ETB ikusten zuten ala ez jakin nahi genuen. Zati bitan banatu ditugu erantzunak: ikusi bai ala ez, eta zer ikusten duten. Honela neurtu dira.

0.- Ez du ikusten.

1.- Ikusten du.

2.- Ezin du ikusi (Antena edo posibilitaterik ez).

X.22.- **Zer**

Honek bigarren puntua neurtu gura zuen, honela:

1.- Euskeraz bakarrik ematen diren programak.

2.- Azpitituloak badaude.

3.- Euskeraz eta Gazteleraz.

4.- Gazteleraz.

Baina azkenean, ez dugu kontatu ETB-ri buruz agertu dena.

Alde batetik denek (edo gehienek) baietz erantzun dute. Gero ordea, ez da hain erreza gertatu egia denentz jakitea.

Umeek askotan ETB eta TVE-País Vasco nahastu egin dute.

Programak ez dituzte zehaztu: "Casi todo" "Dagoena" eta horrelakoak aipatu dituzte.

Zenbaitetan, lagunen artean erantzun dutela susmatu dugu. Klase batekoek, esate baterako,programa bardina eta idazterakoan akats bardina ipini dute... Horrelako erantzunak aintzakotzat ez hartzea erabaki dugu.

X.23.- **Erantzuna**

Honen bidez, euskeraz ala gazteleraz erantzun den jakin dugu. Sailkapena beraz, erreza izan da:

1.- Euskeraz.

2.- Gazteleraz.

Eta honenbestez amaitzen da datu sozio-demografikoen fitxaren azalpena. Bertan agertzen diren datu guztiak ez ditugu kontutan hartu, baina hortxe daude eta lantzeko posibilitateak ere, beraz, zabalik daude.

Orain, hizkuntzari buruzko idazlanak zelan landu diren azalduko dugu. Azkenean komentario orokorrak egingo ditugu.

4.2.2.- Idazlanari buruz

Datu sozio-demografikoekin egin duguna, idazlanetan agertu diren ideiekin egingo dugu.

Azalduko duguna umeen zenbait idazlanetatik atarata-eta nolabait "standarizatuta"- dago, beste guztiak eredu bardinaz aztertu ahal izateko.

Datu sozio-demografiko eta idazlanei buruz, azaltzen ditugun kode guztiak harturik "plantila" bat osotu da. Honen kopia bat, lanaren azkenean beste eraskinekin batera agertzen da.

Lehengo moduan, orain, ordenagailuko programan agertzen den kategoriaren zenbakia ere ideiaren aurrean ipiniko dugu.

X.24.- Erabili

Idazlana egiteko erabiltzen den hizkuntza neurtzen da honela banatuz:

1.- Euskeraz.

2.- Gazteleraz.

X.25.- **Aukera**

Gaia "Gure hizkuntza" izanik, umeek hizkuntza bat aukeratu dute normalean, beste batzutan hizkuntzari buruz orokorrean idatzi duten, baina ez dute bat aipatu. Izan diren erantzunak dana dala, honela sailkatu ditugu.

0.- Mugatu barik.

1.- Euskera.

2.- Gaztelera.

3.- Biak.

4.- Beste bat.

Guretzat garrantzitsuenak, hasieran behintzat 1.2. eta 3. erantzunak ziren, ez genuelako pentsatzen 4 garrenak aipamen handirik izango zuenik. Hauxe horrela gertatu da baina 3garrena ere balio gabekoa agertu da.

X.26.- **Aipatu euskera**

X.27.- **Aipatu gaztelera**

X.28.- **Aipatu beste**

Hiru puntu hauetan aipamenak agertzen dira, aukeratzen den hizkuntzatik aparte beste hizkuntza batzuk ere aipatu egiten dira eta batzutan, zer edo zer esaten da beraietaz. Aipatuenak gaztelera eta batez ere euskera izan dira. Gurasoen hizkuntzak ere aipatu dira.

Dana dala, zera esan behar da: hizkuntza bat sailkatu orduko, aukeratzen den hizkuntza ez da aipatzen, hau da, euskera aukeratzen dutenak ez dira "aipatu euskera" kategorian agertuko eta, bardin, gaztelera aukeratzen dutenak edo gurasoen hizkuntza aukeratzen dutenak.

Hauxe kontutan harturik honela neurtu da:

0.- Ez da aipatzen.

1.- Bai, aipatzen da.

X.29.- **Herria Aukera**

Askotan, hizkuntzari lotuta herriaren ideia agertzen da, hizkuntza osagarri identifikatzaile agertuz.

Hauxe da puntu honetan neurtzen saiatu garena. Kasu honetan, aukeratzen den hizkuntzarekin loturik doa herria.

0.- Ez da aipatzen.

1.- Euskalerria.

2.- Mugagabe edo beste herriren bat.

3.- Espaina.

4.- País Vasco.

X.30.- **Herria aipatu**

Hizkuntzaren bat aipatzen denean, batzutan aipatzen da zein den lotuta doakion herria.

Neurketa bardina izango da:

0.- Ez da aipatzen.

1.- Euskalerria.

2.- Mugagabe edo beste bat.

3.- Espaina.

4.- Pais Vasco.

X.31.- **Aukera balioa**

"Balioa" definitzea ez da oso errez gertatzen. Hiztegian begiratuz gero [6], dauden definizioen artean, hauxe aukeratuko genuke: "Erealitate batzuk estimagarriak egiten dituen kualitatea".

Hontan beraz aukeratzen den hizkuntza estimagarria denentz aztertzen dugu. Lan osoaren arabera erabaki da hau eta neurketa orokor bat eginaz beraz.

Hemen aipatu dugun inplikazio afektiboaren ardatza sartzen dugu eta honela banatzen edo sailkatzen ditugu erantzunak:

0.- Ez dago balorapenik.

1.- Aipamen baikorra.

2.- Sarpena.

3.- Aipamen ezkorra.

4.- Sarpena.

Esan liteke balorapena beti dagoela. Baina gogoratu gura dugu guk orokorrean hartzen dugula, eta mugak ipintzea zaila bada ere, argi agertzen direnen eta nolabaiteko "neutraltasuna" gorde dutenen arteko muga ipini gura izan dugula.

Bestetik, arraroa joko da, behar bada, aukeratzen den hizkuntza txarto baloratzea, baina kontrakotasunak agertzen dira askotan, bai esatean, bai egitean eta horrelako gauzak eskuratzeko posibilitatea ere euki gura izan dugu.

Azkenez, bigarrenak lehenengoa suposatzen duela esan behar eta, jakina, laugarrenak hirugarrena.

X.32.- **Aipatu balioa**

Goian azaldu dugun guztia eta eman dugun sailkapena ere, aipatzen den hizkuntzari buruz egokitu behar dugu.

X.33.- **Aukeraren Indarra**

Indarra, normaltasuna edo beste batzuen aurrean egiteko ahalmena bezala ulertzen dugu.

Puntu hau neurtzeko, honelako mailaketa egin dugu:

0.- Ez da aipatzen.

1.- Bai, indartsua da.

2.- Momentuan ez askorik baina egin behar dugu.

3.- Momentuan ez askorik baina batzuk badabiltza.

4.- Momentuan ez.

5.- Ez, inoiz ez.

Ikusten danez, elkarrekikoan maila ezbardinak agertzen zaizkigu hontan ere.

2. eta 3. mailak "berreskuratu" ideiarekin lotu ditzakegu eta batez ere euskerarekin lotuta joango lirateke.

X.34.- **Garrantzia**

Garrantzia ez da balioa. Guk balora dezakegu garrantzitsua ez den gauza bat. Balorapenak barruko erantzun bat neurtzen zuen gehiago. Garrantziak, kasu honetan, giza mailako balorapena suposatzen du. Zentzu honetan hartuta dago hemen eta honela egin dugu:

0.- Ez da aipatzen.

1.- Bai, garrantzitsua da.

2.- Sartuta.

3.- Ez, ez da garrantzitsua.

4.- Sartuta.

X.35.- **Zaharra**

Honen bidez garrantzia gaiari lotuta agertu diren ideia batzuk azaltzen ditugu.

Kasu batzutan garrantzia inolako arrazoirik gabe aipatu zen. Beste batzutan, ordea, garantzia aipaturik gabe, horrelako ideiak agertzen dira. Ez dago, beraz, lotura hestu bat bien artean.. Berezitasun hauek era errezago baten sailkatu ditugu:

0.- Ez da aipatzen.

1.- Zentzu baikorrean aipatzen da.

2.- Zentzu ezkorrean aipatzen da.

Zentzu baikorra, berezitasuna ontzat eman eta garrantzia indartu edo azpimarratzen denean. Ezkorra barriz, txartzat jotzen edo garrantziaren ideia ukatzen denean.

X.36.- **Idazleak**

Ideiotan, kriterio "objetiboak" eta "subjetiboak" agertu dira. objetiboen artean, zenbatu ahal delako, hauxe sartuko genuke: hizkuntza horrek idazle asko eta garrantzitsuak izan dituela aipatzen den ala ez.

X.37.- **Gurea**

Hau berriz, "subjetibo"tasunean sartuko genuke. Gaia **"gure hizkuntza"** izan da eta, honek inoxokeria badirudi ere,

batzuentzat "geurea" izatea garrantzitsua izateko arrazoi bat da.

X.38.- **Hiztunak**

Hau ere zenbagarria da: zenbatek egiten duen hizkuntza hori adierazten duen ideia baita. Asko ala gitxi izango dira hertzak

X.39.- **Zabala**

Goikoarekin lotuta, hiztunen zenbakiaren gain zabalera geografikoa agertzen da hontan.

X.40.- **Aberatsa**

Hiztegia neurtzen dute umeek: beraientzat hiztegi zabala eta aberastasuna bat dira. Dana dala, ez dago oso argi zein neurritan sartu ideia hau "objetibo" ala "subjetibo" taldeetan.

Ideia batzuk, indarrarekin lotuta ere agertu dira.

X.41.- **Esamesak**

Honekin hizkuntzari buruz izaten diren ideia "arraroak" edo zentzugabekoak azaldu gura izan ditugu.

Kasu guzti hauek, aukeratzen den hizkuntzari buruz dira.

Geroago ikusiko dugun legez, aipatzen den hizkuntzari buruz kategoria bardinak eratu dira, kasu bietan agertzen diren irudiak eta ideiak konparatu ahal izateko.

Denetan ere, neurtzeko modu bardina erabili da:

0.- Aipamenik ez.
1.- Aipamen baikorra.
2.- Aipamen ezkorra.

X.42.- **Funtzioa**

Honela, zertarako den hizkuntza hori azaltzen du.

Sailkapena honela egin da:

0.- Ez da aipatzen.
1.- Sentimenduak adierazteko.
2.- Edozein gauza komunikatzeko.
3.- Komunikatu barik identifikatzeko.
4.- Identitatea adierazteko ere.

Arraroena 3 garren maila da. Ez da oso logikoa komunikazio funtziorik ez duela agertuko denik pentsatzea, baina posibilitatea irekia zegoen eta guk adierazi baino ez dugu egin.

Gainontzean, 4garrenak 2garrena suposatzen du eta 2garrenak lehenengoa.

X.43.- Bat

Hizkuntza bat ala askoren ideia agertzen da honen bidez. Ideia hau gaztelerari buruz ez da askorik agertu. Batez ere euskerari buruz agertu da, euskalkiak eta batua ideiak azpian izanik.

Guk ez dugu, gai hau zehazki aztertu baina interesgarria litzatekela uste dugu.

Dana-dala, hauxe nolabait adierazteko honelako sailkapena egin dugu:

0.- Ez da aipatzen.
1.- Bai, bat da.
2.- Bai, bat da baina euskalkiak daude.
3.- Euskalkiak daude baina badugu "Batua".
4.- Ez, banatuta eta arautu barik dago.

Ikusten da beraz, 2 garrenak batasuna onartzen duela baina euskalkien izakera ere azpimarratzen duela 3garrenak berriz, ez du hain argi azaltzen batasunaren ideia baina lortzeko Batuaren garrantzia azpimarratzen du.

X.44.- Ofiziala

Aukeratzen zen hizkuntzaren ofizialtasuna aipatu egiten den

ala ez (edo ez ofizialtasuna jakina).

Sailkapena honela egin zen:

0.- Ez da aipatzen.

1.- Bai, ofiziala da.

2.- Ez, ez da ofiziala.

Ideia hau ere indarrarekin lotuta legoke.

X.45.- **Berbadunak**

Hontan, garrantzirik aipatu gabe, berbadunak aipatzen ziren ala ez, ikusi gura izan dugu.

Sailkapena honela egin da:

0.- Ez da aipatzen.

1.- Asko daude.

2.- Askorik ez dago baina lortu egin behar ditugu.

3.- Askorik ez baina batzuk saiatzen dira .

4.- Gitxi.

Ideia hau ez da garrantzitsua gertatu. Bera bakarrik ia inork ez du aipatu. Normalean hiztunei buruzko garrantzian edo indarraren kontestuetan eman da.

X.46.- **Aipatu indarra**

Hemendik aurrera X.33tik-X.45era esandako guztia errepikatzen hasi behako genuke, baina **aukeratzen** den hizkuntzari buruz izan beharrean, **aipatzen** denari buruz izanik. Beraz, kategorien izenburuak eta sailkapenak aipatu ditugu, baina ez ditugu azalpenak barriz errepikatuko, gauza barririk agertzen ez den bitartean behintzat (X.55.Funtzioaren kasua).

X.47.- **Garrantzia**

0.- Aipamenik ez.

1.- Bai garrantzitsua da.

2.- Sartuta.

3.- Ez, ez da garrantzitsua.

4.- Sartuta.

X.48.- **Zaharra**

X.49.- **Idazleak**

X.50.- **Gurea**

X.51.- **Hiztunak**

X.52.- **Zabala**

X.53.- **Aberatsa**

X.54.- **Esamesak**

0.- Aipamenik ez.

1.- Aipamen baikorra.

2.- Aipamen ezkorra.

Kasu guztietan.

X.55.- **Funtzioa**

0.- Aipamenik ez.

1.- Sentimenduak adierazteko.

2.- Komunikazioa sortzeko.

3.- Komunikatu barik identifikatzeko.

4.- Komunikazioa eta identifikazioa.

5.- Ez dauka funtziorik.

Azken puntu hau baten edo bitan bakarrik agertu da, baina interesgarria jotzen dugu, aipatzen den hizkuntzari buruz ari garelako eta aukeratzen den hizkuntzari buruz ez delako horrelakorik agertu. Oso gitxitan agertu da, baina galdetzekoa da, ea ausartu ez den beste zenbait ba ote dagoen irizpide berdinekoa ala anekdotikoa baino ez ote den.

X.56.- **Bat**

0.- Aipamenik ez.

1.- Bai.

2.- Bai baina euskalkiak daude.

3.- Euskalkiak daude baina Batua dugu.

4.- Ez, arautu barik dago.

X.57.- **Ofiziala**

0.- Aipamenik ez.

1.- Bai, ofiziala da.

2.- Ez, ez da ofiziala.

X.58.- **Berbadunak**

0.- Aipamenik ez.

1.- Bai asko dago.

2.- Askorik ez baina guk egin behar dugu.

3.- Askorik ez baina batzuk badabiltza.

4.- Ez, gitxi dago.

X.59.- **Aukera trasmizioa**

Gai honetan dimentsio tenporala sartzen da, trasmizio ideiak lehendik gerora doan hari bat suposatzen duelako.

Hari hau batzutan apurtuta eta beste batzutan apurtu barik ikusten da. Dena-dela, idea interesgarria jotzen dugu normalean

umeek bizi ez dituzten garaiak aipatzen dituztelako eta, beraz gizartezko erreferentziak, umeengandik kanpo baina lotuta agertzen diren erreferentziak, aipatzen direlako.

Baina honela sailkatu da:

0.- Ez da aipatzen.

1.- Apurtu barik antzinatik.

2.- Apurtuta baina berreskuratzeko gurean.

3.- Berreskuratzea ondo baloratuta.

4.- Berreskuratzea txarto baloratuta.

5.- Apurtuta guztiz, berreskuratzerik ez.

Hemen ere 2 eta 3 edo 2 eta 4 mailen artean lotura bat dago, 3garrenak eta 4garrenak joera inplikatuago bat suposatzen dutelako.

Gai honekin beste ideia edo arrazoiak agertu dira batzutan, eta guk ondoko hiru kategorietan banatu ditugu:

X.60.- **Franco**

Goian apurketa bat egon dela aipatu denean, askotan arazoi bat eskeintzen da, eta honelako arrazoi bat Franco izan da kasu batzutan. Neurtzeko honela egin dugu.

0.- Aipamenik ez.

1.- Bai, apurketaren alde izan denean.

2.- Ez, apurketaren kontra izan denean.

X.61.- **Aurrekoak**

Ez digutelako irakatsi edo, alderantziz, irakatsi digutelako, aurrekoak agertzen dira batzutan. Neurbidea bardina da:

0.- Aipamenik ez.

1.- Bai, apurketaren alde.

2.- Ez, apurketaren aurka.

X.62.- **Hizkuntza bera**

Errua hizkuntzarena da, "bigarren kategorikoa" edo antzekoa delako. Ideia hau guk sartu genuen eta egia esateko ez du inolako arrakastarik izan. Ez dute aipatu:

0.- Aipamenik ez.

1.- Bai, apurketaren alde.

2.- Ez, apurketaren aurka.

X.63.- **Berreskuratzea**

Hontan ere denboraren ideia agertzen da, baina iraganari begiratu beharrean, gerora begira dago.

Jakina, puntu hauetan euskerari buruz ari gara. Ideiok umeen lanetatik atarata daude eta, datuak aztertzean ikusiko dugunez,

euskerari buruz, gaztelerari buruz baino sarriago agertzen dira. Gaztelerak ez du berreskuratze arazorik eta normala da, beraz, horrelako ideiarik ez azaltzea.

Hemeko mailak:

0.- Ez da aipatzen.

1.- Gorantza doa.

2.- Beherantza doa.

3.- Ez dago argi.

Hurrengo kategoriek, X.64-tik X.70-era, berreskuratzean arrazoiak azaltzen dituzte.

X.64.- **Jaurlaritza**

Batzuk baikor ikusten dute, hau da: aldeko eragina izan duela, berreskuratzea gorantza bultzatzeko. Beste batzuk alderantziz ikusten dute. Neurketa, honela egin dugu:

0.- Aipamenik ez.

1.- Baikor, alde agertzen da.

2.- Ezkor, aurka agertzen da.

X.65.- **Ikastolak**

Aurrekoan bezalatsu gertatzen da. Kasu honetan ikastolek

berreskuratze prozesuan izan duten eragina aztertzen da:

0.- Ez da aipatzen.

1.- Baikor, alde agertzen dira.

2.- Ezkor, aurka agertzen dira.

X.66.- **Gu**

Kanpoko eta barruko eraginak nahastu egin dira.

Oraingo honetan, berreskuratzearekiko lotura pertsonala agertzen da:

0.- Ez da aipatzen.

1.- Baikor, guk alde egiten dugu.

2.- Ezkor, ez dugu askorik egiten.

X.67.- **Gizartea**

Orokorrean hartuta, inguru ez hurbila baizik urrun gelditzen dena izan dugu gogoan. Guk ipini genuen aipamen hau, baina ez du askorik emon. Neurketa bardina izan da:

0.- Aipamenik ez.

1.- Baikor, alde agertzen da.

2.- Ezkor, aurka agertzen da.

X.68.- **Erdaldunak**

Euskeraz ez dakitenek ere euskeraren egoeraren erru zati bat

behintzat badute, batzuentzat. Hontan ere:

0.- Aipamenik ez.

1.- Baikor, alde egiten dute.

2.- Ezkor, aurka egiten dute.

X.69.- **Hizkuntza**

Lehengo moduan, guk sartu genuen eta ez du aipamenik izan:

0.- Aipamenk ez.

1.- Baikor, hizkuntzak ez du errurik.

2.- Ezkor, bai hizkuntza eskasa da.

X.70.- **Madril**

Hauxe ere proba moduan sartu zen, **herriari** buruzko idazlanetan aipamenen bat agertu delako, baina ez du aipamenik izan:

0.- Aipamenik ez.

1.- Baikor, alde agertzen da.

2.- Ezkor, aurka agertze da.

X.71.- **Aipatu trasmizioa**

Lehenago egin dugun bezala orain arte aukeratzen den hizkuntzaren trasmizioari buruz esan dena aipatzen den hizkuntzari buruz agertzen da. Beraz hontan ere erabaki bardina

hartuko dugu: azalpenak eman barik sailkapena bakarrik eskaintzen dugu ideia bakoitzaren ondoren, X.71-tik X.82 bitarterako kategorietan.

Hizkuntza aipatuaren trasmizioari buruzko ideiak honela sailkatu dira:

0.- Aipamenik ez.

1.- Apurtu barik antzinatik.

2.- Apurtuta berreskuratu nahian.

3.- Berreskuratzea ondo baloratuta.

4.- Berreskuratzea txarto baloratuta.

5.- Apurtuta guztiz.

X.72.- **Franco**

X.73.- **Aurrekoak**

X.74.- **Hizkuntza**

Hiru kasuotan:

0.- Aipamenik ez.

1.- Baikor, apurketaren alde.

2.- Ezkor, apurketaren aurka.

X.75.- **Berreskuratzea**

0.- Aipamenik ez.

1.- Gorantza doa.

2.- Beherantza doa.

3.- Ez dago argi.

X.76.- **Jaurlaritza**

X.77.- **Ikastolak**

X.78.- **Gu**

X.79.- **Gizartea**

X.80.- **Erdaldunak**

X.81.- **Hizkuntza**

X.82.- **Madril**

Kasuotan:

0.- Aipamenik ez.

1.- Baikor, berreskuratzearen alde.

2.- Ezkor, berreskuratzearen aurka.

Orain arte beraz, **aukera** eta **aipamenaren** berezitasunak

aztertu dira, taldeka eta banatuta. Orain, hizkuntza biak batera harturik, agertu diren ideia batzuk azalduko ditugu. Ideiok, **bardintasuna** eta **borroka** dira.

X.83.- **Maila bardina**

Hizkuntza biak euskera eta gaztelera aipatzen direnean, askotan bardintasunarekin ideia agertzen da, biak bardinak diren ala ez, eta ez jakina zentzu linguistiko ala estruktural baten, hau da, ia "sistema"moduan posibilitate bardinak dituztenez praktikan biak modu bardinean agertzen diren ala ez.

Ideia hau, trasmizioa eta Indarra-Garrantziarekin lotuta agertu da kasu askotan.

Orokorrean, ez dira hizkuntza biak bardinak ikusten eta sailkapena honela egin dugu:

0.- Aipamenik ez.

1.- Baietz, bardinak dira edo egoera bardinan daude.

2.- Sartuta.

3.- Ezetz, ez daude egoera bardinan.

4.- Sartuta.

Azkenengo maila biek (3-k eta 4-k) hurrengo kategorira eramaten gaituzte, hau da:

X.84.- **Borroka**

Hizkuntza biak egoera ezbardinetan agertzen dira, eta honen aurka askotan jarrera bat agertzen da (aurka baino, erantzun moduan hartu beharko genuke).

Jarrera, batzutan, borrokaren aldekoa da: euskeraren ala gaztelerarenaldeko borroka. Beste batzutan ez da borroka onartzen eta egoerari erantzuteko, batzuk bardintasunaren alde agerten dira, beste batzuk (gitxi dana dala) ezbardintasuna logiko bat ikusten dute eta gaztelerarenegoera legezkotzat defenditzen dute.

Agerpen guzti hauek honela banatu ditugu:

0.- Aipamenik ez.

1.- Gaztelaniaren alde.

2.- Sartuta.

3.- Euskeraren alde.

4.- Sartuta.

Hauek borroka bidezkotzen dute, ondokoek barriz, ez.

5.- Danak bardinak izan behar.

6.- Gaztelera da garrantzitsuena berez.

7.- Euskera da berez.

Amaitzeko erabilpenaren auzia aztertzen dugu, idazlan

gehienetan gure hizkuntza, erabiltzen duguna dela agertzen bait da.

X.85.- **Erabiltzen**

Zentzu honetan ume batek zioen "los vascos en realidad no tenemos lengua porque no la hablamos". Erabiltzearen ideia garrantzitsua izan da, oso aipatua nahiz eta kontrakotasunak sortu, esanaren eta eginaren artean.

Ideia hau neurtzeko:

0.- Aipamenik ez.
1.- Bai, horrela da.
2.- Ez, ez da horrela derrigorrez.

Ideia honen inguruan beste erreferentzia batzuk jarri ditugu. Aipatuko ditugu, baina aurretik esanda, garrantzigabekoak gertatu direla. Ia gehienak ados izan dira erabiltzearen ideiarekin eta justifikazioak, garbiketak ez dira ugari agertu.

Ikus ditzagun dana dala, zeintzuk izan diren, ezetz eratzutearen arrazoi moduan planteatu ditugunak:

X.86.- **Ez digute irakatsi.**

X.87.- **Oso zaila da.**

X.88.- **Ezin da, ezin dugu egin, saiatu arren.**

X.89.- **Ez dugu eskolan ikasten.**

X.90.- **Ez du inork egiten .**

X.91.- **Ez du merezi.**

X.92.- **Ezin da inposatu.**

X.93.- **Alferrak gara.**

Danak honela neurtuta:

0.- Ez da aipatzen.

1.- Bai, aipatzen da.

Aipamen gehienak, dana dala oso gitxi, (%3) "Ezin da inposatu"-k lortu zituen.

Honekin, idazlanak aztertzeko erabili diren kategorien azalpena bukatu dugu. orain prozesu orokorrari buruzko aipamen batzuk egingo dugu.

4.3.- Iruzkinak

Aurkezpena egitean, ideia batzuk agertu dira, eta horrexek dira orain gogoratu gura ditugunak. Guztiak ez ditugu barriz aipatuko. Guk geure aukera egin dugu, irakurleak agian, besteren bat egingo zukeen bezala.

- Hitzen mugagabetasuna. Ikusi dugun legez kasu askotan zaila izan da ideia baten balioa neurtzea. Askotan hitzak berak ez duelako baikor eta ezkorrik agertzen eta inguruak mugatzen duelako textuan duen esanahia. Arazogarria izan da hauxe batzutan eta, orokorrean, erabakiak kontextuaren arabera hartu dira.

- Ardatzak. Ideiak ez dira bakarrik "ona-txarra" "handia-txikia" eta honelako nolabait esateko ardatz dimentsiobidunetan agertu; "kanpotik-barrutik" beste ardatz bat agertu da: inplikapena, sarpena, afktibotasuna eta, gura bada, subjetibotasuna. Honekin batera eta goiko puntuari ere lotuta beste ideia bat agertzen da: ardatz dimentsiobidunetan, hertzek ezdutela beti balio bardina, eta balio hau ere inguruak emanda datorrela. Indarra-ren kasua aipatu dugu. Zailtasunarekin ere bardin gertatzen da: kasu batzutan zaila dena beste batzuetan aberatsa da, eta horretarako kriterioa ez da "obejtiboa", arrazoi bardinak erabiltzen direlako kasu bietan, baina ondorio ezbardinak ateratzen dira.

- Beste ideia garrantzitsu bat zera izan da: aztertu gura dugun errealitatetik oraindino urrun gaudela. Jaso ditugun sorpresek honela adierazten digute, umeen euren erantzunetatik hasita.

Behar bada, horixe da gure azterketa bidezkotzen duena. Beti igesian dabilena harrapatu gurean gabiltza eta, kantak dion moduan, "destinu petrala, hauxe!".

Amaitzeko kategoriei eta neurketari buruzko ohartxo pare bat:

- Lanak irakurtzean, aurrez eratutako kategorietan sartu ez diren ideiak ere agertu dira eta ahal izan denean, onartu eta jaso ditugu, behar diren aldaketak eginaz. Baina hau ez da kasu guztietan gertatu. Honela gertatu da Batua-Euskalkien arteko eztabaidarekin esate baterako; edo Eskola Publikoetako ume batzuk esan dutenarekin: Ikastolak garestiak direla eta haiek ere dana euskeraz edo, behintzat euskera ikasteko aukera nahi dutela, hain zuzen ere. (Eta hementxe, oraintxe bertan "B" ereduarekin gertatzen ari dana aipatuko genuke) eta horrelako puntu batzuk: erabilerarena gehiago landu esate baterako.

Esan behar dugu, beraz, ez dugula agertu dan guzti-guztia jaso. Baina jaso duguna umeek esaten dute eta beren egoera-jarrera ahalik ondoren ezagutzen adierazten saiatu gara. Eta honetara dator azkenengo puntua:

- Ideiak sailkatzeko orduan arazo hau planteatu dugu: hitza ez agertzeak ez du gaia ez dagoenik esan gura.

Esate baterako, gaztelera zuzenean aipatzen ez bada, baina euskera hilzorian dagoela esaten bada, gaztelera aipatzen da. Izan ere, hizkuntza bat hiltzeko beste batek irabazi behar du eta irabazlea, geure kasuan, gaztelera litzateke.

Beraz euskera hilzorian agertzen bada:

I.- Gaztelera aipatu egiten da.

II.- Gaztelera eta euskeraren arteko borroka bat dagoela esaten da.

III.- Gaztelera indartsuagoa dela ere bai.

Behar bada umeek ez lukete errazionalki hauxe onartuko, baina horrek ez du esan nahi horrela ikusten ez dutenik.

Baina bestaldetik kontuz ibili behar da horrelako azterketekin: "subjetibitasuna" edozein aldetatik sartzeko posibilitatea dagoelako eta azterketak eta "zientziak" eskatzen duten "objetibitasuna" zaindu egin behar delako. Beraz, aipatzen zena, zuzenean (edo ahalik eta zuzenen) hartzen ahalegindu gara.

OHARRAK

1.- Ninyoles,R.Ll.: **Idioma y Poder Social**, op.cit.

2.- Ferrer/Precedo.: **Las Ciudades de Vizcaya y Guipuzcoa**, Leopoldo Zugaza Editor. Bilbao 1.977.

3.- **Eusko Jaurlaritza, 1981eko Zentsua**, Gazteiz 1983.

4.- **Aipatua.**

5.- **Bizkaian ez da % 20-40 euskaldunetako zonarik agertzen, ez dugu beraz sartu, dena dela honek ez du, ehuneko horretako herririk ez dagoenik esan gura.**

6.- **Real Academia de la Lengua Española. Diccionario de la Lengua Española, (Vigésima Edición), Madrid, Espasa Calpe 1984.**

III

DATU AZTERKETA

3.1.- AURKEZPENA

Atal honetan hizkuntzari buruzko idazlanak irakurri eta aztertu ondoren , lortu diren datuak aurkezten dira.

Datuok hiru era ezbardinetara aztertu dira:

I. Datu orokorrak. Maila honetan ez da kontutan hartu inolako aldagairik eta kategoriaren aipamenak , oro har, azaltzen dira, hemendik sortzen diren galderak ere planteatzen ditugularik.

Alde batetik, honetan agertzen diren aipamenak ez dira oso ugariak izan . Orduan pentsatu dugu talde osoa , eritzi zearo ezbardinetako beste taldeetan banatzen dela eta talde hauen pisua gitxitu egiten dela azterketa orokorrean.

Bestaldetik, hizkuntza biek (euskerak eta gaztelerak) jasotzen dituzten eritziak ezagutu gurean gabiltzanez, beste azterketa bi burutu ditugu.

II. - Ikastetxe moten arabera. Ikastolak, Publikoak eta Pribatuak banaka aztertu ditugu.

Alde batetik, laginan ere bereizketa hau eginda egon delako eta, beraz, datuak ataratzeko posibilitateak izan direlako. Bestetik, ikastetxe motak askotan aipatzen dira, haien arteko berezitasunak ezbardinak direla esanez (Ikastolak "Ideologia Nazionlista"-ren bersorlekuak, Publiko/Pribatuaren lege-eztabaidak...) eta holako azterketetan erabili egiten den aldagaia delako.

111.- Hizkuntza aukera eta erabileraren arabera. Arrazoi nagusiak honako hauek izan dira: alde batetik, interesa pertsonala, hau da, gure lanaren helburu bat hizkuntza bien irudia ezagutzea izan delako; eta bestetik, umeek haiek ere erabileraren garrantzia aipatzen dutelako (datu orokorretan).

Aurreko puntuan, ikastetxe mota datuetan sartuta zegoen aldagaia zela esan dugu eta datuak errez lortu direla. Hizkuntzari buruz, arazoak gertatu dira.

Banaketa honela egin izan dugu:

- Gaztelera aukeratzen dutenak.

- Euskera aukeratzen dutenak:
  - Badakitenak:
    - Erabiltzen dutenak:
      - Etxean bai eta kalean ez (eskolan, agian).
      - Eskolan bakarrik.
      - Kalean bai (etxean eta eskolan, agian).
    - Erabiltzen ez dutenak.
  - Ez dakitenak.

Gaztelerazkoek ez dute erabileraren arazorik, aukeratzen zuten guztiek erabiltzen zutelako. Baina euskerazkoetan ez da horrela gertatzen. Esan dugun banaketa eginda, euskera aukeratzen dutenen taldea osatzen da; baina, bestaldetik, oso talde txikietan banatzen da talde osoa. Ahal izan dugunean azpitalde hauen batuketak egiten saiatu gara, ume kopuru handiagoak lortu ahal

izateko.

Datuak komentatzeko eta azaltzeko, gidoi bat erabili dugu. Gidoia datu orokorren hasieran azaltzen da, eta, esaten dugun moduan, ahal izan denean betetzen saiatu gara. Orokorrean gidoiaren ideia zera izan da:

- Datu soziodemografikoak.
- Hizkuntza aukera.
- Hizkuntza aipamena.

Atal bakoitza amaitzean, datuen grafiko bat eta ideien eta komentarioen laburpena eskeintzen da.

Datuak -eraskinetan ordenagailuko zerrendak eskeintzen badira ere- landuta eskeintzen ditugu eta aldagai bakoitzaren araberako azterketaren aurrean, datu zerrenda aurkezten dugu (datu orokorretan ez ezik). Honela, azalpenetan komentatzen ez diren puntuak edo ideiak ere irakurlearen eskutan gelditzen dira.

Honela, urrengo puntuak hobeto ulertuko direlakoan, datu azterketa ezberdinetan aurkezpenak ikusiko ditugu.

2. DATU OROKORRAK

			%
MAILA	1	387	71,9
	2	94	17,5
	3	57	10,6
HIZKUNTZA	1	29	5,4
	2	361	67,1
	3	63	11,7
	4	3	6
	5	82	15,2
AMA	1	144	26,8
	2	178	33,1
	3	216	40,1
AITA	1	151	28,1
	2	174	32,3
	3	213	39,6
AMAHIZK.	1	152	28,3
	2	367	68,2
	3	5	9
	4	14	2,6
AITAHIZK.	1	157	29,2
	2	371	69,-
	3	1	-,2
	4	9	1,7

AITALANA	0	22	4,1
	1	23	4,3
	2	22	4,1
	3	123	22,9
	4	184	34,2
	5	56	10,4
	6	53	9,9
	7	25	4,6
	8	26	4,8
	9	4	-,7
AMALANA	0	446	82,9
	1	6	1,1
	2	4	-,7
	3	19	3,5
	4	24	4,5
	5	12	2,2
	6	15	2,8
	7	--	--
	8	12	2,2
	9	--	--
EGUNKARIA	0	29	5,4
	1	109	20,3
	2	14	2,6
	3	251	46,7
	4	7	1,3
	5	--	--
	6	98	18,2
	7	30	5,6
SEXOA	1	196	36,4
	2	342	63,6
ADINA	1	192	35,7
	2	268	49,8
	3	78	14,5
JATORRIA	1	140	26,-
	2	378	70,3
	3	20	3,

EUSKERA	1	137	25,5
	2	52	9,7
	3	286	53,2
	4	63	11,7
ETXEAN	0	29	5,4
	1	98	18,2
	2	411	76,4
ESKOLAN	0	28	5,2
	1	98	18,2
	2	412	76,6
KALEAN	0	87	16,2
	1	39	7,2
	2	412	76,6
ERANTZUNA	1	123	22,9
	2	415	77,1
ERABILI	1	110	20,4
	2	428	79,6
AUKERA	0	9	1,7
	1	338	62,8
	2	183	34,-
	3	7	1,3
	4	1	-,2
AIP. EUSK.	0	390	72,5
	1	148	27,5
AIP. GAZT.	0	420	78,1
	1	118	21,9
AIP. BESTE	0	463	86,1
	1	95	13,9

HERRI AUK.	0	166	30,9
	1	162	30,1
	2	8	1,5
	3	128	23,8
	4	74	13,8
HERI. AIP.	0	403	74,9
	1	27	5,-
	2	24	4,5
	3	38	7,1
	4	46	8,6
AUK. BALIO	0	309	57,4
	1	99	18,4
	2	125	23,2
	3	4	-,7
	4	1	-,2
AIP. BALIO	0	474	88,1
	1	36	6,7
	2	5	-,9
	3	17	3,2
	4	6	1,1
AUK. INDARRA	0	387	71,9
	1	50	9,3
	2	72	13,4
	3	15	2,8
	4	14	2,6
GARRANTZIA	0	355	66,0
	1	156	29,0
	2	20	3,7
	3	6	1,1
	4	1	-,2
ZAHARRA	0	317	58,9
	1	221	41,1
	2	--	-,-

IDAZLEAK	0	488	90,7
	1	43	8,-
	2	7	1,3
GUREA	0	402	74,7
	1	135	25,1
	2	1	-,2
HIZTUNAK	0	382	71,-
	1	65	12,1
	2	91	16,9
ZABAL	0	453	84,2
	1	74	13,8
	2	11	2,-
ABERATSA	0	483	89,8
	1	53	9,9
	2	2	-,4
ESAMESAK	0	518	96,3
	1	20	3,7
FUNTSIOA	0	318	59,1
	1	---	--
	2	34	6,3
	3	3	-,6
	4	183	34,-
BAT	0	405	75,3
	1	16	3,-
	2	39	7,2
	3	65	12,1
	4	13	2,4

OFIZIALA	0	500	92,9
	1	37	6,9
	2	1	-,2
BERBADUNAK	0	515	95,7
	1	9	1,7
	2	5	-,9
	3	1	-,2
	4	8	1,5
AIP. INDARRA	0	506	94,1
	1	14	2,6
	2	3	-,6
	3	7	1,3
	4	8	1,5
AIP. GARRAN.	0	501	93,1
	1	17	3,2
	2	2	-,4
	3	14	2,6
	4	4	-,7
AIP. ZAHARRA	0	507	94,2
	1	31	5,8
	2	--	--
AIP. IDAZLE	0	531	95,4
	1	6	1,1
	2	1	-,2
AIP. GUREA	0	513	95,4
	1	11	2,-
	2	14	2,6
AIP. HIZTUNAK	0	476	88,5
	1	37	6,9
	2	25	4,6

AIP. ZABAL	0	525	97,6
	1	7	1,3
	2	6	1,1
AIP. ABERATSA	0	535	99,4
	1	2	-,4
	2	1	-,2
AIP. ESAMESA	0	531	98,7
	1	7	1,3
AIP. FUNTSIOA	0	515	95,7
	1	--	--
	2	10	1,7
	3	1	-,2
	4	9	1,7
	5	3	-,6
AIP. OFIZI.	0	529	98,3
	1	8	1,5
	2	---	--
	3	1	-,2
AIP. BERBADUNAK	0	535	99,4
	1	1	-,2
	2	--	- -
	3	--	- -
	4	2	-,4
AUK. TRANSMIZIO	0	407	75,7
	1	27	5,-
	2	11	2,-
	3	78	14,5
	4	7	1,3
	5	8	1,5
APUR. FRANKO	0	436	81,-
	1	92	17,1
	2	10	1,9

AURREKOAK	0	527	98,-
	1	11	2,-
	2	--	- -
HIZKUNTZA	0	536	99,6
	1	2	-,4
	2	--	--
BERREZKURA	0	355	66,-
	1	134	24,9
	2	32	5,9
	3	17	3,2
JAURLARITZA	0	504	93,7
	1	29	5,4
	2	5	-,9
IKASTOLAK	0	463	86,1
	1	73	13,6
	2	2	,4
GU	0	471	87,5
	1	26	4,8
	2	41	7,6
GIZARTEA	0	509	94,6
	1	26	4,8
	2	3	-,6
ERDALDUNAK	0	492	91,4
	1	7	1,3
	2	39	7,2
HIZKUNTZA	0	538	100,-
	1	--	--
	2	--	--

MADRIL	0	536	99,6
	1	--	--
	2	2	,4
AIP. TRANS	0	521	96,8
	1	5	,9
	2	4	,7
	3	3	,6
	4	2	,4
	5	3	,6
AIP. FRANKO	0	528	98,1
	1	10	1,9
	2	--	--
AIP. AURRE	0	538	100,-
	1	--	-
	2	--	--
AIP. HIZKUN.	0	538	100,-
	1	--	--
	2	--	--
AIP. BERRES	0	518	96,3
	1	15	2,8
	2	4	,7
	3	1	,2
AIP. JAUR.	0	534	99,3
	1	4	,7
	2	--	--
AIP. IKAS.	0	529	98,3
	1	9	1,7
	2	--	-,-

AIP. GU	0	539	100,-
	1	--	--
	2	--	--
AIP. GIZARTE	0	536	99,6
	1	2	,4
	2	--	--
AIP. ERDALD.	0	537	99,8
	1	--	--
	2	1	,2
AIP.HIZKUN.	0	538	100,-
	1	--	--
	2	--	--
AIP. MADRIL	0	538	100,-
	1	--	--
	2	--	--
MAILA BARDIN	0	396	73,6
	1	3	,6
	2	--	--
	3	133	24,7
BORROKA	0	396	73,6
	1	18	3,3
	2	6	1,1
	3	95	17,7
	4	9	1,7
	5	11	2,-
	6	3	,6
ERABILTZEN	0	294	54,6
	1	237	44,1
	2	7	1,3
EZ IRAKATSI	0	532	98,9
	1	6	1,1

ZAILA	0	534	99,3
	1	4	,7
EZINA	0	538	100,-
	1	--	--
ESKOLAN EZ	0	537	99,8
	1	1	,2
INORK EZ	0	536	99,6
	1	2	,4
EZ MEREZI	0	536	99,6
	1	2	,4
IMPOSATU EZ	0	522	97,-
	1	16	3,-
ALFERRAK	0	538	100,-
	1	--	--

Geroago datu hauek taldetan banatuko baditugu ere, orain osotasunean aztertzen ditugu. Hau da, inolako aldagairik kontutan hartu barik, zera jorratzen dugu: zeintzuk izan diren kategoria bakoitzak izan dituen aipamenak.

Datuak ikusteko gidoi bai izango dugu. Gidoik hau geroago ere erabiliko dugu - posiblea den neurrian, kasu bakoitza ezbardina dala kontutan izanik-, aldagai ezbardinen arabera egindako talde ezbardinen datuak aurkezteko. Honela, ideia bera era ezbardinetara aztertzeko posibilitateak izango ditugu, baita datu ezbardinak batera ikusteko ere.

Orain, gidoiaren puntuak eman eta azalduko ditugu:

1.- **DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK**

Sail honetan, hizkuntzari buruzkoak ez diren datuak sartzen dira: umearen inguru fisikoa adierazten dutenak: inguru fisiko "hurbila", hau da familiarra; eta inguru fisiko "urruna" edo herrikoa.

Puntu honetan, beraz, sartzen dira:

- Herria: Maila, (hiria, tartekoa ala landa) eta herriaren hizkuntza maila, hau da, zein dan herriaren euskaldun (hiztunen) proportzioa.
- Gurasoak: Jatorria, hizkuntza eta lana eta baita egunkariari buruzko galdera ere.
- Umea: Adina, Sexua, Jatorria.

2.- HIZKUNTZA; EZAGUTZA ETA ERABILERA

Umearen egoera linguistikoa ezagutzeko saioa bezala har daiteke honako hau.

Suposatzen da, ume guztiek gazteleraz badakitela eta erabili ere erabiltzen dutela. Galdera, beraz, euskerari buruzkoa da.

Puntu bi agertzen dira hemen:

- Ezagutza.- Euskeraz dakien ala ez; eta, baiezkoan zelan ikasi duen.
- Erabilera.- Ea, etxean, eskolan, kalean euskera erabiltzen duen.

3.- HIZKUNTZA AUKERA

Umeek "Gure hizkuntza"-ri buruz egiten zutenean bat aukeratzen zuten. Hori da, bada, puntu honen aztergaia.

Puntu honetan beste azpipuntuak ere badaude:

- **AIPAMENAK:** Hau da, aukeratu bat egiten bada, beste batzuk ere aipatzen eta komentatzen dira. Baina komentarioak ez ditugu kontatzen, zein izan den aipatua baino.

- **HERRIA:** Hizkuntza, askotan leku "geografiko" edo "politiko" baten kokatzen da: hau da: umeek, hizkuntzari buruz zerbait esatean, herri bati buruz ere zerbait esan dute (batzutan jakina). Hauxe da guk hemen batzen duguna, zein dan hizkuntzari

lotuta doan herria.

- IRUDIA: Ez da erreza hauxe definitzea. Honen eta urrengo puntuaren arteko mugak ez daude oso argi, baina bide bat izan da, erantzunak batzeko eta errazago aztertu ahal izateko. Puntu honetan, hizkuntzari buruzko balorapena neurtzen saiatu gara: "Zabala" "Indarra"... kategoriak.

- EGOERA: Hau da, zelan dagoen gaur egun hikuntza. Guk hemen ez dugu gero idealik planteatu gura izan; umeek, gaur egun zelan ikusten duten hizkuntza esan digute eta gu hori ateratzen saiatu gara.

Puntu honetan: "Borroka" "Transmizioa" "Berreskuratzea" "Erabiltzen"... kategoriak sartu ditugu.

4.- HIZKUNTZA AIPAMENA

Amaitzeko aipatu den hizkuntzari buruzkoa sartu dugu.

Hasieran aukeratutako hizkuntzari buruzko sailkapen bardina egitea pentsatu genuen, baina laster konturatu ginen, agertzen ziren aipamenak ez zirela oso ugariak eta banaketak ez zeukala zentzu handirik. Beraz, "aipatzen" ziren kategoriak denak batera azaltzea erabaki genuen. Aipamenak beren zenbatekoan neurtu ditugu eta %5- era heltzen ez zirenak ez ditugu kontutan hartu.

Gidoia, bada, honela da:

1.- Datu soziodemografikoak.

2.- Hizkuntza: Ezagutza eta erabilera.

- Ezagutza.

- Erabilera: Etxean
  Eskolan
  Kalean

3.- Hizkuntza aukera:

- Aukera
- Aipamena
- Herria
- Irudia
- Egoera

4.- Hizkuntza aipamena.

Orain datu orokorrak azaldu eta komentatu baino ez dugu egin behar. Puntu bakoitzaren aurretiko, puntu horri dagozkion datuak eskeintzen dira erreferentzia orokor gisara.

2.1.- DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK

Laginan datu hauen puntu batzuk ikusi ditugu: ikastetxe moten proportzioa, hiri maila, hizkuntza maila.

Ez ditugu beraz, hemen berrikusiko, eta gurasoen berezitasunak ikusten hasiko gara:

AMAREN JATORRIA

Alde euskaldunetakoa	144	26,8
Ez euskaldunetakoa	178	33,1
Kanpotarra	216	40,1
	538	100,-

AITAREN JATORRIA

Alde euskaldunetakoa	151	28,1
Ez euskaldunetakoa	174	32,3
Kanpotarra	213	39,6
	538	100,-

Ikusten dugu, bada, kasu bietan ez dagoela ezbardintasun handirik, eta bertokoak zenbatuz, % 60-bat E.H. an jaioa agertzen dala.

Bizkaiko etorkinen pisua (% 31 orokorrean) datu honekin konparatuz gero, gurasoen artean biztanlego osoaren baino ehuneko handiagoa dela ikusten dugu. Puntu honetan, etorkinen kopuru handienak zein urtetan eta zein adinetakoen artean eman diren, ikusi beharko genuke.

Ama hizkuntza

Badaki	152	28,3
Ez daki	367	68,2
Alfabetatzen	5	,9
Ikasten	14	2,6
	538	100,-

Aita hizkuntza

Badaki	157	29,2
Ez daki	371	69,-
Alfabetatzen	1	,2
Ikasten	9	1,7
	538	100,-

Gurasoen hizkuntzari buruz agertzen den lehenengo ideia zera da:

1.- Euskaldunak oso gitxi direla kopuru osoan (gitxi gorabehera %30).

2.- Hori jatorriari buruzko datuekin alderatu ezkero, alde euskaldunetan jaio direnen eta euskeraz egiten dutenen portzentaiak ia bardinak direla ikusten dugu. Hauxe ez da, dana dala, lehenengo datu azterketak ematen digun ideia bat baino. Harreman hori benetan ematen den ala ez aztertu egin beharko genuke zehazki.

Puntu honetan agertzen den beste ideia batzuk:

3.- Oso guraso gitxik ikasten du euskera (%3,5-k kasu onenean) eta amek, aitek baino gehiago. Zentzu bardinean esan dezakegu, euskaldunak direnek ez dutela ia ikasten.

Ama lana

		%
Lanik ez	446	82,9
Erantzunik ez	6	1,1
Nekazariak	4	,7
Peoiak	19	3,5
Kualifikatuak	24	4,5
Bulegoetan	12	2,2
Erdikoak	15	2,8
Goikoak	--	--
Saltzaileak	12	2,2
Militarrak	--	--
	538	100,-

Aita lana

		%
Lanik ez	22	4,1
Erantzunik ez	23	4,3
Nekazariak	22	4,1
Peoiak	123	22,9
Kualifikatuak	184	34,2
Bulegoetan	56	10,4
Erdikoak	53	9,9
Goikoak	25	4,6
Saltzaileak	26	4,8
Militarrak	4	,7
	538	100,-

Amek ez dute etxetik kanpo lanik egiten. Gehien bat, (%82,9) lan egiten dutenen artean, batez ere langile kualifikatu eta kualifikatugabeak agertzen dira. Lana biak egiten dutenek %8 bat osotzen dute; ez da beraz oso kopuru handirik.

Aipatu beharra dago, "Goiko arduradun"-en artean bat ere ez dagoela. Baina hemen ea datuak ondo daudenentz galdetuko genuke: oso portzentai txikia ikusten dugu eta, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeena. Dana dala, ehuneko hain txikia izanik, beste datu azterketetan ez dugu puntu hau kontutan hartu.

Aita gehienak, 3-4 sailetan daude, hau da, peoiak eta kualifikatuak (osorik %67,1), nekazari eta arrantzaleak oso gitxi

direlarik (% 4,1).

Goiko arduradunak %4,6 eta militarrak %7.

Hau ikusirik zera esango genuke: langabezia ez dala aipatzen (%4,1-ek bakarrik aipatzen du, gizonen artean). Beraz, aitaren lana goretsia eta amarena gutxietsia daudela esatea posible litzateke?

Ikusten den legez, hauxe hipotesi antzeko ideia besterik ez da, baina, zera susmatzen dugu: lanbide batzuk aipatzen dira, eta beste batzuk ez (edo lanbide baino "egoera" nahi bada) eta hauen artean amen lana, langabezia, nekazaritza (eta militarrak?), "logiko"-tzat jotzen dugun baino gitxiagotan agertzen dira.

Behar bada -nekazaritzan gertatzen den bezala-, beste lan batekin batera emanten dala izango da, eta lan hau dala nagusitzat hartzen eta aipatzen dena.

Egunkaria		%
Ez dute irakurtzen	29	5,4
DEIA	109	20,3
EGIN	14	2,6
CORREO	251	46,7
GACETA	7	1,3
EL PAIS	--	--
Bat baino gehiago eta behintzat euskalzalea	98	18,2
Bat ere ez euskalzalea	30	5,6
	538	100,-

Gogoratzen dugu, ez dugula aniztasunari buruz ezer galdetu. Honek esan nahi du, irakurtzen direnak aipatzen direla, baina ez egunero irakurtzen denik. Ezta bat baino gehiago agertzen direnean, batera irakurtzen direnik ere.

Esango dugu bai, egunkaririk irakurriena "El Correo" dala; "DEIA" bigarrena, "Correo"-aren erdia dalarik, eta bere parean, bat baino gehiago eta, hauen artean, egunkari "euskaltzale" (Deia/Egin) bat irakurtzen dutenak.

Datu honek ez du hemen garrantzi handirik, baina datuak beste era batera ikustean, ikastetxe motaren eta hizkuntzaren

arabera egindako azterketetan, egunkari bakoitza talde ezbardinekin lotuta doala ikusiko dugu.

Sexoa		%
Neskak	196	36,4
Mutilak	342	63,6
	538	100,-

Argi dago, unibertsoan dauden ehunekoak ez direla gorde. Arrazoi ezbardinak daude (Nesken kolegioek gitxiago erantzun dute e.a.). Orain arte ikusi ditugun azterketetan, sexuaren garrantzia aldakorra izan da[1]. Guk, datu hauek ikusirik, ez dugu sexua beste aldagaiekin lotu, inolako azterketarik egiteko.

Adina		
13 urte	192	35,7
14 urte	268	49,8
15 eta gehiago	78	14,5
	538	100,-

Zortzigarren mailako umeek 13-14 urte dituzte. Honek ez du bestelako sekretürik, legez honela erabakita dagoelako. Dana dala ikastetxe moten arabera egindado azterketan, ikastetxeen arteko ezbardintasunen bat agertuko da.

Jatorria		%
Alde euskaldunetan	140	26,-
Ez euskaldunetan	378	70,3
Kanpotarrak	20	3,7
	538	100,-

Gurasoen jatorriarekin konparatu ezkero, agertzen diren ideia nagusi biak, hauexek dira:

1.- Alde euskaldunetako kopurua, apur bat gitxituz, mantendu egiten dala.

2.- Ume gehienak E. H. an jaioak direlarik, kanpotarren proportzioa desagertu egiten da ia-ia.

Honela "Datu soziodemografiko"-en aurkezpena bukatu dugu. Orokorrean beraz, eta laburtuz, geure taldearen berezitasunak honako hauek dira:

Gurasoak Euskal Herrian jaioak dira, erdiak baino gehiago behintzat (% 60); hizkuntza gaztelera dute eta lanbidea erdiko mailakoa (langile kualifikatuak eta bulegoetako jendea); "El Correo" irakurtzen dute eta beren seme-alabak Euskal Herrian jaioak dira, haiek baino ehuneko handiagoan (% 96,3).

Esan dugun legez, sexua eta adina ez ditugu kontutan hartzen.

2.2.- HIZKUNTZA; EZAGUTZA ETA ERABILERA

Euskera

		%	
Etxean ikasita	137	25,5	
Badakite	189		%35,2
Eskolan ikasita	52	9,7	
Ikasten ari dira	286	53,2	
Ez dute ikasten	63	11,7	
	----	----	
	538	100,-	

Hauxe ikusita nahiko baikor izan beharko genukela dirudi baina: 2)

1.- Euskeraz dakiten gurasoak % 28/29 dira eta etxean ikasi duten umeak %25; beraz, euskaldunen artean, % 3-k galdu egin du euskera.

2.- Ezagutza ez da erabilera eta hori argi agertzen da, oraintxe ikusiko ditugun erabilerari buruzko datuetan.

	Lagin osoan		Euskaldunen artean	
Erabilera etxean		%		%
Ez	29	5,4	29	15,-
Bai	98	18,2	98	52,-
Erantzunik Ez(E/E)	411	76,4	62	33,-
	538	100,-	189	100,-

Eskolan		%		%
Ez	28	5,2	28	14,8
Bai	98	18,2	98	51,8
E/E	412	76,6	63	33,4
	538	100,-	189	100,-

Kalean		%		%
Ez	87	16,2	87	46,-
Bai	39	7,2	39	20,6
E/E	412	76,6	63	33,4
	538	100,-	189	100,-

Aurkezten ditugun datuak oinarri ezbardinetan finkatzen dira. Lehenengo zutabean, lagina osorik hartuta eta bigarrenean euskeraz badakitela erantzun dutenak hartuta. Beraz, lehenengo zutabean euskararen erabilerak, espazio 3) ezbardinetan eta

biztanlego osoan duen pisua agertzen da. Etxean eta eskolan, populazioaren %18,2-k euskeraz egiten duela dio.

Etxeari buruz gauzak nahiko argi badaude ere, eskolan ez daude hain argi. Hain zuzen ere "Eskola" ideia ez dagoelako hain mugatuta. "Etxea", lekua eta etxekoak dira. Baina "Eskola", lekua, ikasleak, irakasleak, orduak eta gaiak dira. Guk ezin dugu jakin, zelan ulertu duten zehazki ideia hau gure erantzuleek. Beraz, era orokor baten hartu behar dugu erantzuna.

Kalean Baietz eta Ezetz diotenen arteko harremana alderatuz, egiten dutenak %7,2 besterik ez dira. (Esan beharra dago, neurri baten "kalea", "eskola" bezalatsu, barruti mugagaitza dela). Dena dela oso ehuneko eskasa. Hainbat bider esaten da, hizkuntza erabili egin behar dela hain zuzen, baina datuok ez digute oso baikor izateko aukerarik ematen. Behar bada, erantzulegoaren adina kontutan hartzekoa da; 13-14 urteko jendea nahiko berezia izaten da eta erantzuteko moduak arlo guztietan zabaltzen diren legez, hizkuntza ere bere berezitasunak adierazteko egokia den esparrua da.

Dena dela eta orokorrean, hemen agertzen diren datuak ez dira euskeraren iraupenerako oso baikorrak.

Ikus dezagun orain, euskaldunen arteko erabilera. Etxean, %52-k euskera erabiltzen du. Behar bada gehiago izango da, %33 batek gazteleraz erantzun duela eta erabilerari buruzko galderei erantzuteko posibilitaterik izan ez duela kontutan hartuz. Baina

guk daukagun datua horixe da.

Eskolan ehuneko bardinak gordetzen dira: %52-k euskeraz egiten duela dio.

Ez dugu uste, dena dela, eskolan eta etxean egiten dutenak pertsona berak direnik esateko moduan gaudenik. Eskola publikoetan euskeraz ematen ez delako eta ikastetxe mota honetan euskaldun nahiko aurkitzen direlako. Aldiz, ikastolen eragina aztertu beharko genukela uste dugu, hau da, zein neurritan ehuneko hori ikastolen pisuagatik sortu denentz.

Kalean azkenez, euskaldunen %20,6-k egiten duela dio. Harritzekoa da ehuneko hau ere. Oinarria guztiz euskalduna dela pentsatuz gero, eta hemen, inguruaren eragina eta euskeraz egiteko aukerak aztertu beharko zirela uste dugu. Arrazoia oso sinplea da: euskeraz egin gurak ez du ezer suposatzen, gure ondoan ezin badugu, materialki, euskeraz egin.

Euskaldunen artean, beraz, euskera etxean eta eskolan erabiltzen da gehien bat.

Erantzuna

	Osorik		Euskaldunen artean	
Euskeraz	123	22,1	123	65,1
Gazteleraz	415	77,1	66	34,1
	538	100,-	189	100,-

Erabili

	Osorik		Euskaldunen artean	
Euskera	110	20,4	110	58,2
Gaztelera	428	79,6	79	41,8
	538	100,-	189	100,-

Hementxe agertzen da alde batetik, zenbatek idatzi duen euskaraz ala gazteleraz datu soziodemografikoen fitxa ("erantzuna") eta zenbatek hizkuntzari buruzko idazlana ("erabili"). Bestetik, kasu bakoitzean zeintzuk diren erantzunen ehunekoak lagina osoan eta euskaldunen artean.

Ikusten da, fitxa euskeraz betetzen dutenak, idazlana euskeraz idazten dutenak baino gehiago direla. Kasu bietan, euskaldunen artean Etxean eta Eskolan euskeraz egiten dutenek ere gehiago direla.

Laburtzen.- Euskeraz dakitenak %35 dira eta ikasten ari direnak %53. honek, euskeraren aldeko joera dugunentzat baikorra agertzen bada, ezagutza eta erabileraren arteko ezbardintasuna gogoratu behar da eta, erabilera aztertu ezkero, geure baikortasuna lur jota gelditzen da.

Etxean eta Eskolan %18-ren batek erabiltzen du euskera baina %7-k bakarrik kalean. Hau datu orokorrak kontutan izanik. Euskaldunak direnen artean (esan dugun legez erantzulegoaren %35) %51-en inguruan mugitzen dira Etxean eta Eskolan euskera erabiltzen dutenak eta %20-en inguruan kalean erabiltzen dutenak. Beraz, ezagutza eta erabileraren arteko ezbardintasuna nabaria da. Hain argi agertzen ez dena, honen arrazoiak pertsonalak eta sozialak [4], ote diren. Baina arrazoi pertsonalak oso baikorrak izan arren, giza ahalmenik ez badago, -eta hizkuntzaren izakera kontutan harturik are gehiago- erabilerarik ere ez dago.

2.3. Hizkuntza Aukera

Aukera		
Mugagabea	9	1,7
Euskera	338	62,8
Gaztelera	183	34,-
Biak	7	1,3
Beste	1	,2
	538	100,-

Ezagutza eta erabileraren datuak ikusi ondoren hementxe gauza kuriosoa agertzen da, gehienek euskera jotzen dute bere hizkuntzatzat.

Gaztelerak euskeraren erdia baino apur bat gehiago lortzen du.

Eta aipatzeko da "Biak" ideiak %1,3 baino ez duela lortu. Larri sartu barik, hementxe Lambert [5] -en lanak gogoratuko genituzke eta berak Kanadan, komunitate bien alkartasurako hain garrantzitsua jotzen duen jarrera batukor hau, aipatuko.

Aipamenak

Aipatu Euskera		
Ez	390	72,5
Bai	148	27,5
	538	100,-

Aipatu Gaztelera		
Ez	420	78,1
Bai	118	21,9
	538	100,-

Ikusten den legez, euskera gaztelera baino gehiago aipatzen da. Beraz euskera gehiago aukeratzen da eta gehiago aipatzen da.

Pentsatu behar dugu, euskera aukeratu dutenek ezin dutela

aipatu eta, alderantziz, gaztelera aukeratu dutenek ezin dutela gaztelera aipatu. Beraz, euskera aipa dezaketenak 200 pertsona dira (538=osorik, ken 338=euskera aukeratu). Honela, euskera aipa dezaketenen %74-k aipatu egin du.

Alderantziz eginda: gaztelera aipa dezaketenak 355 dira (538, ken 183=gaztelera aukeratu). Hauetatik %33-k bakarrik aipatu du gaztelera.

Orokorrean, eta planteatzea baino ez bada ere, ondoko ideiok aipatuko genituzke:

1.- Euskal hiztunak gazteleradunak baino askoz gitxiago direla.

2.- Euskera oso gitxi erabiltzen dela, komunitate osoan eta baita euskal hiztunen artean ere, batez ere kaleko egoerataz ari bagara.

3.- Euskera dela, gehien aukeratzen den hizkuntza, (euskaldun direnak baino gehiagok). Beraz, gazteleradunek ere euskera aukeratu egiten dute.

4.- Hizkuntza bakarra aukeratzen dela, nahiz eta bizi garen munduan hizkuntza bi agertu(edo, zentzu ezkorrean, bat baino ez: gaztelera).

Hementxe gertatzen den ezpaia ezin dugu, egia esateko, argitu: ¿eskolako lan bat delako agertzen da? ¿Talde ezbardinen arteko kontrakotasuna? ¿Beste giza-bizitzaren antzerkizuna?

Ezin dugu erantzun. Datuak eta sortzen zaizkigun galderak aurkeztu baino ez dugu egiten.

Beraz, ez bakarrik zentzu zabalean, hestuan ere, euskera aukeratzen dutenek, gaztelera, gaztelera aukeratzen dutenek euskera aipatzen duten baino gitxiago aipatzen dute.

Arrazoiak kasu honetan ere ez dakizkigu.

Herria

		%
Erantzunik ez	166	30,9
Euskal herria	162	30,1
Mugagabea	8	1,5
Espaina	128	23,8
Pais Vasco	74	13,8
	538	100,-

Hasteko, ideia asko aipatzen dela esan behar dugu. Hizkuntzaz agertzen zen bikoizketa ez da hemen hainbeste agertzen edo zentzuz aldatuta dago. Zergaitik?

Publiko eta Pribatuetan, barriz, orain arte, kontrako eredua baino ez da agertzen, A eredua, hau da, dana gaztelaniaz. Erantzunak beraz, danak gazteleraz izan daitezela itxaron genezake, baina ez da horrela. Ikastoletakoa, gehien bat, egia bada. Publiko eta Pribatuetan ez da honela gertatu, eta hain batek euskeraz erantzun du. Zelan ulertu behar dugu hau?

2.- **Zonaldeak.** Hiri, tarte eta landetan agertzen den ikastetxe mota bakarra Publikoa da. Landetan ez dago, ez Ikastola, ez Pribaturik eta badakigu, landa dela euskera gehien gorde duen zonaldea. Beraz, barriz galdera: zelan ulertu, ikastetxe motatik aparte, zonaldearen garrantzia euskeraz erantzutean?

3.- **Oinarriak.** Aurrenekoaren ondorio bat, zera da: ehunkoen oinarriak ezbardinak dirala. Ezbardinak kopuruz eta berezitasunez.Hau da, Ikastoletan euskeraz dakitenek, egiten dutenek eta erantzuten dutenek talde bera osatzen dute.

Publikoetan eta Pribatuetan, dakitenak, egiten dutenak eta erantzuten dutenak, 3 talde ezbardinak izan daitezke (eta ba dira) eta gure datuak, dakitenak alde batetik eta bestetik,

erantzuten dutenei buruzkoak dira. Honeri erantsiten badiogu eredu eta zonalde aldagaien ezbardintasuna, errez ikus dezakegu, konparaketak nahiko finak eta kontuz egin behar direla.

Bestaldetik, esan dugun guztiak, ikastetxe mota bakoitzari buruzko ezaugarriak ematen dizkigu.
Aipatutakoa kontutan harturik, datuak azaltzeko ematen ditugun grafiko biak komentatuko ditugu.

Grafiko bakoitzak oinarri bat dauka:

1.- Grafikoan agertzen diren datuen oinarria, ikastetxe mota bakoitzean **euskeraz erantzun dutenak** dira.

Beraz, euskeraz erantzun dutenen artean, etxean euskera gehien erabiltzen dutenak Pribatuetakoak dira, Publikoak erdian eta gitxien Ikastoletakoak.

Kalean barriz, Publikoetakoak dira euskera gehien erabiltzen dutena, Pribatuetakoak erdian eta ikastolak gitxien.

Hau da, euskeraz erantzuten dutenen artean, etxean eta kalean Ikastoletako umeek, beste motetako umeek baino euskera gitxiago erabiltzen dute.

Aldiz, Ikastolak nagusi dira, ikastetxean euskeraz egiteari buruz ari bagara, eta ikusten den legez, gainera, bereziak dira zentzu honetan, umeek, etxean baino euskera gehiago erabiltzen

dutelako.

Publikoetakoek, Pribatuetakoek baino euskera gehiago erabiltzen dute eskolan 7).

Orokorrean, euskera erabiltzen den lekuan ordea, Pribatu eta Publikoetan, 1. Etxea, 2. Eskolan, eta 3. Kalea aipatzen bada, Ikastoletan, 1. Eskola, 2. Etxea, eta 3. Kalea bihurtzen da.

Goazen orain, II. Grafikora.

Hementxe, datuen oinarria, euskeraz egiten badakitela erantzun dutenak dira. Ez da kontutan hartzen euskeraz ala gazteleraz erantzun duten.

Beraz, lehen **erabilera** bazan oinarri, orain **ezagutza** da. Eta hementxe, gauzak aldatu egiten dira neurri baten. Pribatuak dira, dakitenen artean euskera gitxien erabiltzen dutenak, bai etxean zein eskolan eta kalean. Ikastoletakoak, erdian daude kalean erabiltzean eta nagusiak dira eskolan eta etxean.

Publikokoak barriz, nagusi dira kalean eta erdian daude eskolan eta etxean (dana dala Ikastolak eta Publikoak, etxean egiteari buruz oso hurbil daude).

Ikastetxe mota bakoitzean, grafiko biren artean daukon ezbardintasunaren arrazoiak ezin ditugu jakin, nahiz eta eredua,

zonaldea eta ikastetxe beraren berezitasunen garrantzia susmatu. Kontutan hartzekoa da ere, gizartearen imajinen garrantzia. Baina, guzti hori, zelanbait agertu arren, geure lanatik kanpo gelditzen da.

Balioen erdikoak atara ditugu (III grafikoa) grafiko bien arteko harremanak hobeto ikusteko eta hona hemen ondorioak:

Etxeko erabileraren ehunekoak oso antzekoak dira hiru ikastetxe mota ezbardinetan. Hala eta guztiz ere, Publiko eta Pribatuetan, euskaldunak diren umeek, Ikastoletakoek baino gehiago erabiltzen dute euskera etxean, Publikoetakoak gehientxo erabiltzen dutenak izanik.

Eskolan, diferentziak nabariak dira, eta puntu honetan Ikastolak dira nagusi, Publikoak gero eta Pribatuak azkenean.

Kalean barriz, gauzak aldatu egiten dira. Publikoak dira nagusi, argi eta garbi (hau da, Eskola Publikoetako euskaldunek, beste ikastetxe motetako euskaldunek baino gehiago erabiltzen dute euskera kalean).

Ikastolak eta Pribatuak batera aurkitzen dira, Publikoetatik nahiko urrun gainera (20 puntu).

Honek, Ikastolen efektibotasuna zalantzan jar lezake? Gauza finago aztertu beharko litzateke eta guk ezin dugu, oraingoz, galderari erantzun, baina, behar bada, gogoratu beharko genuke, beste askotan esan den bezala, eskolak, **bakarrik**, ezin duela

egoera aldatu.

Behar bada, batzuk Eusko Jaurlaritzak eta Siadekok O.H.O.-k 5garren eta 2garren mailei buruz egindako lana gogoratuko dute hemen. Han, D-ereduko umeek, euskeraz eta gazteleraz oso maila onak lortzen zituzten. A eta B eredukoek, barriz, ez zituzten hain onak lortzen. Baina, kontutan hartu behar da, gauza bat dela hizkuntza ezagutzaren maila neurtzea eta bestea, guztiz ezbardina, hizkuntzaren erabileraz berba egitea. Beste alde batetik, guk hemen azaltzen ditugunak, lorpenak baino abiapuntuak dira eta umeen euskeraren erabilerari buruzko azterketa zehatzagoak egin beharko lirateke halako galderei erantzuteko.

Erabili

Hementxe, gure hizkuntzari buruzko idazlanetan erabili den hizkuntza neurtzen da, eta datuak honela agertzen dira.

Ikastoletan, %89,7-k euskeraz eta %10,3-k gazteleraz. Esan behar da, idazlana egitean, fitxetako euskeraren ehunekoa gitxitu egin dela nahiko, (fitxetan %2,9-k erantzuten zuen gazteleraz).

Publikoetan ere, fitxetan %11,4-k euskeraz egiten bazuen, idazlanetan %6,8-k egiten du euskeraz eta %93,2-k gazteleraz.

Pribatuetan, barriz, gorde egiten da eta fitxetan %13,9-k euskeraz egiten bazuen, idazlanetan %13,5-k egiten du euskeraz,

%86,5 gazteleraz egiten duen bitartean.

Ez dakigu honen arrazoia. Ereduen eraginik ez dagoela kontutan harturik eta, ezagutza/erabilerari buruzko datuak kontutan harturik, kasu bereziak direla pentsa dezakegu.

3.3.- Hizkuntza aukera

Hau da, zein den, umeek bereganatzen duten hizkuntza. Ikastoletan argi dago: %97,1-k euskera aukeratzen du eta beste %2,9 mugagabean agertzen da. Ez dago, beraz, gaztelera edo besterik aukeratzen duen umerik.

Publikoetan, %55,7-k gaztelera aukeratzen du, %37,9-k euskera, %2,7-k mugatu gabe eta, %3,2-k biak aukeratzen ditu.

Ez da ehuneko adierazgarririk, baina, esan behar da, ideia hau, Publikoetan bakarrik agertzen dela eta datu orokorrak komentatzean, aipatu dugu, halako taldeen garrantzia ikerlan eta ikertzaile batzuentzat. Ez bakarrik elebidun, baizik eta hizkuntza guztiak modu bardinean errespetatzen eta tratatzen dituen gizarte bat lortzeko esperantza eskeintzen duten taldeak direlako.

Pribatuetan, %75,3-k euskera aukeratzen du eta %24,3-k gaztelera.

Beraz, pribatuak, puntu honetan, publikoetatik baino Ikastoletatik daude hurbilago.

Honek, aipatutako euskerari buruzko eskola pribatuen berezitasuna baieztatzera edo susmatzera bultzagotzen gaitu.

Hizkuntza aipamenak

Ikastoletan.- %35,3-k gaztelera aipatzen du, %64,7-k ez, eta %2,9-k beste hizkuntzaren bat aipatzen du. Talde honetan, denek aukeratu dute euskera, beraz, ez dago euskera aipatzerik.

Publikoetan.- Hemen, euskera, eta batez ere, gaztelera aukeratu da, eta aipamenak horrelakoak dira:

Euskera aipatu: %44,7-k bai, %55,3-k ez.
Gaztelera aip. : %20,1-k bai, %79,9-k ez.
Besterik aip. : %29,2-k bai, %70,8-k ez.

Ikusten da euskera dala gehien aipatzen dena. Hau normala da, gehien aukeratzen dena gaztelera delako; baina, garrantzitsua da ere, beste hizkuntzen aipamena: %27,2 oso altua da, eta normalean kanpotik etorri direnen seme-alabak dira, gurasoen hizkuntza aipatzen dutenak.

Pribatuetan.- Hemen, gehienak, euskera aukeratu dutela gogoratu egin behar dugu:

Euskera aip.: %80,1-k ez, %19,9-k bai.
Gaztelera aip.: %19,9-k bai, %80,1-k ez (bardin beraz).
Besterik aip: %3,6-k bai, %96,4-k ez.

Azken puntu honetan, bereiztu egiten dira barriz. Euskera eta

gaztelera bardin aipatzen dira, baina, euskera gehiago aukeratzen da. Honek esan gura du, gaztelera aukeratzen dutenek, euskera aukeratzen dutenek baino gehiago aipatzen dutela beste hizkuntza.

Ideia hau orokorra da eta datu orokorrak ikustean agertu da ere, orain, ikusi dugun legez, ikastetxe mota guztietan ere, hau errepika egiten dela.

Herri aukera

Zein dan, hizkuntza aukerari lotuta doan herria (baten bat doanean, jakina).

Ikastoletan, %79,4-k Euskalerria aipatzen du eta %20,6-k ez du aipamenik egiten.

Publikoetan, %39,7-k Espaina aukeratzen du, %15,1-k Pais Vasco eta %11,9-k Euskalerria (%30,1-k ez du aipamenik egiten eta %3,2-k ez du mugatzen).

Zelan ulertu behar da hau? Ezin dugu frogatu baina ez genituzke Pais Vasco eta Euskalerria zenbatuko. Egokiagoa litzateke Pais Vasco eta Espaina zenbatzea kasu honetan.

Euskalerriak, %11,9 aipamen izango luke eta Espaina-Pais Vascok %54,8. Eta, puntu honetan agertzen dana, oso ondo lotzen da, hizkuntzaren aukeran agertzen zenarekin (Publikoetan %55,7-k gaztelera).

Hementxe, geroago sakontzen saiatuko garen ideia bat agertzen da. Umeentzat hizkuntza eta herriaren artean lotura garrantzitsua dagoela eta zentzu honetan, nazionaltasuna eta hizkuntza batera doazela.

Pribatuak, askotan moduan, erdian agertzen dira. Ez erantzunen kopurua handiena da %34,4 eta erantzunak honela banatzen dira; Euskalerria %32,7-k Espaina %16,3-k eta Pais Vasco %16,3-k eta azkenengo bi hauek zenbatuz gero Espaina-Pais Vasco %32,6-k beraz, bardin antzekoak agertzen dira.

Gure ustez, eta hau azterketa gehiago behar duen ideia da, Euskalerria eta euskeraren arteko lotura kasu batzutan argia izan arren, beste talde batentzat, euskera, espainako hizkuntza ere litzateke.

- Aukeraren Imagina

Ikastetxe mota ezbardinen berezitasunak emango ditugu, azkenean iruzkin orokorrak eta grafikoak eskeiniz.

Dena dela, hasi baino arinago, gogoratu egin behar dugu, Ikastolak eta Pribatuek Euskera aukeratu dutela, Publikoek barriz Gaztelera. Beraz, hizkuntza ezbardinei buruz arituko gara.

Ikastolak

"Balioa".- %29,4-k bai sartuta, %11,8-k bai, %58,8-k aipamenik ez. Ez da aipamen ezkorrik agertzen.

"Indarra".- %22,1-k guk egin behar dugula %2,9-k baietaz, %5,8-k ezkor eta %69,1-k aipamenik ez.

"Garrantzia".- %42,6-k bai, %1,5 sartuta, %55,9-k aipamenik ez, ez da aipamen ezkorrik agertzen.

"Zaharra".- %42,6-k baikor, %57,4-k aipamenik ez.

"Gurea".- %39,7-k bai, %60,3-k aipamenik ez.

"Hiztunak".- %38,2-k ez, %61,8-k aipamenik ez. Ez dago baiezkoen aldekorik.

"Funtsioa".- %47,1-k komunikatuko eta identifikatzeko %1,5-k kominikatzeko %51,5-k aipamenik ez.

"Idazleak".- Ez dira aipatzen.

"Zabala".- %2,9-k baietz %2,9-k ezetz, %24,1-k aipamenik ez.

"Aberatsa".- %1,5-k, %98,5-k aipamenik ez.

"Esamesak".- %4,4-k, %95,6-k ez.

"Bat".- %19,1-k batua, %7,4-k euskalkiak, %5,9-k baietz %1,5 ezetz, %66,2-k aipamenik ez.

"Ofiziala".- Ez da aipatzen.

"Berbadunak".- %5,9-k ez sartuta, %94,1-k aipamenik ez.

Gehien aipatzen diren ideiak dira beraz:

1. Funtsioa (%47,1) komunikatzeko eta identifikatzeko.
   Garrantzia (%44,1).
   Zaharra (%42,6).
   Balioa (%42,2).

2. Gurea (%34,7).
   Hiztunak (%38,2).
   Bat(%32,4).
   Indarra (%30,8).

Esan behar da "Balioa"-k, azkenetarikoa izan arren, sarpen handia suposatzen duela %29,4 honela agertzen delako. Egia da ere, hemen agertzen diren ehunekoak aipameniak direla, aipamenaren esanahia kontutan hartu barik, horrela, ideiaren "pisu orokorra" lortzen dugu, baina zehaztasuna galdu egiten dugu neurri baten.

"Idazleak", "Zabala", "Aberatsa", "Esamesak", "Ofiziala", "Berbadunak" ez dira aipatzen.

Pribatuak

"Balioa".- %21,1 Sartuta, %10,4-k bai, %67,7-k aipamenik ez.

"Indarra".- %15,1-k guk egin behar dugula, %4,8-k bai, %3,6-k ezkor, %76,5-k aipamenik ez.

"Garrantzia".- %24,3-k bai, %16-k ez, %74,1-k aipamenik ez. (zelan ulertu aukeratu eta garrantzirik ez izatea?)

"Zaharra".- %42,6 baikor, %57,4-k aipamenik ez.

"Idazleak".- %12,7-k bai, %24-k ez, %84,9-k aipamenik ez.

"Gurea".- %18,7-k bai, %81,3-k aipamenik ez.

"Hiztunak".- %20,3-k ez, %6,8-k bai, %72,9-k aipamenik ez.

"Zabala".- %96-k bai, %1,6-k ez, %88,8-k aipamenik ez.

"Aberatsa".- %6-k bai, %4-k ez, %93,6-k aipamenik ez.

"Esamesak".- %4,8-k bai, %95,2-k ez.

"Funtsioa".- %35,9-k komunikatzeko eta identifikatzeko, 4,8-k komunikatzeko, %59,4-k aipamenik ez.

"Bat".- %18,3-k batua, %4-k euskalkiak, %3,2-k baietz, %2-k ezetz, %72,5-k aipamenik ez.

"Ofiziala".- %7,2-k bai, %92,4-k aipamenik ez, %4-k ez.

"Berbadun".- %1,6 ez sartuta, %98,4-k aipamenik ez.

Talde honetan beraz, "astunen" sailkapena honela litzateke:

"Zaharra" (%42,6).

"Funtsioa" (%40,7).

"Balioa" (%31,5).

"Bat" (%27,5).

"Hiztunak" (%27,1).

"Garrantzia" (%25,9).

"Indarra" (%23,5).

Ikusten da, bada, ikastoletan eta pribatuetan, euskera aukeratu arren, aipatzen diren ideiak ezbardinak direla, edo hobe esanda pisu ezbardina daukatela. Ikusten da ere, Ikastoletan aipamen gehiago egiten dela. Dena dela, "Balio" talde honetan ere, "Sartuta" baloratzen da batez ere (%21,1) hau da; hizkuntzaren "balioa" aipatu dutenek, oso gogor eta bere burua "gaian" ipinita egin dutela.

"Esamesak" "Berbadunak" ez dira aipatzen.

Publikoak

"Balioa".- %23,7 sartuta, %29,7-k baietz, %45,2-k aipamenik ez.

"Indarra".- %16,4-k baietz, %8,7-k guk egin behar %7,6 ezkor, %67,6-k aipamenik ez.

"Garrantzia".- %8,7 sartuta, %30,1-k baietz, %59,8-k aipamenik ez.

"Zaharra".- %38,8-k baietz, %61,2-k aipamenik ez.

"Idazleak".- %5-k bai, %94,5-k aipamenik ez

"Gurea".- %27,9-k baietz, %71,7-k aipamenik ez.

"Hiztunak".- %21,9-k baietz, %6,4-k ezetz, %71,7-k aipamenik ez.

"Zabala".- %21,9-k baietz, %2,3-k ezetz, %75,8-k aipamenik ez.

"Aberatsa".- %16,9-k bai, %82,6-k aipamenik ez.

"Esamesak".- %99,7-k ez.

"Funtsioa".- %27,9-k komunikatzeko eta identifikatzeko, %9,6-k komunikatzeko, %1,4-k identifikatzeko, %61,2-k aipamenik ez.

"Bat".- %11-k euskalkiak, %2,7-k batua, %1,8-k bai, %3,2-k ez, %81,3-k aipamenik ez.

"Ofiziala".- %8,7-k baietz, %1,3-k aipamenik ez.

"Berbadunak".- %6,4-k baietz, % 3,2-k aipamenik ez.

Talde honetan agertzen diren ideia nagusiak dira:

"Balioa" (%54,8).

"Garrantzia" (%39,2).

"Zaharra"/"Funtsioa" (%38,8).


"Indarra" (%32,4).

"Hiztunak" "Gurea" (%27,9).

"Esamesak" ez dira aipatzen.

Barriz hemen, zerrenda ezbardina eta pisu ezbardinak. Aipamenak ez dira oso ugariak talde honetan; aipatzeko, "Balioa"-n sarpena maila altua izan dela (%23,7). Beraz, puntu honetan hiru taldeek bardintsu jokatzen dute, ikastolak gehien sartzen direnak izanik.

Ikus ditzagun datu hauek grafiko baten:


IKASTOLAK
PRIBATUAK
PUBLIKOAK
80
70
60
50
40
30
20
10
HERRIA
AIPAMENA
BALIOA
IRUDIA
GARRANTZIA
ZAHARRA
IRAZLEAK
GUREA
HIZTUNAK
ZABALA
ABERATSA
ESANEAK
FUNTZIOA
BAT
OFIZIALA

Zer esan bada, aukeratutako hizkuntzaren imaginari buruz?

Lehenengoz, gogoratu egingo dugu, ikastoletan esaten dena hizkuntza bakar bati buruz esango dela. Beste ikastetxe motetan aukera nagusi bat egon arren, beste aukera batzukin nahastu egiten da. Beraz, ideietan ere nahasketa hori gertatuko da.

Ikusten dugu ere, aipamen altuenak ikastoletan ematen direla eta bigarrenean Publikoetan.

Nahiko argi ikusten da ere, orokorrean ideia bardinak aipatzen direla, nahiz eta pisu, zentzu eta besteekiko lotura ezbardinak izan.

Horrela, "Herria" gehien aipatzen den ideia da, kasu guztietan baina zentzu ezbardinean. Ikastolek Euskalerria aipatzen dute, Publikoek Espania-Pais Vasco, eta Pribatuek, maila bardinean aukera biak. Hauxe, hizkuntzaren aukerarekin batera irakurriko bagenu, behar bada, Hizkuntza-Herria ideiak lotuta doazela esan ahal izango genuke.

Orokorrean eta hizkuntza aukeraren araberako-talde banaketen azterketa ondino ikusi barik, Ikastoletan Euskera Euskalerria-rekin lotuta badoa, Publikoetan, berriz, Pais Vasco-rekin eta Gaztelera Espainarekin lotuta doazela esango dugu.

Pribatuetan hizkuntza eta herriaren aukerak hain bardinduta egonez, nahiago dugu ezer ez esatea.

"Balioa" ere, denek aipatzen duten ideia da, eta gehienetan nahiko sartuta, beraz, aukeratzen den hizkuntza baliotsua da, kasu guztietan eta edonorentzat.

Publikoetan, dana dala, hizkuntzaren balioa (%53,4) beste ikastetxe motetan baino gehiago aipatzen da.

Zelan ulertu behar da hau? Esan gura du honek, gaztelera baliotsuago agertzen dala?

"Funtzioa" asko aipatzen den beste puntu bat da. Eta hizkuntza komunikazio eta identifikazio tresna bat dela esaten da. Esan ote genezake identifikazio funtzio hau, herriarekin lotuta dagoela?; eta, horrela balitz, zein neurritan?

Ideia hau ikastolek aipatzen dute batez ere, Publikoak eta Pribatuak nahiko bardinduta daudela.

"Garrantzia", "Gurea" eta "Zaharra" ere aipatu egiten dira era berean, Ikastolek gehien eta Pribatuek gitxien, "Zaharra" ez ezik. Hementxe, Pribatuek gorantza egiten dute eta Ikastolekin bat datoz.

Beste puntu bi aipatuko dugu orain:

1.- Aipamen ugari baina zentzu ezbardina.

"Indarra eta "Hiztunak" ideiekin.gertatzen da hau. Zer esan nahi du?

Gaztelera aukeratzen duten ikastetxeek baikor aipatzen dituzte, hau da, gaztelera indartsua da eta hiztun asko dauka, (behar bada honegatik da indartsua).

Euskera aukeratzen dutenek, berriz, ezkor aipatzen dituzte, guk eman behar diogu indarra eta hiztun gitxi dago.

Puntu honetan eta aipamen hain ugari ez bada ere "Bat"-i buruz esango dugu zer edo zer. Ikastoletan eta Pribatuetan "batua" aipatzen bada batez ere, Publikoetan batasuna baina euskalkiak azpimarratzen dira. Ez dugu gaia aztertu, baina aztergai dela uste dugu, gainera, Publikoetan ikusitako berezitasunak kontutan hartuz gero.

2.- Batzuk bai eta besteek aipatzen ez dituztenak. "Zabala" eta "aberatsa" Publikoetan aipatzen dira; pribatuetan gitxi eta ikastoletan ez.

Kasualitatez? Publikoetan gaztelera aukeratzen dute eta ikusi dugun legez gaztelera indartsu eta hiztunekin agertzen da; hauei lotuta ideia bi hauek daude: zabaltasuna, hau da, lurraldeak, eta aberastasunak.

Esango dugu ere, "Idazleak" pribatuetakoek aipatzen dituztela batez ere, eta maila baxuagoan publikoetakoek. Ikastoletan ez da ideia aipatu ere egiten.

Zer esan euskera eta gaztelerari buruz?

Antza den legez, euskera baliotsua da; garrantzitsua guretzat 8) gurea delako, baina, indar eta hiztun gitxikin, zabaltasuna eta aberastasuna aipatu ere ez direla egiten. Geurea eta balioia ezin dira neurtu, beraz euskerari balioa ematen dioten berezitasunak "subjetiboak" bihurtzen dira. (Hemendik ez errazionaltasuna ez zientifikotasuna eta ukatzera zenbat urrats legoke?).

Gaztelera alderantziz, baliotsua da, garrantzitsua ere guretzat, baina arrazoi objetiboak daude, hizkuntza zabala eta hiztun askokoa da, aberatsa, eta hau neurtu ahal da (zabaltasuna eta hiztunak behintzat).

Amaitzeko, hizkuntza bakoitza dago herri bati lotuta. Denentzat bere hizkuntza baliotsua da eta identifikazio funtzioa betetzen du ere, baina, euskerak ez du ez hiztunik ez indarrik. Gaztelerak barriz hiztunak, indarra, zabaltasuna eta aberastasuna du.

- Aukeraren egoera

Hizkuntza zelan dagoen ikusiko dugu orain, eta metodo bardina erabiliko dugu. Hau da, ikastetxe mota bakoitza banan-banan ikusiko dugu, azkenean grafikoa eta iruzkina.

Ikastolak

"Transmizioa".- %32,4-k apurtuta eta berreskuratzen, %2,9-k betidanik datorrela, %2,9-k apurtuta eta %61,8-k aipamenik ez.

"Franco".- %35,3-k erruduna, %64,7-k aipamenik ez.

"Aurrekoak".- %98,5-k aipamenik ez.

"Hizkuntza".- Aipamenik ez.

"Berreskura".- %42,6-k gorantza, %13,2-k beherantza, %5,9 salantzan, %38,2-k aipamenik ez.

"Jaurlaritza".- %5,9 alde, %4,4 kontra, %89,7-k aipamenik ez.

"Ikastolak".- %27,9 alde, %72,1-k aipamenik ez.

"Gu".- %20,6-k errudunak, %13,2-k ez, %66,2-k aipamenik ez.

"Gizartea".- %11,8-k alde, %2,9 -k kontra, %85,3-k aipamenik ez.

"Erdaldunak".- %7,4-k kontra, %2,9-k alde, %98,7-k aipamenik ez.

"Hizkuntza".- Aipamenik ez.

"Madril".- Aipamenik ez (%98,5).

"Maila Bardina".- %39,7-k ezetz, %60,3-k aipamenik ez.

"Borroka".- %42,6 euskeraren alde, %7,4 gazteleraren alde, %50-k aipamenik ez.

"Erabiltzen".- %69,1-k baietz, %30,9-k aipamenik ez.

Ideia nagusiak beraz:

"Erabiltzen" (%60,1).

"Berreskura" (%61,8).

"Borroka" (%50).

"Maila Bardina" (%39,7).

"Transmizioa" (%38,2).

"Franco" (%35,3).

"Gu" (%33,8).

"Aurrekoak", "Hizkuntza", "Madril" ez dira aipatzen.

Ikusten den legez, taldetxo bi agertzen dira. Lehengoan aipamen ugariak dira. Erabileraren garrantzia azpimarratzea da, baina, antza, teorian bakarrik; behintzat, ikastoletako umeen erabilera begiratzen badugu. Beraz, hemen teoria eta ekintzen arteko distantzia agertzen da. Erabiltzen dugun hizkuntza da gure hizkuntza eta aukeratu behar dugunean, euskera aukeratzen dugu, baina gero, berba egin orduko, gazteleraz egiten dugu. Zeintzuk dira atzean dauden arrazoiak?

"Berreskuratzea"-ren indarra aipatzen dugu, baina baikorrak %42,6 dira, besteek edo beherantza doala edo ez dute oso argi ikusten.

"Borroka"-ri buruz aipatu egin behar da %7,4 gaztelerarenalde agertzen dela. Hau nahiko kuriosoa da, alde batetik ez dalako oso logikoa. Hizkuntza bat aukeratu momentu baten eta gero beste baten alde agertu (borrokan daudela aurretik esanda gainera). Baina horrez gain, %5-k sartuta egiten du aukera hori. Ez dakigu zelan azaldu, baina, ikastetxe motak bere garrantzia duela uste dugu. Azken finean, askotan, ikastoletan umeak behartuta ikusten dira euskeraz egitera eta kontra egiten dute (eta ulertzekoa da erabilera eta imagina ikusi ondoren).

Azkenean, trasmizioaren apurketaren errua, lehenengoz "Franco"-ri botatzen diote eta gero "Gu"-ri. Beraz, orokorrean, arrazoi extrapunitiboak intrapunitiboak baino garrantzitsuagoak dira.

Pribatuak

"Transmizioa".- %12 apurtuta eta berreskuratzearen alde, %3,6-k apurtu barik, %3,2 ezkor, %79,7-k aipamenik ez.

"Franco".- %24,7-k errudun, %75,3-k aipamenik ez.

"Aurrekoak".- %99,2 aipamenik ez.

"Hizkuntza".- Aipamenik ez.

"Berreskura".- %30,3 baikor, %7,6 ezkor, %59,8-k aipamenik ez.

"Jaurlaritza".- %8,4-k alde, %91,2-k aipamenik ez.

"Ikastolak".- %13,1-k alde, %86,5-k aipamenik ez.

"Gu".- %8,8-k kontra, %2,8-k alde, %88,4-k aipamenik ez.

"Gizartea".-%2,8-k alde, %96,8-k aipamenik ez.

"Erdaldunak".- %11,2-k kontra, %88-k aipamenik ez.

"Hizkuntza".- Aipamenik ez.

"Madril".- Aipamenik ez.

"Maila bardina".- %20,7-k ezetz, %79,3-k aipamenik ez.

"Borroka".- %19,9 euskeraren alde, %3,6 gaztelieraren alde, %2-k maila bardinean egon behar direla, %33,7-k aipamenik ez.

"Erabilera".- %36,3-k baietz, %63,3-k aipamenik ez.

Talde honetako ideia nagusiak:

"Berreskura" (%40,2).

"Erabiltzen" (%36,7).

"Borroka" (%26,3).

"Franco" (%24,7).

"Aurrekoak", "Hizkuntza", "Gizartea", "Hizkuntza", "Madril" ez dira aipatzen.

Hasteko, talde honek ikastolek baino aipamen gitxiago egiten du, orokorrean, (hizkuntzaren imaginan bardin gertatzen zen).

Jarraitzeko, "Berreskuratze"-ari buruz, %30,2 agertzen da baikor nahiz eta ezkorrak ere egon.

"Borroka"-ri buruz, gazteleraren aldekoak agertzen badira ere, normala da kasu honetan, taldean denetariko aukerak egin direlako. Honek ere, behar bada, azalduko du, neurri baten, ez erantzunen kopurua, gaztelerak ez duelako trasmizio eta apurketa problemarik.

Azkenean, eta intra eta extrapunitibotasunare arazoak aipatu ditugun legez, hementxe, kanpotik datozen erruak aipatu dira gehien, eta Franco hain zuzen ere.

Publikoak

"Transmizioa".- %12,3-k apurtuta eta Berreskuratzearen alde, %7,3-k apurtu barik, %2,3 ezkor, %75,3-k aipamenik ez.

"Franco".- %92,7-k aipamenik ez, 2,7-k errudun, %4,6-k ez

"Aurrekoak".- %96,3-k aipamenik ez.

"Hizkuntza".- Aipamenik ez.

"Berreskura".- %13,2 gorantza, %5 ezkor, %81,7-k aipamenik ez.

"Jaurlaritza".- %97,7-k aipamenik ez.

"Ikastolak".- %9,6-k baietz, %90-k aipamenik ez.

"Gu".- %4,6 alde, %2,3 kontra, %93,2-k aipamenik ez.

"Gizartea".- %95-k aipamenik ez, %5 alde.

"Erdaldunak".- %95,9-k aipamenik ez, %1,4-k alde, %2,7-k kontra.

"Hizkuntza".- Aipamenik ez.

"Madril".- Aipamenik ez.

"Maila bardina".- %24,7-k ez, %1,4-k baietz, %69,9-k aipamenik ez.

"Borroka".- %11,4 euskeraren alde, %4,6 gaztelueraren alde, %2,7 bardintasunaren alde, %80,8-k aipamenik ez.

"Erabiltzen".- %45,2-k baietz, %2,7-k ezetz, %52,1-k aipamenik ez

Goazen bada, aipatuenak ikustera:

"Erabilera".- (%47,9).


"Maila bardina".- (%30,1).

"Trasmizioa".- (%24,7).

"Aurrelkoak", "Hizkuntza", "Jaurlaritza", "Erdaldunak", "Hizkuntza", "Madril" ez dira aipatzen.

Aipamen eza nabaria da. Arrazoia, lehen esan dugun moduan, gazteleraz horrelako problemarik ez duela izan liteke. Dena dela, beste taldeetan gertatzen den moduan, "Erabiltzen" ideia oso aipatua da. Pentsatu egin behar dugu, beraz, harreman honetan: erabilera eta hizkuntzaren aukera eta honi buruz agertzen diren kontraesanak (edo kontraeginak). Gogoratu egin beharko genuke, behar bada, hizkuntzaren ideiari buruz esan duguna.

Baina, datuak komentatu aurretik, ikus ditzagun ikasle mota bakoitzaren grafikoa.


IKASTOLAK
PRIBATUAK
PUBLIKOAK
70
60
50
40
30
20
10
TRASMIZIOA
FRANKO
AURREKOAK
HIZKUNTZA
BARRESKUA
JAURLARITZA
IKASTOLAK
GU
GIZARTEA
ERDAUNAK
HIZKUNTZA
MADRIL
HAILABARDINA
BORROKA
ERABILTZEN.

Grafikoaren iruzkina egingo dugu laburpen gisa. Lehenengoz agertzen dana da, Ikastolek besteek baino aipamen gehiago egiten dutela. Publikoak barriz gitxien egiten dutenak dira.

Dena dela, gauza batzutan adostasun handiagoa lortzen da. Nabariena erabiltzearen ideia da, denak ados eta aipamen kopuru altuak. Askotan esaten bada ere, hizkuntza erabili egiten da eta erabiltzen den neurrian "bizi" da; hizkuntzak ez dira hiltzen, erabiltzen dira ala ez dira erabiltzen. Bestaldetik egunerokotasunak, ohiturak, mugatu egiten gaitu eta bizi duguna da barruratzen duguna 9).

Berreskuratzearen ideia ere agertu egiten da (Publikoetan, logikoa den legez gitxi aipatzen da), eta kontrako eritziak ere izan arren (ikastoletan batez ere), gorantza doan prozeso moduan onartzen da.

Maila ezbardinan daudela eta borrokatzen, agertu egiten dira ere, eta asko gainera. Borroka ideia, dena dela, publikoetan jaitsi egiten da, Ikastoletan oso maila altua lortzen duen bitartean.

Azkenean, arazoaren arrazoiak begiratuz gero, arrazoi nagusia Franco (Publikoek ez dute ia aipatzen) Ikastoletan "Gu" ideiarekin ia parekatuta dator, Publiko eta Pribatuetan barriz, ez da nabarmenki agertzen. Ikastoletan, erdaldunak ere errudun agertzen dira, baina besteek ez dituzte aipatzen. Esan dezakegu beraz, talde hauetan (Pribatu eta Publikoetan batez ere) kanpoko

arrazoiak direla nagusi, arrazoirik agertzen denean; beraz joera extrapunitiboa agertzen da. Ikastoletan parekatuta agertzen dira barriz, eta osagarri intrapunitiboa ere agertzen da, geure errua aitortuz.

Beraz, gaztelera arazo bariko hizkuntza agertzen da. Jendea ez da larrik kezkatzen bere egoeraz, eta, lehen ikusi dugun legez indartsu agertzen da; funtzio guztiak betetzen ditu, nahiz eta, batzutan, zirikatzen dabiltzan igeltxoak aurkitu. Euskera, barriz, funtzio komunikatzaile eta identifikatzaileak ere baditu. Apurtuta egon ondoren, gorantza doan berreskuratzeko prozesuan dago eta gaztelerarekin maila bardinean ez dagoelako, borrokatzen ari da. Eta batzuk, bere alde agertzen dira borroka horretan.

3.4.Hizkuntza aipamena

Aipatzen den hizkuntzari buruz ez da gauza askorik esaten, beraz, zatitu beharrean ideia aipatuenak aurkeztuko ditugu. "Aipatuak" kontsideratzeko, %5 baino aipamen gehiago izan behar dute ideiok.

Ikastolak

Gaztelera da aipatzen duten hizkuntza, beraz, agertzen dena, hizkuntza honi buruz izango da.

"Herria".- %5,9-k Espaina, %94,1-k aipamenik ez.

"Hiztunak".- %19,1-k baietz dio, %80,9-k ez du aipatzen.

Ez da gehiagorik aipatzen, beraz, komentatzeko ere lehen esan duguna; "Herria" eta "Hiztunak" asko eta denek aipatzen dituzte ideiak direla, eta beste ideia batzukin harremanatzen direla normalean. Hauek dira, esate baterako, identitate, indarra, garrantzia.

Pribatuak

Hementxe gaztelera eta euskerari buruz egongo dira aipamenak; gainera, hizkuntza bakoitzak aipamen bardina izan du (%19,9), beraz, biak nahastuta agertuko dira.

"Herria".- %7,2-k Euskal Herria, %5,2-k Espaina.
%5,2-l Pais Vasco, %81,7-k aipamenik ez.

"Balioa".- %3,2-k baietz, %3,2-k ezetz, %93,6-k aipamenik aipamenik ez.

"Garrantzia".- %1,6-k baietz, %4-k ezetz, %94,4-k aipamenik ez.

"Hiztunak".- %7,2-k baietz, %4,4 ezetz, %88,8-k aipamenik ez.

Hauek ideia gehiago aipatzen dute, eta hasieran komentatu duguna bersortu egiten da, hau da, talde honetan erantzunak parekatuak daudela. Hori, berezitasun sozio-demografikoetan hizkuntza ideian agertu da eta hementxe agertzen da barriz.

"Herria" talde bitan banatzen da. "Balioa" eta "Hiztunak" ere bai. Dena dela, honek, behar bada, hizkuntza eta herriaren arteko lotura baieztatzen du. Eta hizkuntzaren imajin indartsua kasu baten, eta ahula bestean, ere bai.

Hau da, ez gure hizkuntzari buruz bakarrik, baizik eta, besteen hizkuntzari buruz, denek antzeko ideiak aipatzen dituzte.

Publikoak

Honek gaztelera aukeratu dute batez ere. Beraz, euskera agertuko dala suposatzen badugu ere, gaztelera ere hortik ibiliko dala pentstu behar dugu, biak dantzan dabiltzalako.

"Herria".- %15,1-k Pais Vasco, %9,6-k Espaina, %4,1-k Euskalerria, %10 mugatu barik, %61,2-k aipamenik ez.

"Balioa".- %14,6-k baietz, %6,8-k ezetz, %78,5-k aipamenik ez.

"Indarra".- %5,6-k baietz, %5,2-k ezetz, %88,6-k aipamenik ez.

"Garrantzia".- %6,8-k baietz, %3,7-k ezetz, %89,5 aipamenik ez.

"Zaharra".- %9,1-k baikor, %90,9-k aipamenik ez.

"Gurea".- %4,6-k ezetz, %2,7-k baietz, %92,7-k aipamenik ez.

"Hiztunak".- %6,8-k ezetz, %2,7-k baietz, %90,4-k aipamenik ez.

"Funtzioa".- %4,1-k komunikatzeko, %2,3-k komunikatzeko eta identifikatzeko, %1,4-k ezertarako ere ez, %91,8-k aipamenik ez.

"Trasmizioa".- %94,5-k aipamenik ez, aipamenak guztiz sakabanatuta daude.

Talde honetan ematen dira, eta diferentzia handiz, ideia kopururik handiena.

Aipatuena "Herria" da, gehien baten Pais Vasco esaten dela. Lehen ikusi dugun legez, ezbardintasun bat dago hemen, euskera aukeratzen dutenek Euskalerriarekin lotzen dute; gaztelera aukeratzen dutenek, berriz, euskera Pais Vasco-rekin lotzen dute. (Gaztelera, kasu guztietan Espainarekin lotzen da).

Dana dala, aipamen baikorrena eta ezkorrena da hau. Baikorrena ideia gehiago aipatzen delako, "Garrantzia", "Balioa", "Funtzioa" (kasu honetan identifikazioaren garrantzia agertzen ez den arren). Baina ezkorrena ere, kasu guzti hauetan aipamen ezkorrak ere ematen direlako; hementxe aipatu da hizkuntza honek ez duela inolako funtziorik.

"Hiztunak", jakina, zentzu ezkorrean agertzen dira nagusi (nahiz eta baikor ere agertu).

Esan ezin duguna da, zergaitik ematen den hau. Benetan euskerari buruz ideia baikorra dagoelako ala talde honetan ere, euskera eta gaztelerari buruzko aipamenak nahastu egiten direlako.

Urrengo grafikoan, hizkuntza aipatuari buruzko ideiak agertzen dira. Aurreko grafikoekin konparatuz gero, esan behar dugun lehenengo gauza da, ikastetxe mota ezbardinen pisua aldatu egin dela. Alde batetik aipamenei buruzko ikastetxe moten garrantzia alderantziz ipintzen delako, bestetik, aipamen maila, dana dala, guztiz txikitxua delako, eta aipatzen diren ideiak oso gitxi direlako.

Aipamen eta ideia gehienek Publikoek egiten dituzte. Aipamenak, gainera, baikorrak dira (orokorrean), indartsua eta garrantzitsua ikusten dute. Denek, Publikoek, Pribatuek eta Ikastolek aipatu dituzten ideiak "Herria" eta "Hizkuntza" izan dira.

"Herria" aipatu arren ikusi dugu adostasunik ez dagoela. Euskaldunek euskera Euskalerriarekin lotuta ikusten dute. Publikoetan, gehien bat, gaztelera aukeratu dutenean, euskera Pais Vasco-rekin lotzen da. Gaztelera, kasu guztietan Espainiarekin. Ideia bera, beraz, baina mugapen ezbardina.

"Hiztunak" denek aipatzen duten bestea da. Aipamen, hizkuntza aukeratuaren zentzuaren kontrakoa da. Hau da, Ikastola eta Pribatuetan, hizkuntza aipatu arren, hiztun ugariak adierazten dira. Publikoetan barriz, hizkuntza aipatuari ez zaio hiztun askorik ikusten.

IKASTOLAK
PRIBATUAK
PUBLIKOAK
50
40
30
20
10
HERRIA
BAJOA
INDARRA
GARRANTZIA
ZAHARRA
GUREA
HIZTUNAK
FUNTZIOA
TRASMIZIOA

3.5.- Laburpen gisara

Atal honen datuak erabiliz, (aukera eta aipamenari buruzkoak) sei grafiko osotu ditugu. Lehenengo hiruretan, baten hizkuntza biei dagozkien aldagi batzuk ipini ditugu (aipatuenak izan direnak gehien bat) eta ikastetxe mota bakoitzari marra bat dagokio.

Beste hiruretan, euskeraren erabilera eta egoerari buruz aritu gara (gaztelerak jakina, goialdean izango zuen marra, denek erabiltzen dutelako eta arazorik ez duelako).

Kasu bitan balioak oso orokorrak izan dira eta oposaketak egin ditugu. Hauek izan dira:


- Bai
- Beti
- Asko
- Gora
- Gaztelera
- Batua
- Handia
- Ez
- Batzutan/Inoiz ez
- Gitxi
- Behera
- Euskera
- Euskalkiak
- Txikia

Bai, Gaztelera...goialdean ipini ditugu, honela menpekotasun soziala grafikoan ere agertzen delako.

Ikastetxe mota batek ez badu ideiaren bat aipatu, ez dugu grafikoan marrarik egin.


EUSKERA/GAZTELERA

IKASTOLAK




EUSKERA/GAZTELERA


PROBATUAK




EUSKERA/GAZTELERA

PUBLIKOAK





EUSKERA
IKASTOLAK
GAZTELERA/GORA/ASKO/
BAI/BATUA/BETI
EUSKALKIAK
EUSKERA/BEKOA/GUTXI/
EZ/APURTU
ETXEAN
ESKOLAN
KALEAN
BAT
TRASMIZIOA
BERRESKURA
MAILA BARDINA
BERROKA
FRANKO
GU

EUSKERA


PRIBATUAK
GAZTELERA/GORA/
ASKO/ BAI/ BATUA/ BETI
EUSKALKIAK
EUSKERA/BEKOA/
GITXI/ EZ/ APURTU
ETXEAN
ESKOLAN
KALEAN
BAT
TRASMIZIOA
BERRESKURA
MAILA BARDINA
BORROKA
FRANKO
GU

PUBLIKOAK

EUSKERA



Gogoratu dugu ere, kasu bietan, erantzun dutenen kopuruak ezbardinak direla. Baten denek erantzuten dute, bestean, ikastetxe mota bakoitzean, euskeraz erantzun dutenak bakarrik.

Hementxe gauzak aldatu egiten dira.

Alde batetik, aipamenei buruzko ikastetxe moten garrantzia alderantziz ipintzen dalako. Bestetik, aipamen maila, dana dala, guztiz txikitxua dalako eta aipatzen diren ideiak oso gutxi direlako.

Aipamen eta ideia gehienak Publikoek egiten dute, eta aipamen baikorra gainera. Orokorrean, indartsua eta garrantzitsua ikusten dute.

Denek, Publikoek, Pribatuek eta Ikastolek aipatu dituzten ideiak "Herria" eta "Hiztunak" izan dira.

"Herria" aipatu arren, ikusi dugu ez dagoela adostasuna. Euskaldunek euskera Euskalerriarekin lotuta ikusten badute, Publikoetan, gehien baten, gaztelera aukeratu dutenean, euskera Pais Vasco-rekin lotzen da. Gaztelera, kasu guztietan Espainarekin.

Beraz, ideia bera baina mugapen ezbardina.

"Hiztunak" bestea da. Denek aipatzen dute, eta hizkuntza aukeratuaren zentzuaren kontra. Hau da, Ikastola eta Pribatuetan, hizkuntza aipatuaren hiztun ugariak aipatzen dira, Publikoetan

barriz, hizkuntza aipatuari ez zaio hiztun askorik ikusten.

Zer da, bada, grafikoak ikusten, esan dezakeguna?

Hasteko, hiru motak, nahiko ezbardinak, agertzen dira; baina, ezin dira eskala baten kokatu. Hau da, mota bakoitzeko erantzunak marra batez batuko bagenitu, marra hoiek, gurutzatu egingo lirateke puntu batzutan.

Halan eta guztiz ere, ikastetxe mota bakoitzak jarrera bat du. Argi dago, esate baterako, Ikastolak, euskeraren alde agertzen direla eta zentzu honetan hain beste bider esan den ideia ezin dugu, honen arabera, ukatu; hau da, Ikastolak, euskaltzaletasunaren sorlekuak direla.

Baina ezin dugu beste aldea ere ukatu. Hau da, Eskola Publikoak espainoltasunaren sorlekuak direla. Eta ez dut uste, ez bata, ez bestea, harritzekoak direnik, kontutan harturik, alde batetik eskola, edozein estatu barruan, estatuaren ideologiaren erakunde bersortzaile dela [10], eta bestetik, baina honekin lotuta, Euskalerrian historian zehar erdal eskolak euskalzaletasunaren kontrako borrokan suposatu duena. Ez dugu, dana dala, historio tenebrosorik imajinatu behar, berezitasun honi lotuta, eskola Publikoetan umen berezitasun sozialak begiratzen baditugu. Grafikoan nabaritu egiten dira alde bi, umeen berezitasun sozialak eta umeen hizkuntzari buruzko eritziak.

Lehengoan, Ikastolak eta Publikoak guztiz kontrakoak dira. Bigarren taldean, bakoitzaren hizkuntzaren pisu eta imajin ezbardina ikus daiteke.

Aipatu dugu, lehen ere, Pribatuak, bereziak direla eta hementxe ikusi egiten da ideia horren neurria. Umeak Euskalerriko gaztelaniadunen seme-alaba gaztelaniadunak dira eta nahasketa hau beste aukera batzutan ere agertzen da. Beste taldeetan, ume gaztelaniadunek gaztelera eta Espaina aukeratzen zuten, euskaldunek barriz, euskera eta Euskalerria. Ume hauek euskera eta Espaina edo Pais Vasco aukeratzen dute eta euskerari buruz, ikastoletakoen irudi bardina daukate.

Zelan izendatuko dugu talde hau? nolabaiteko hibridotasunaren edo arrazoipenaren ondorioa ala etsipenaren ondorioa?

Azkenengo hiru grafikoak

Hementxe, euskeraz erantzun dutenak agertzen dira eta beste puntu edo zati bi agertzen dira, bat erabilera eta bestea egoera.

Esan behar dugu lehenengo gauza zera da, orokorrean "hizkuntza"-ri buruz ezbardintasunak agertzen badira, euskarari buruz, adostasuna dagoela (ideia hau, lehen ere aipatu dugu, ikus 1. taula). Erabilerari buruz, "euskaldunenak", eskola Publikoetako euskaldunak dira, eta hau kuriosoa da, eskola publikoen espainoltasuna kontutan harturik. Baina hemen,

zonaldeak kontutan hartu behar direla uste dugu, landetan publikorik baino ez dagoela pentsaturik.

Bestaldetik, Ikastolak oso eragin txikia daukate kaleko erabileran eta hauxe behar bada VII. Grafikoan esan dugunaren kontran doa, baina, esan dugu jadanik eskolak bakarrik ezin duela inguru soziala aldatu. Honekin batera beste gauza bat esango genuke, aldaketa linguistiko bat lortzeko, aldaketaren beharraren kontzientzia eta gogoa izan behar dela. Jarrera onik ez badago ez da aldaketarik izango. Baina, jarrera bakarrik ez da nahikoa. Hau da, kontzientzia eta gogoa beharrezkoak dira baina ez nahikoak. Inguruak ere baikorra izan behar du [11] ; baldintza materialik ez bada sortzen ez da erabilerarik lortuko, (eta erabilera barik ez dago hizkuntzarik [12]).

4.- Hizkuntza aukera eta erabileraren araberako datuak

Jakin nahi izan dugu zeintzuk izan diren Gaztelera eta Euskerari buruzko irudiak Gaztelaniadun eta Euskaldunen artean.

Horretarako, talde ezbardinak eratu ditugu.

I.- Gaztelaniadunak. Hau da, **Gaztelania aukeratzen dutenak.** Hemen ez dago problemarik, ume guztiek gaztelera ondo menperatzen dutelako.

II.- Euskaldunak. Hobe esanda, **Euskera aukeratzen dutenak.** Hementxe arazoak sortu dira, hain zuzen ere, euskeraren ezagutza ez dalako homogeneoa eta ezagutzak ez duelako erabilera suposatzen, beraz, erabaki bat hartu behar izan dugu eta honela egin dugu.

II.1.- Euskera dakitenak eta etxean erabiltzen dutenak baina kalean ez.

II.2.- Euskera kalean erabiltzen dutenak.

II.3.- Euskera eskolan bakarrik erabiltzen dutenak.

II.4.- Euskera jakinik eta euskera aukeraturik, gazteleraz erantzun dutenak.

II.5.- Euskera ez dakitenak baina ikasten eta aukeratzen dutenak.

Honela Euskera aukeratu dutenak hartu ditugu.

III.- Talde berezi bat aukeratu genuen hasieran, Euskera ikasten ez dabilen jendea.

Hau oso talde ezbardina gertatu zan eta datuak aipatzen baditugu ere, ez dugu azkenean kontutan izan.

Hurrengo orrialdetan talde hauen datuak eskeintzen ditugu.

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Kopurua		183	34,-	63	11,7	60	11,1	38	7.-	150	27,8	60		21	
Pribatuak		3		2		1		1		3		3-47		1-1	
Publikoak		3		3		1		2		3		2-8		1-1	
Ikastolak		-		-		3		3		-		2-5		3-19	
Eredua		A		A		A-D		A-D		A		A-D		A-D	
Maila	1	137	74,9	62	98,4	51	85,-	15	39,5	117	78,-	31	51,7	19	90,5
	2	29	15,8	--	--	3	5,-	10	26,3	18	12,-	26	43,3	1	4,8
	3	17	9,3	1	1,6	6	10,-	13	34,2	15	10,-	3	5,-	1	4,8
Hizkuntza	1	14	7,7	--	--	--	--	--	--	14	9,3	--	--	--	--
	2	137	74,9	60	95,2	25	41,7	13	34,2	116	77,3	30	50,-	18	85,7
	3	21	11,5	2	3,2	26	43,3	2	5,3	8	5,3	3	5,-	1	4,8
	4	2	1,1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	1	4,8
	5	9	4,9	1	1,6	9	15,-	23	60,5	12	8,-	27	45,-	1	4,8
Ama	1	14	7,7	5	7,9	39	65,-	30	78,9	20	13,3	33	55,-	4	19,-
	2	42	23,-	17	27,-	18	30,-	7	18,4	67	44,7	20	33,3	15	71,4
	3	27	69,4	41	65,-	3	5,-	1	2,6	63	42,-	7	11,7	2	9,5
Aita	1	16	8,7	1	1,6	40	66,7	29	76,3	25	16,7	36	60,-	3	14,3
	2	45	24,6	15	23,8	14	23,3	7	18,4	69	46,0	14	23,3	16	76,2
	3	122	66,7	47	74,6	6	10,-	2	5,3	56	37,3	10	16,7	2	9,6

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Amahiz.	1	15	8,2	4	6,3	46	76,7	29	76,3	14	9,3	37	61,7	8	38,1
	2	164	89,6	59	93,7	11	18,3	4	10,5	132	88,-	22	36,7	12	57,1
	3	--	--	--	--	1	1,7	3	7,9	--	--	--	--	1	4,8
	4	4	2,2	--	--	2	3,3	2	5,3	4	2,7	1	1,7	--	--
Aitahiz.	1	15	8,2	1	1,6	46	76,7	29	76,3	25	16,7	36	60,-	5	23,8
	2	168	91,8	62	98,4	12	20,-	9	23,7	121	80,7	23	38,3	14	66,7
	3	--	--	--	--	1	1,7	--	--	--	--	--	--	--	--
	4	--	--	--	--	1	1,7	--	--	4	2,4	1	1,7	2	9,5
Aitalana	0	7	3,8	2	3,2	3	5,-	2	5,3	5	3,3	5	8,3	--	--
	1	6	3,3	1	1,6	3	5,-	2	5,3	4	2,7	1	1,7	3	14,3
	2	3	1.6	--	--	2	3,3	3	7,9	9	6,-	4	6,7	1	4,8
	3	56	30,6	15	23,8	12	20,-	14	36,8	18	12,-	16	26,7	1	4,8
	4	66	36,1	30	47,6	22	36,7	4	10,5	57	38,-	17	28,3	7	33,3
	5	16	8,7	7	11,1	4	6,7	4	10,5	18	12,-	7	11,7	5	23,8
	6	12	6,6	5	7,9	7	11,7	4	10,5	24	16,-	2	3,3	2	9,5
	7	7	3,8	1	1,6	3	5,-	4	10,5	7	4,7	3	5,-	1	4,8
	8	7	3,8	2	3,2	4	6,7	1	2,6	7	4,7	5	8,3	1	4,8
	9	3	1,6	--	--	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Egunkaria	0	16	8,7	5	7,9	2	3,3	1	2,6	6	4,-	1	1,7	--	--
	1	13	7,1	--	--	36	60.-	11	28,9	20	13,3	17	28,3	11	52,4
	2	2	1,1	1	1,6	3	5,-	4	10,5	--	--	1	1,7	3	14,3
	3	114	62,3	40	63,5	7	11,7	8	21,1	85	56,7	21	35,-	4	19,-
	4	5	2,7	3	4,8	--	--	--	--	--	--	1	1,7	--	--
	5	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	6	20	10,9	7	11,1	12	20,-	13	34,2	27	18,-	19	31,7	3	14,3
	7	13	7,1	7	11,1	--	--	1	2,6	12	8,-	--	--	--	--
Sexua	1	58	31,7	21	33,3	20	33,3	17	44,7	63	42,-	21	35,.	7	33,3
	2	125	68,3	42	66,7	40	66,7	21	55,3	87	58,-	39	65,-	14	66,7
Adina	1	57	31,1	22	34,9	24	40,-	17	44,7	50	33,3	17	28,3	13	61,7
	2	95	51,9	30	47,6	24	40,-	17	44,7	80	53,3	34	56,7	7	33,3
	3	31	16,9	11	17,5	12	20,-	4	10,5	20	13,3	9	15,-	1	4,8
Jatorria	1	23	12,6	1	1,6	36	60,-	25	65,8	16	10,7	33	55,-	5	23,8
	2	147	80,3	61	96,8	24	40,-	13	34,2	127	84,7	27	45,-	16	76,2
	3	13	7,1	1	1,6	-	--	--	--	7	4,7	--	--	--	--

		Gâztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Euskera	1	5	2,7	--	--	50	83,3	33	86,8	--	--	42	70,-	6	28,6
	2	5	2,7	--	--	10	16,7	5	13,2	--	--	18	30,-	15	71,4
	3	124	67,8	--	--	--	--	--	--	150	100,-	--	--	--	--
	4	49	27,8	63	100	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Etxean	0	3	1,6	--	--	--	--	4	10,5	--	--	1	1,7	21	100,-
	1	2	1,1	--	--	60	100,-	34	89,5	--	--	2	3,3	--	--
	2	178	97,3	63	100,-	--	--	--	---	150	100,-	57	95,-	--	--
Eskolan	0	4	2,2	--	--	21	35,-	1	2,6	--	--	--	--	1	4,8
	1	--	--	--	--	39	65,-	37	97,4	--	--	3	5.-	20	95,2
	2	179	97,8	63	100,-	--	--	--	--	150	100,-	57	95,-	--	--
Kalean	0	4	2,2	--	--	60	100,-	--	--	--	--	3	5,-	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	38	100,-	--	--	--	--	--	--
	2	179	97,8	63	100,-	--	--	--	--	150	100,-	57	95,-	--	--
Erantzuna	1	3	1,6	--	--	58	96,7	38	100,-	1	,7	--	--	20	95,2
	2	180	98,4	63	100,-	2	3,3	--	--	149	99,3	60	100,-	1	4,8
Erabili	1	--	--	--	--	50	83,3	32	84,2	1	,7	11	18,3	16	76,2
	2	183	100,-	63	100,-	10	16,7	6	15,8	149	99,3	49	81,7	5	23,8

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Aip. Euskera	0	42	23,-	28	44,4	60	100,-	38	100,-	148	98,7	60	100,-	21	100,-
	1	141	77,-	35	55,6	--	--	--	--	2	1,3	--	--	--	--
Aip. Gazte.	0	182	99,5	57	90,5	39	65,-	24	63,2	110	73,3	39	65,-	12	57,1
	1	1	,5	6	9,5	21	35,-	14	36,8	40	26,7	21	35,-	9	42,9
Aip.Beste	0	126	68,9	40	63,5	60	100,-	36	94,7	143	95,3	57	95,-	20	95,2
	1	57	31,1	23	36,5	--	--	2	5,3	7	4,7	3	5,-	1	4,8
Herriak	0	52	28,4	13	20,6	12	20,-	6	15,8	54	36,-	24	40.-	4	19,-
	1	--	--	1	1,6	46	76,7	30	78,9	46	30,7	24	40,-	16	76,2
	2	3	1,6	1	1,6	--	--	--	--	2	1,3	--	--	--	--
	3	125	68,3	41	65,1	--	--	--	--	2	1,3	--	--	--	--
	4	3	1,6	7	11,1	2	3,3	2	5,3	46	30,7	12	20-	1	4,8
Herri aip.	0	88	48,1	31	49,2	57	95,-	34	89,5	133	88,7	52	86,7	21	100,-
	1	22	12,-	2	3,2	--	--	--	--	4	2,7	--	--	--	--
	2	18	9,8	6	9,5	--	--	--	--	4	2,7	1	1,7	--	--
	3	10	5,5	8	12,7	3	5.-	4	10,5	9	6,-	7	11,7	--	--
	4	45	24,6	16	25,4	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Auk. balio	0	120	65,6	48	76,2	27	45,-	14	36,8	84	56,-	36	60,-	15	71,4
	1	85	19,1	10	15,9	6	10,-	6	15,8	32	21,3	10	16,7	4	19,-
	2	28	15,3	5	7,9	27	45,-	18	47,4	29	19,3	14	23,3	2	9,5
	3	--	--	--	--	--	--	--	--	4	2,7	--	--	--	--
	4	--	--	--	--	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--
Aip. balio	0	138	75,4	57	90,5	58	96,7	34	89,5	144	96,2	58	96,7	20	95,2
	1	25	13,7	4	6,3	1	1,7	2	5,3	3	2,-	2	3,3	--	--
	2	2	1,1	--	--	--	--	--	--	2	1,3	--	--	1	4,8
	3	13	7,1	2	3,2	1	1,7	2	5,3	--	--	--	--	--	--
	4	5	2,7	--	--	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--
Auk.Indarr.	0	155	84,7	57	90,5	41	68,3	18	47,4	102	68.-	37	61,7	14	66,7
	1	27	14,8	3	4,8	3	5,-	7	18,4	9	6,-	3	5,-	--	--
	2	1	,5	1	1,6	10	16,7	12	31,6	24	16,-	16	26,7	7	33,3
	3	--	--	1	1,6	4	6,7	--	--	7	4,7	2	3,3	--	--
	4	--	--	1	1,6	2	3,3	1	2,6	8	5,3	2	3,3	--	--
Garrantzia	0	132	72,1	50	79,4	27	45,-	15	39,5	103	68,7	43	71,7	16	76,2
	1	46	25,1	13	20,6	30	50,-	19	50,-	36	24,7	16	26,7	5	23,8
	2	4	2,2	--	--	3	5,-	4	10,5	5	3,3	1	1,7	--	--
	3	1	,5	--	--	--	--	--	--	5	3,3	--	--	--	--
	4	--	--	--	--	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Zaharra	0	148	80,9	46	73,-	41	68,3	18	47,4	56	37,3	23	38.3	12	57,1
	1	35	19,1	17	27,-	19	31,7	20	52,6	94	62,7	37	61,7	9	42,9
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Idazleak	0	172	94	60	95,2	60	100	36	94,7	121	80,7	53	88,3	21	100.-
	1	11	6	2	3,2	--	--	2	5,3	24	16.-	6	10	--	--
	2	--	--	1	1,6	--	--	--	--	5	3,3	1	1,7	--	--
Gurea	0	158	86,3	61	96,8	26	43,3	13	34,2	128	85,3	42	70,-	16	76,2
	1	25	13,7	2	3,2	34	56,7	25	65,8	21	14,-	18	30,-	5	23,8
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--
HIztunak	0	137	74,9	45	71,4	45	75,-	24	63,2	107	71,3	34	56,7	11	52,4
	1	46	25,1	15	23,8	1	1,7	2	5,3	12	8.-	2	3,3	--	--
	2	--	--	3	4,8	14	23,3	12	31,6	31	20,7	24	40.-	10	47,6
Zabala	0	117	63,9	39	61,9	57	95,-	35	92,1	143	95,3	57	95,-	20	95,2
	1	66	36,1	24	38,1	1	1,7	1	2,6	3	2,-	1	1,7	1	4,8
	2	--	--	--	--	2	3,3	2	5,3	4	2,7	2	3,3	--	--

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Aberatsa	0	145	79,2	41	65,1	60	100.-	36	94,7	143	95,3	56	93,3	20	95,2
	1	37	20,2	21	33,3	--	--	2	5,3	7	4,7	4	6,7	1	4,8
	2	1	,5	1	1,6	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Esamesak	0	181	98,9	62	98,4	59	98,3	36	94,7	142	94,7	54	90,-	19	90,5
	1	2	1,1	1	1,6	1	1,7	2	5,3	8	5,3	6	10,-	2	9,5
Funtzioa	0	120	65,6	40	63,5	19	31,7	18	47,4	97	64,7	34	56,7	13	61,9
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	25	13,7	10	15,9	1	1,7	--	--	2	1,3	3	5,-	--	--
	3	--	--	--	--	--	--	--	--	2	1,3	--	--	--	--
	4	38	20,8	13	20,6	40	66,7	20	52,6	49	32,7	23	38,3	8	38,1
Bat	0	177	96,7	59	93,7	40	66,7	20	52,6	90	60,-	40	66,7	15	71,4
	1	2	1,1	--	--	4	6,7	2	5,3	6	4,-	1	1,7	1	4,8
	2	3	1,6	3	4,8	8	13,3	6	15,8	13	8,7	4	6,7	2	9,5
	3	--	--	1	1,6	6	10,-	8	21,1	35	23,3	13	21,7	3	14,3
	4	1	,5	--	--	2	3,3	2	5,3	6	4,-	2	3,3	--	--
Ofiziala	0	160	87,4	54	85,7	60	100,-	38	100,-	139	92,7	56	93,3	21	100,-
	1	23	12,6	9	14,3	--	--	--	--	10	6,7	4	6,7	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	3	--	--	--	--	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--
Berbadunak	0	176	96,2	62	98,4	58	96,7	32	84,2	146	97,3	58	96,7	19	90,5
	1	7	3,8	1	1,6	--	--	2	5,3	--	--	--	--	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	3	7,9	1	,7	--	--	1	4,8
	3	--	--	--	--	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--
	4	--	--	--	--	2	3,3	1	2,6	2	1,3	2	3,3	1	4,8

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Aip. Indarra	0	166	90,7	62	98,4	58	96,7	31	81,6	147	98,-	60	100.-	20	95,2
	1	1	,5	--	--	1	1,7	7	18,4	3	2.-	--	--	1	4,8
	2	2	1,1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	3	7	3,8	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	4	7	3,8	1	1,6	1	1,7	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Garrantz.	0	156	85,2	61	96,8	59	98,3	36	94,7	146	97,3	59	98,3	21	100,-
	1	12	6,6	1	1,6	--	--	1	2,6	2	1,3	--	--	--	--
	2	1	,5	--	--	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--
	3	10	5,5	1	1,6	1	1,7	1	2,6	1	,7	1	1,7	--	--
	4	4	2,2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Zaharra	0	156	85,2	56	88,9	58	96,7	38	100,-	149	99,3	59	98,3	21	100,-
	1	27	14,8	7	11,1	2	3,3	--	--	1	,7	1	1,7	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Idazle	0	178	97,3	63	100,-	60	100.-	38	100,-	148	98,7	60	100,-	21	100,-
	1	4	2,2	--	--	--	--	--	--	2	1,3	--	--	--	--
	2	1	,5	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Gurea	0	175	95,6	63	100,-	59	98,3	29	76,3	146	97,3	60	100,-	20	95,2
	1	8	4,4	--	--	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--
	2	--	--	--	--	1	1,7	9	23,7	3	2,-	--	--	1	4,8
Aip. Hiztunak	0	156	85,2	54	85,7	51	85,-	34	89,5	139	92,7	53	88,3	16	76,2
	1	2	1,1	2	3,2	9	15,-	4	10,5	11	7,3	7	11,7	5	23,8
	2	25	13,7	7	11,1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Zabala	0	177	96,7	62	98,4	60	100.-	38	100.-	146	97,3	59	98,3	21	100,-
	1	1	,5	--	--	--	--	--	--	3	2,-	1	1,7	--	--
	2	5	2,7	1	1,6	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Aip. Aberatsa	0	181	98,9	63	100,-	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	1	,5	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	1	,5	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Esamesak	0	176	96,2	61	96,8	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	7	3,8	2	3,2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Funtzioa	0	169	92,3	58	92,1	60	100,-	37	97,4	146	97,3	60	100,-	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	4	2,2	1	1,6	--	--	1	2,6	3	2,-	--	--	--	--
	3	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	4	7	3,8	4	6,3	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--
	5	3	1,6	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Bat	0	168	91,8	60	95,2	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	3	1,6	2	3,2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	3	5	2,7	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	4	7	3,8	1	1,6	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Aip. Ofiziala	0	182	99,5	61	96,8	60	100.-	38	100,-	148	98,7	55	91,7	21	100,-
	1	--	--	1	1,6	--	--	--	--	2	1,3	5	8,3	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	- -	--	--
	3	1	,5	1	1,6	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Berbaduna	0	180	98,4	62	98,4	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	1	,5	1	1,6	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	3	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	4	2	1,1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Auk. Trasmizioa	0	174	95,1	59	93,7	40	66,7	22	57,9	95	63,3	45	75,-	12	57,1
	1	5	2,7	--	--	5	8,3	5	13,2	8	5,3	3	5,-	1	4,8
	2	--	--	--	--	1	1,7	1	2,6	6	4,-	1	1,7	1	4,8
	3	1	,5	4	6,3	13	21,7	10	26,3	32	21,3	10	16,7	6	28,6
	4	3	1,6	--	--	1	1,7	--	--	3	2,-	1	1,7	--	--
	5	--	--	--	--	--	--	--	--	6	4,-	--	--	1	4,8
Apurk. Franco	0	183	100.-	60	95,2	45	75,-	30	78,9	100	66,7	41	68,3	15	71,4
	1	--	--	3	4,8	15	25,-	7	18,4	44	29,3	18	30,-	5	23,8
	2	--	--	--	--	--	--	1	2,6	6	4,-	1	1,7	1	4,8

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Aurrekoak	0	182	99,5	63	100,-	59	98,3	34	89,5	147	98,-	59	98,3	20	95,2
	1	1	,5	--	--	1	1,7	4	10,5	3	2,-	1	1,7	1	4,8
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Hizkuntza	0	183	100,-	63	100,-	60	100,-	38	100,-	149	99,3	59	98,3	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	1	,7	1	1,7	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Berreskura	0	182	99,5	60	95,2	25	41,7	17	44,7	73	48,7	27	45,-	10	47,6
	1	1	,5	3	4,8	20	33,3	14	36,8	67	44,7	21	35,-	8	38,1
	2	--	--	--	--	9	15,-	4	10,5	6	4,-	9	15,-	3	14,3
	3	--	--	--	--	6	10,-	3	7,9	4	2,7	3	5,-	--	--
Jaurlaritza	0	182	99,5	62	98,4	53	88,3	35	92,1	133	88,7	56	93,3	20	95,2
	1	--	--	1	1,6	4	6,7	2	5,3	17	11,3	4	6,7	1	4,8
	2	1	,5	--	--	3	5,-	1	2,6	--	--	--	--	--	--
Ikastolak	0	182	99,5	61	96,8	47	78,3	27	71,7	121	80,7	45	75,-	17	81,-
	1	1	,5	2	3,2	13	21,7	9	23,7	29	19,3	15	25,-	4	19,-
	2	--	--	--	--	--	--	2	5,3	--	--	--	--	--	--

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Gu	0	183	100,-	61	96,8	42	70,-	21	55,3	142	94,7	46	76,7	12	57,1
	1	--	--	2	3,2	6	10,-	7	18,4	4	2,7	3	5,-	4	19,-
	2	--	--	--	--	12	20,-	10	26,3	4	2,7	11	18,3	5	23,8
Gizartea	0	183	100,-	63	100,-	53	88,3	32	84,2	140	93,3	55	91,7	20	95,2
	1	--	--	--	--	6	10,-	5	13,2	10	6,7	5	8,3	--	--
	2	--	--	--	--	1	1,7	1	2,6	--	--	--	--	1	4,8
Erdaldunak	0	182	99,5	63	100,-	45	75,-	34	89,5	140	93,3	45	75,-	19	90,5
	1	--	--	--	--	2	3,3	1	2,6	1	,7	2	3,3	1	4,8
	2	1	,5	--	--	13	21,7	3	7,9	9	6,-	13	21,7	1	4,8
Hizkuntza	0	183	100,-	63	100,-	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Madril	0	183	100,-	63	100,-	60	100,-	37	97,4	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	1	2,6	--	--	--	--	--	--

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Aip. Trasmizio	0	168	91,8	60	95,2	60	100,-	38	100,-	149	99,3	60	100,-	21	100,-
	1	3	1,6	2	3,2	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--
	2	4	2,2	1	1,6	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	3	3	1,6	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	4	2	1,1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	5	3	1,6	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Franko	0	173	94,5	61	96,8	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	10	5,5	2	3,2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Aurrekoak	0	183	100,-	63	100,-	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Hizkuntza	0	183	100,-	63	100,-	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Aip. Berreskura	0	163	89,1	60	95,2	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	15	8,2	3	4,8	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	4	2,2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	3	1	,5	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Jaurlaritza	0	179	97,8	63	100,-	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	4	2,2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	—	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Ikastolak	0	175	95,6	59	93,7	60	100,-	37	97,4	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	8	4,4	4	6,3	--	--	1	2,6	--	--	--	--	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Gu	0	183	100,-	63	100,-	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Gizartea	0	181	98,9	63	100,-	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	2	1,1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Aip. Erdaldunak	0	182	99,5	63	100,-	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	1	,5	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Hizkuntza	0	183	100,-	63	100,-	60	100,-	38	100.-	150	100,-	60	100.-	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Aip. Madril	0	183	100,-	63	100,-	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Maila bardina	0	147	80,3	61	96,8	38	63,3	20	52,6	114	76,-	41	68,3	12	57,1
	1	2	1,1	--	--	1	1,7	--	--	--	--	--	--	--	--
	2	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
	3	33	18,-	2	3,2	21	35,-	11	28,9	36	24,-	19	31,7	8	38,1
	4	1	,5	--	--	--	--	7	18,4	--	--	--	--	1	4,8

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Borroka	0	158	86,3	61	96,8	31	51,7	16	42,1	119	79,3	42	70.-	9	42,9
	1	14	7,7	--	--	1	1,7	--	--	1	,7	--	--	--	--
	2	2	1,1	--	--	2	3,3	--	--	--	--	--	--	1	4,8
	3	1	,5	1	1,6	26	43,3	14	36,8	26	17,3	17	28,3	10	47,6
	4	--	--	--	--	--	--	8	21,1	--	--	--	--	1	4,8
	5	6	3,3	1	1,6	--	--	--	--	3	2,-	1	1,7	--	--
	6	2	1,1	--	--	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--
Erabiltzen	0	90	49,2	53	84,1	16	26,7	13	34,2	114	76,-	34	56,7	8	38,1
	1	92	50,3	10	15,9	44	73,3	25	65,8	32	21,3	26	43,3	12	57,1
	2	1	,5	--	--	--	--	--	--	4	2,7	--	--	1	4,8
Ez irakatzia	0	181	98,9	63	100,-	60	100,-	38	100,-	148	98,7	60	100,-	20	95,2
	1	2	1,1	--	--	--	--	--	--	2	1,3	--	--	1	4,8
Zaila	0	182	99,5	63	100,-	60	100,-	38	100,-	148	98,7	60	100,-	20	95,2
	1	1	,5	--	--	--	--	--	--	2	1,3	--	--	1	4,8
Ezina	0	183	100,-	63	100,-	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100.-	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

		Gaztelera	%	Euskerarik ez	%	Euskera etxean	%	Euskera kalean	%	Euskera ikasten	%	Gaztelianaz erantzun	%	Ikastolan	%
Eskolan ez	0	183	100,-	63	100,-	60	100,-	38	100,-	149	99,3	60	100,-	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--
Inork ez	0	183	100,-	63	100,-	60	100,-	38	100,-	149	99,3	60	100,-	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--
Ez merezi	0	182	99,5	63	100,-	60	100,-	38	100,-	149	99,3	60	100,-	21	100,-
	1	1	,5	--	--	--	--	--	--	1	,7	--	--	--	--
Inposatu ez	0	179	97,8	63	100,-	57	95,-	38	100,-	142	94,7	60	100.-	21	100,-
	1	4	2,2	--	--	3	5,-	--	--	8	5,3	--	--	--	--
Alferrak	0	183	100,-	63	100,-	60	100,-	38	100,-	150	100,-	60	100,-	21	100,-
	1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Datu asko dira danak batera aztertzeko. Beraz, metodoren bat bilatu beharko dugu. Zatitzea da, gure ustez, errezena, hau da:

4.1.- Datu soziodemografikoak.

4.2.- Hizkuntzaren aukera.

- Aipamenak
- Herria
- Imajina
- Egoera

4.3.- Hizkuntzaren aipamena.

- Herria
- Imajina
- Egoera

Honela, erreztu egiten dugun bitartean, hizkuntzaren aukera eta aipamenaren arteko konparaketa egitea posiblea da. Esan egin behar da ere, eskema hau posiblea den neurrian jarraituko dugula, (gaztelerazen erabilerak esate baterako, ez du problemarik sortzen eta ez dugu neurtu).

4.1.- Datu soziodemografikoak

Hasteko, Gaztelera aukeratu dutenak 183 izan dira, kopuru osoaren %34-a. Talde honetan, bigarren taldeko batzuk sortzen dira. Euskera ikasten ez dutenak 63 izan dira, kopuru osoaren %11,7; talde honen aukeraketaren arrazoia zera izan da: euskerarekin loturarik ez daukatenak, jarrera bardina dute ala ez? (euskerarekin loturaren bat daukatenekin konparaturik). Beste aldetik, Euskera aukeratzen dutenen artean, etxean egiten dutenak (eta ez kalean) 60 izan dira, hau da %11,1, eta kalean ere euskeraz egiten dutenak (puntu honetan ez da eskatu etxean ez egiterik) 38 izan dira, %7. Ikusten den legez, oso zenbaki urria, baina euskeraren erabileraren maila horrelakoa bada (holako adinerko umeen artean behintzat), guk ezin dugu hori konpondu. Dena dela, kopuruaren gitxitasun hau kontutan hartu behar izango da.

Ikastetxean bakarrik egiten dutenak 21 dira, %3,9, eta euskeraz jakinda, gazteleraz erantzuten dutenak 60, hau da %11,1.

Azkenean, euskera aukeratu dutenak baina ez dakitenak, ikasten ari direnak, 150 izan dira %27,8 kopuru osoan beraz.

Herriko maila edo zonaldea begiratzen badugu, talde guztietan hiritarrak nagusi dira, baina, kalean egiten dutenen artean datuak nahiko "orekatuak" daude, %39,5 hiritara %26,3 tartekoa %34,2 landakoa, beraz, tartekoak eta landakoak zenbatuz gero %39,5 hiritarrak eta %60,5 besteak; zenbaketa hau posiblea

dela uste dugu biztanlegoa eta Bizkaiko hiri-egitura kontutan harturik [13]. Orduan, talde honetan besteetan ematen den alderantzizko egoera izango litzateke.

Hizkuntza maila. Gaztelaniadun diren hiru taldeak (Gaztelera aukeratzen dutenak Ikasten ez dutenak eta Ikasten dutenak) 2. mailatan daude, hau da %20 tik 40 erako euskaldunak diren lekutan aurkitzen dira.

Etxean egiten dutenak 3garren (%43,3) eta 2garren (%41,7) mailatan daude, %20 tik-60 erako bitartean beraz.

Kalean euskeraz egiten dutenak (%60,5), euskeraren 5garren mailan daude (gogoratu hauxe dala talde honetan tartekoak eta landak zenbatzearen erresultadoa) hau da %80tik-100 erako bitartean. Beste %34,2 aurkitzen da - talde honetan- 2garren mailan (%20tik-40era).

Ikastetxean egiten dutenak ere 2garren mailan aurkitzen dira: ere, euskaldunak %20-40 direnean, beraz, eta Gazteleraz erantzuten dutenetatik, %50 2garren mailan dago (%20-40 euskaldunak) eta %45 5garren mailan (%80-100 euskaldunak).

Gurasoen jatorria

Gaztelera aukeratzen dutenek eta ikasten ez dutenek gurasoak kanpotarrak dituzte. Etxean zein kalean, euskeraz egiten

dutenen gurasoak eta gazteleraz erantzuten dutenenak Euskalerriko alde euskaldunetan jaio dira. Euskera aukeratzen eta ikasten ari direnak erdian daude, guraso gehienak Euskalerriko alde ez euskaldunetan jaio dira, baina kanpotarrak ere badira (%42 amak, %37,3 aitak). Ikastetxean bakarrik euskeraz egiten dutenenak, gehien baten (%76,2) Euskalerriko alde ez euskaldunetakoak dira, Euskalerritik kanpokoak oso gitxi izanik. (%9,5 ama zein aita).

Gurasoen hizkuntza

Hemen ez dago salantzarik, gaztelera aukeratzen dutenek, euskeraz ikasten ez dutenek, eta euskera aukeratuta ez dakitenek, gurasoak gaztelaniadunak dituzte.

Kalean zein etxean egiten dutenen gurasoak, barriz, euskaldunak dira.

Esango dugu ere, euskera ikasten ez dutenen taldean ez dela euskera ikasten dabilen gurasorik agertzen. Beste taldeetan, gitxi badira ere, baten bat egon arren.

Gazteleraz erantzuten dutenak eta ikastetxean egiten dutenenak, gitxi gora behera, erdian aurkitzen dira.

Gazteleraz erantzuten dutenenak euskaldunak dira (%60) baina gaztelaniadunen kopurua ere nahikotxua da (%37). Ikastolan egiten

dutenen artean alderantziz gertatzen da, amen %56,7 eta aiten %66,7 gaztelaniadunak dira, euskaldunak %38 amen artean eta %23,8 aiten artean delarik.

Aitaren lana

Kalean euskeraz egiten dutenen artean, kualifikatu gabeko langileak nagusi diren bitartean, beste guztietan, enplegatuak dira nagusi.

Ikasten ari direnek gorantza egiten dute eta bulegoetako eta erdi mailako langileen ehuneko handiena dutenak dira.

Kalean euskeraz egiten dutenek, beste aldetik, dispertsio handiena dute, goi mailako arduradunenganako helduz, baina zenbakia ez da honelako baieztapen zihurra egiteko egokia, beraz, aipatu baino ez dugu egiten.

Kasu bardinean dago ikastolan egiten dutenen taldea; hemen, bulegoetan jende kopururik haundiena agertzen bada ere (%23,8), talde honetan jende gitxi agertzen da, holako susmoren bat baieztatzeko.

Egunkaria

Hementxe, ikastetxe moten azterketan ikusi dugu moduan, diferentziak nabarmenak dira.

Gaztelera aukeratzen dutenek, gaztelaniadun egunkariak irakurtzen dituzte (%72,1) eta ez-irakurleen zenbakirik handiena dute (%8,7). Euskera ikasten ez dutenen artean ez-irakurleen kopurua %7,8-koa da eta gaztelaniadun egunkariena %79,4.

Euskera aukeratu eta ikasten dutenek ere, gaztelaniadun egunkariak irakurtzen dituzte (%64,7) eta ez du egunkaririk irakurtzen %4-batek.

Euskaldunen artean egunkari euskaldunak agertzen dira. Kalean egiten dutenek etxean egiten dutenek baino egunkari gaztelaniadun gehiago irakurtzen dute. Hona hemen kaleko datuak: %73,6-k egunkari euskaldunak irakurtzen du, %23,7-k gaztelaniadunak eta %2,6-k ez du egunkaririk irakurtzen.

Etxekoak: %85-k egunkari euskaldunak eta %11,7-k gaztelanidunak (%3,3-k bat ere ez).

Ikastolan egiten dutenek, egunkari euskaldunak irakurtzen dituzte (%81,-) eta ez da hemen egunkaririk irakurtzen ez duen inor agertzen.

Gazteleraz erantzuten dutenek ere, egunkari euskaldunak irakurtzen dituzte (%61,1), gaztelaniadunak (%36,7) eta %1,7-k ez du egunkaririk irakurtzen.

Sexua

Kasu guztietan mutilak dira nagusi, baina hau ez da harritzekoa, lagin nagusian gertatu den sexu-arteko harremana ikusita.

Adina

Ez dakigu hau azaltzen, baina argi dago Ikastoletan egiten dutenak gazteenak direla, %61,9, 13 urtetakoak.

Etxean eta kalean egiten dutenak 13-14 urtetakoak dira. (Etxekoak %40 kasu bietan eta kalekoak %44,7 kasu bietan ere bai). Gaztelera aukeratzen dutenak, euskera ikasten ez dutenak, eta ikasten dutenak eta Gazteleraz erantzuten dutenak 14 urtekoak dira gehien bat.

Aipatuko dugu ere, Etxean egiten dutenen artean ematen dala, 15 eta gehiagoko jendea (%20).

Umeen jatorria

Esan egin behar da, ume gehienak Euskalerrian jaio direla kasu guztietan baina ezbardintasun bi daude:

1.- Euskeraz egiten dutenak, gehienak alde euskaldunetan jaioak dira (Ikastoletan egiten dutenak ez ezik). Besteak Euskalerriko alde ez euskaldunetan.

2.- Euskeraz egiten dutenen artean ez da Euskalerritik kanpo jaio den umerik agertzen 14).

Umeen Euskera

Euskeraz egiten dutenek eta gazteleraz erantzuten dutenek etxean ikasi dute. Gaztelera aukeratu dutenen %67,8 euskera ikasten ari da, talde honetan etxeko euskaldunak %2,7 dira eta eskolan ikasi eta dakitenak beste %2,7.

Ikastolan bakarrik egiten dutenek, ikastolan ikasi dute (%71,4).

Beste talde bitan datuak definizioz emanda daude, ikasten ez dutenak (%100) eta, euskera aukeratu arren, ikasten ari direnak (%100).

Laburtuz

Honaino datu soziodemografikoen aurkezpena. Gauzak argitzeko eta orain arte egin dugun moduan, grafikoak eskeiniko ditugu, datu guztiak batera eta errezago ager daitezen.


Aurreko grafikoetan egin dugun bezala, datu orokorrak izango dira eta gehiengoak aipatuko ditugu, zehaztasun gehiago izateko, datuen taulak daude eta.


Zer esan grafiko eta ataltxo hauei buruz?


Lehenengoz, Gaztelera aukeratzen dutenak eta kalean euskeraz egiten dutenak, oso talde ezbardinak direla, datu soziodemografikoetan behintzat. Etxean egiten dutenak, puntu batzutan, nahastu egiten dira gaztelaniadunekin eta beste batzutan,kaleko euskaldunekin batera doaz.

Ikasten ari direnak, erdian egon arren, antza handiagoa daukate gaztelaniadunekin.


Ikastolan bakarrik egiten dutenek, euskera ikasten ari direnen berezitasunak dauzkate, bi ez ezik, egunkaria (Ikastoletakoek egunkari euskaldunak irakurtzen dituzte) eta umeen hizkuntza (ikasi egin dute jadanik).


GAZTELERA
GOIKOA / HIRI GAZTELERA
KUALIFIKATUAK TARTEKOAK
KUALIFIKATUGABEAK HERRI / EUSKERA
MAILA
HIZKUNTZA
GURASO JATORRIA
GURASO HIZKUNTZA
AITA LANA
EGUNKARIA
UMEEN JATORRIA
UMEEN HIZKUNTZA



EUSKERARIK EZ
GOIKOA / HIRI GAZTELERA
KUALIFIKATUAK TARTEKOAK
KUALIFIKATUGABEAK HERRI / EUSKERA
MAILA
HIZKUNTZA
GURASO JATORRIA
GURASO HIZKUNTZA
AITA LANA
EGUNKARIA
UMEEN JATORRIA
UMEEN HIZKUNTZA


KALEAN
GOIKOA / HIRI GAZTELERA
KUALIFIKATUAK TARTEKOAK
KUALIFIKATUGABEAK HERRI / EUSKERA
15
MAILA
HIZKUNTZA
GURASO JATORRIA
GURASO HIZKUNTZA
AITA LANA
EGUNKARIA
UMEEN JATORRIA
UMEEN HIZKUNTZA


ETXEAN




IKASTEN



IKASTOLAN



GAZTELERAZ


GOIKOA / HIRI
GAZTELERA
KUALIFIKATUAK
TARTEKOAK
KUALIFIKATUGABEAK
HERRI / EUSKERA
MAILA
HIZKUNTZA
GURASO JATORRIA
GURASO HIZKUNTZA
AITA LANA
EGUNKARIA
UMEEN JATORRIA
UMEEN HIZKUNTZA

Bestaldetik, gazteleraz erantzun dutenek etxean egiten dutenen berezitasunak dituzte.

Datu hauek aztertzen, gauza batetaz konturatu gara. Euskalerrikoak izan arren, euskeraz ez dakitenen artean, euskera eta gaztelera aukeratzen dutenen gurasoak ez dira bardianak.

Euskera aukeratzen duten gaztelaniadunen gurasoak ere Euskalerrikoak dira, aldiz, gaztelera aukeratzen dutenenak Euskalerritik kanpokoak dira. Honek integrazio mailaren ideiaren bat eskeintzen digu?

Gainera, euskaldun aktiboen gurasoak ez bakarrik Euskalerrian, baizik eta, alde euskaldunetan jaioak dira eta euskeraz badakite gehienetan. Beraz, zein neurritan nahasten dira talde biak? (puntu honetan behar bada interesgarria litzateke ikastetxe pribatuei buruz esandakoa aurreko atalean).

Galdetzekoa da hemen, zein neurritan ikastolan bakarrik euskeraz egiten duen umea euskaldun aktiboa denetz. Guk behintzat ez dugu horrela jo.

Gazteleraz erantzun dutenak barriz, ez dugu jakin aktiboak direnentz. Kanpoan itxiko ditugu, beraz, komentario hauetan.

Bestaldetik, eman dezagun bigarren belaunaldian baino, hirugarrenean hasten direla umeak euskaldunekin bat izaten. Baina, zein mailatan? Euskera mailan behintzat, ez da komunitatel6)

aktibora pasatzeko aukerarik ikusten.

Eta hementxe beste ideia bat sartu behar dugu (edo bersartu): baldintza edo inguru materiala. Esan dugu jadanik, euskeraz egiteko inguru egoki bat behar dela, eta hementxe ideia bi aipatuko ditugu:

1.- Hiztunen kopurua garrantzitsua dela zein izango den erabiliko den hizkuntza ebatzitzeko (geurelako hizkuntza nahasketa edo gura bada "diglosiko" kasuetan behintzat [17]).

2.- Euskaldun gehienak hirietan bizi dira, baina, euskeraz herrietan egiten da [18].

Hau da, Euskalerrian askotan esan den moduan, ez dago euskaldun hiztun elebakarrik. Beraz euskaldun batek gaztelaniadun elebakar batekin elkartzen denean, gaztelaniaz egingo du. Ideia honetan finkatuta eta biztalengoaren egituraketa kontutan izanik ez da zaila ulertzea, hirietan euskeraz egiteko osibilitateak oso eskasak direla. Baina, bigarren ideiak adierazten digun moduan ere, euskaldun gehienak hirietan bizi dira; Beraz, euskaldun gehienentzat euskeraz egitea oso zaila bihurtzen da [19] eta ondorioz, integratzen diren edo gura diren ume ez euskaldunentzat logikoena gaztelaraz egitea da, orokorrean esanda, euskeraz egin gura arren ez dutelako euskeraz egiteko posibilitaterik.

Dena dela, honek ez du, euskaldun egile eta gaztelania

aukeratzaileen arteko etena gainditzen. Baina gero ikusiko ditugu hizkuntzari buruzko eritziak. Eta honela, zer noraino ezbardintasuna agertzen den ezagutzeko posibilitate bat izango dugu.

Beste galdera bat agertzen zaigu ere: badago hizkuntzaren eta ikastetxe moten arteko harremanik?

Aurreko datuekin ondoko taulak osotu ditugu:

2garren taula. Ikastetxe motak eta hizkuntza aukera. Umeen kopurua.

	Gaztel.	Eusk. ez	Etxean	Kalean	Ikasten	Ikasto.	Gatz.
Ikastola	—	—	31	14	--	19	5
Pribatua	61	5	23	11	103	1	47
Publikoa	122	58	6	13	47	1	8
	183	63	60	38	150	21	60

3garrena. Lagin osoan (538) datu hauen ehunekoa.

	Gaztel.	Eusk. ez	Etxean	Kalean	Ikast.	Ikasto.	Gatz.
Ikastola	--	--	5,8	2,6	--	3,5	,9
Pribatua	11,3	,9	4,3	2,-	19,1	,2	8,7
Publikoa	22,7	10,8	1,1	2,4	8,7	,2	1,5

4garrena. Ikastetxe moten kopuruaren araberako ehunekoa.

	Gaztel.	Eusk. ez	Etxean	Kalean	Ikast.	Ikasto.	Gatz.
Ikastola 68	--	--	45,6	20,6	--	27,9	7,3
Pribatua 251	24,3	2,-	9,2	4,4	41,-	,4	18,7
Publikoa 219	55,7	26,5	2,7	6,-	21,5	,4	3,6

5garrena. Gaztelaniadun (349) eta euskaldunen (189).

	Gaztel. (349)	Eus. ez (349)	Etxean (189)	Kalean (189)	Ikast. (349)	Ikasto. (189)	Gaztz. (189)
Ikastola	--	--	16,4	7,4	--	10,-	2,6
Pribatua	17,5	1,4	12,2	5,8	30,-	,5	24,9
Publikoa	35,-	16,6	3,2	6,9	13,5	,5	4,2

Lagin osoan (538) egindako ehuneakoa.

	Aukera Gaztelera	Aukera Euskera
Ikastola	--	12,8
Pribatua	11,3	34,3
Publikoa	22,7	13,9

(Hementxe ez dugu kontutan hartzen, euskera ikasten ez dutenak, %11,7 izan arren, bere barruan hizkuntza-aukera ezbardinak emanten direlako).

Euskera aukeratzen dutenen taldean, banaketak egitean, pertsona gehiago agertzen dira kontrolatu barik.

Ikastetxe moten kopuruaren araberako ehunekoa.

	Aukera Gaztelera	Aukera Euskera
Ikastola	—	100,-
Pribatua	24,3	75,7
Publikoa	55,7	44,3

Hementxe, orain arte ikusitako ikastetxe moten berezitasunak kontutan izanik, zera ikusten dugu:

Ikastolen eta Publikoen arteko ezbardintasuna bersortu egiten dela, Ikastoletako inork ez du Gaztelera aukeratzen eta Publikoetako erdiak baino gehiago gaztelera aukeratzen du. Publikoetan ere euskera ikasten ez dutenen kopururik handiena emanten da.

Grafikoak konparatuz, zera esango genuke, Ikastolen marra, etxean (eta ez kalean) euskeraz egiten dutenen marrarekin bardindu egiten dela (bestaldetik etxean egiten dutenenak eta gazteleraz erantzuten dutenenak antzekoak dira ere bai).

Pribatuak eta euskera jakin barik ikasten eta aukeratzen eta ikastoletan bakarrik egiten dutenen marrak ere bardin antzekoak

direla. Eta azkenez, Publikoetan eta Gaztelaniadunen marrak ere antzekoak direla. Publikoetako marra hasieran apur bat bajutxuagoa bada ere, landa zonaldean dagoen ikastetxe mota bakarra bera dela gogoratu behar dugu eta honek, erdia ateratzean bere eragina dauka.

Bestetik, taula honen arabera, Ikastolak dira, kalean eta etxean, euskeraz egiten dutenen kopururik handiena daukatenak.

Zelan ulertzen da hau, eskola publikoetako umeak, ume euskaldunenak direla esan badugu?

Oinarriak ezbardinak direlako. Hau da, orokorrean, ikastetxe motak hartzen baditugu, hiru moten artean, ikastoletan agertzen da euskaldunen kopururik handiena, baina euskaldunen kopuru osoa hartu ezkero, publikoetan dauden euskaldunak dira euskera gehien erabiltzen dutenak.

Gogoratzen dugu, ikastolak hirigunetan daudela gehien bat eta euskera eguneroko bizitan erabiltzen dutenak herrietakoak direla. Beraz, lehen esan duguna moldatzen "Ikastoletako guztiak euskaldunak badira gehien bat euskera Publikoetakoek erabiltzen dute" (Eta hementxe hizkuntzaren erabilera eta egitura sozioekonomikoaren arteko harremanak agertzen dira barriz).

4.- Hizkuntzaren aukera

Orain hizkuntzaren aukera aztertuko dugu.

Ez dugu azterketa honetan erabilera sartu arrazoi errez bategaitik, gaztelera aukeratzen denean argi dazo zer den erabiltzen dena, eta euskera aukeratzen denean, taldeen eraketa, erabileraren arabera eginda dagoenez ez genukelako ezer berririk eskeiniko.

Azterketa, zati bitan banatuko da 20):

A.- **Gaztelera aukeratu dutenak.**

B.- **Euskera aukeratu dutenak, eta hementxe, erabili ditugun bost taldeak.**

Eta zati bakoitzean kontutan hartuko ditugu aipatzen diren kategoriak eta aipatzen ez direnak. Azkenean, denen arteko ezbardintasunak eta bardintasunak jakin ahal izateko.

A.- Gaztelera aukeratu dutenak

Denek gazteleraz erantzun dutela esanda, aipamenak aztertuko ditugu.

- **Aipamenak**

Hau da, aukeratu duenaren aparte, zeintzuk dira aipatu dituen beste hizkuntzak? Gaztelera aukeratu dutenek beraz, euskera edo besteren bat aipa ditzakete.

Talde honetan %77-k aipatu du euskera eta beste %31,1-ek besteren bat (aipamenak ez du zenbaki mugarik).

- **Herria**

Zein den aukeratutako hizkuntzarekin batera doan herria. Joatekotan, jakina.

%68,3-k Espaina aukeratu du, inork ez du Euskalerria esan eta %1,6-k Pais Vasco aipatu du.

Imagina

Balioa.- %19,1-k baietz dio eta %15,3-k sartuta: beraz, orokorrean %34,4, balio baikorra aipatzen du.

Indarra.- %14,8-k baietz esaten du. %84,7-k ez du ideia hau aipatzen.

Garrantzia.- %25,1-k baietz eta %72,1-k ez du aipatzen.

Zaharra.- %19,1-k baietz, %80,9-k aipamenik ez.

Idazleak.- %6-k baietz, %94-k aipamenik ez.

Gurea.- %13,7-k baietz, %86,3-k aipamenik ez.

Hiztunak.- %25,1-k baietz, %74,9-k aipamenik ez.

Zabala.- %36,1-k baietz, %63,9-k aipamenik ez.

Aberatsa.- %20,2-k baietz, %79,2-k aipamenik ez.

Funtsioa.- %20,8-k komunikatzeko eta identifikatzeko, %13,7-k komunikatzeko, %65,6-k aipamenik ez.

Ofiziala.- %12,6-k baietz, %87,4-k aipamenik ez.

"Esamesak", "Batasuna" eta "Berbadunak" ez dira ia aipatzen. Ikusten den legez, ez dago ideia ezkorrik baina ez dago ere aipamen askorik, talde honetan ideia aipatuenak hauek izan dira.

Zabala:%36,1.

Balioa:%34,4.

Hiztunak/Garrantzia:%25,1.

Ikusten da, barriz, erabileraren garrantzia, gaztelerarenen garrantzirik handiena Hiztunengan eta Zabaltasunean datzala.

Talde honetan "gure hizkuntza erabiltzen duguna da" ideia, %50,3-k aipatu du.

Bestetik %20 en inguruan, Funtzioa (komunikatzeko eta identifikatzeko %20,8), Aberatsa %20,2 eta zaharra %19,1, agertzen dira.

Aberatsa ere, zabaltasunarekin eta hiztunekin doan ideia da?

A.- Euskera aukeratzen dutenak

Taldeka aztertuko ditugu. Lehengo, euskera aukeraturik gaztelaniadunak direnak.

Gaztelaniadunak

Hementxe ere, denek gazteleraz erantzun dute (batek izan ezik).

- Aipamenak

%27,7-k gazteleraz aipatu du eta %4,7-k besteren bat. Ikusten den legez, gaztelera aukeratu dutenek euskera aipatu dute, euskera aukeratu dutenek gaztelera aipatu duten baino gehiago.

- **Herria.**- %30,7-k Euskalerria eta %30,7-k Pais Vasco, %36-k aipamenik ez duen bitartean. Beraz, talde honetan ez dago tendentzia nagusi bat, aldiz guztiz bardinak dira.

- **Imagina.-**

Balioa.- %21,3-k baietz, %19,3-k sartuta, %3,4-k ezetz eta %56-k aipamenik ez.

Talde honetan balioaren aipamen ezkor bakarra agertzen da, zelan ulertu behar da, aukeratzen den hizkuntzak balio ezkor izatea?

Indarra.- %16-k guk egin behar dugula, beste %10-k ezetz eta %6-k baietz.

Garrantzia.- %27,3-k baietz, %4-k ezetz.

Zaharra.- %62,7-k baikor baietz, %37,3-k aipamenik ez.

Idazleak.- %16-k baietz, %3,3-k ezetz, %80,7-k aipamenik ez.

Gurea.- %14-k baietz, %85,3-k aipamenik ez.

Hiztunak.- %20,7-k ezetz, %8-k baietz, %71,3-k aipamenik ez.

Zabala.- 95,3-k aipamenik ez.

Aberatsa.-%95,3-k aipamenik ez.

Esamesak.- %94,7-k aipamenik ez.

Funtzioa.- %32,7-k komunikatzeko eta identifikatzeko, %64,7-k aipamenik ez.

Bat.- %23,3 "batua"ren alde, %8,7 euskalkien alde, %4-k baietz, %4-k ezetz, %60-k aipamenik ez.

Ofiziala.- %92,7-k aipamenik ez, %6,7-k baietz.

Berbadun.- %97,3-k aipamenik ez.

Talde honetan, aipagarriena aipamen ezkorrak dira, gazteleraren aldekoek ez dute inolako aipamen ezkorrik egin.

Beste aldetik, ez-erantzunen kopuruak nahiko bardinak izan dira talde bietan.

Ikus dezagun bada, talde honen euskerari buruzko imagina.

Ideia aipatuenak:

Zaharra (%62,7).

Funtzioa (%32,7. Komunikatzeko eta identifikatzeko).

Garrantzia (%27,3).

Batua (%23,3).

Balioa (%21,3).

Hiztunak (%-20,7 -hau da, ezkor-).

Aipatu ez direnak, "Zabala", "Aberatsa", "Esamesak", "Ofiziala", "Berbadunak" dira.

Beraz, Gaztelaniadunentzat zen gauzarik garrantzitsuena, "Zabaltasuna" (%36,1) hain zuzen ere, ez da talde honetan aipatzen. Aldiz, beraientzat balio gitxiko ideia bat, "zahartasuna" (%19,1) hauentzat garrantzitsuena bihurtzen da (%62,7).

"Garrantzia"-ri buruz nahiko parean daude, gaztelaniadunentzat %25,1, hauentzat %27,3 (baina batzuentzat garrantzi gabekoa).

"Balio"-ak diferentzia nahiko lortzen du %34,4 gaztelaniadunentzat, %21,3 hauentzat.

Eta azkenean, hain garrantzitsua ikusi dugun "Hiztunen"

ideia, %25,1 batetik, %20,7 batera doa, hau da, antzeko neurria baina kontrako zentzuan.

Beraz, euskera aukeratzen duten hauentzat, euskera da hizkuntza zaharra [21], komunikatzeko eta identifikatzeko balio duena eta (ala "baina"?) hiztun gitxikoa.

Etxean egiten dutenak

Honi %83,3-k euskeraz erantzun du.

- Aipamenak

%35-k aipatzen du gaztelera, beraz, hemen ere, gaztelieraren aipamenak euskeraren baino urriagoak dira.

Ez dago beste hizkuntzarik aipatzen duen inor.

- Herria

%76,7-k Euskalerria eta %20-k aipamenik ez (%3,3-k Pais Vasco).

Hementxe beraz, alde batetik gaztelera aukeratu duten eta euskera aukeratu dutenen gaztelaniadunekiko ezbardintasuna ikusten da.

- Imagina

Balioa.- %45 sartuta, %10-k baietz, %45-k aipamenik ez, ez dago aipamen ezkorrik.

Indarra.- %16,7 guk egin behar dugula, %5-k baietz, %10-k ezetz. %68,3 aipamenik ez.

Garrantzia.- %55-k baietz, %45-k aipamenik ez.

Zaharra.- %31,7-k baietz, %68,3-k aipamenik ez.

Idazleak.- Aipamenik ez.

Gurea. %56,7-k baietz, %43,3-k aipamenik ez.

Hiztunak.- % 23,3 ezetz, %75-k aipamenik ez.

Zabala.- Aipamenik ez.

Aberatsa.- Aipamenik ez.

Esamesak.- Aipamenik ez.

Funtzioa.- %66,7-k komunikatzeko eta identifikatzeko.

Bat.- %13,3 euskalkien alde, %10 "batua"-ren alde, %6,7-k baietz, %66,7-k aipamenik ez.

Ofiziala.- Aipamenik ez.

Berbadun.- Aipamenik ez.

Talde honetan, beraz, aurretik ikusitako biekin konparatuta ezbardintasunak argi agertzen dira.

Hauek dira ideia aipatuenak:

Funtzioa (%66,7-k komunikatzeko eta identifikatzeko).

Gurea (%56,7).

Garrantzia/Balioa (%55).

Balioaren ideian sarpena aipatu egin behar oso altua delako (%45).

Bigarren maila baten gelditzen dira:

Zaharra (%31,7).

Bat (%30).

Hiztunak (%-23,3) Puntu honetan ere ezezko erantzunak agertu dira.

Azkenean, ez dira aipatzen:

Idazleak, Zabala, Aberatsa, Esamesak.

Talde honetan beraz, hizkuntza balio subjetibo handikoa da, hauentzat hizkuntzak funtzio garrantzitsua dauka, Gurea da eta Balio handikoa. Esan egin behar da ere, hiztunen arazoa agertu egiten dela berriz eta gaztelera aukeratzen dutenentzat hain garrantzitsua den zabaltasuna, ez dala talde honetan aipatzen.

Esatekoa da, orobat, talde honetan erantzunen kopurua besteetan baino handiagoa dela, eta ez dela hizkuntzaren ideia

ezkorrik agertzen.

Kalean egiten dutenak

Hauek ere euskeraz erantzuten dute.

-Aipamenak

%36,8-k gaztelera aipatzen du eta %5,3-k besteren bat.

-Herria

%78,9-k Euskalerria, %5,3-k Pais Vasco.

- Imagina

Balioa.- %47,4 sartuta, %15,8-k baietz. %36,8-k aipamenik ez, ez dago aipamen ezkorrik.

Indarra.- %31-k guk egin behar dugula, % 18,4-k baietz, %47,4-k aipamenik ez.

Garrantzia.- %60,5-k baietz, %39,5-k aipamenik ez.

Zaharra.- %52,6-k baietz, %47,4-k aipamenik ez.

Idazleak.- %94,7-k aipamenik ez.

Gurea.- %65,8-k baietz, %34,2-k erantzunik ez.

Hiztunak.- %31,6-k ezetz, %5,3-k baietz, %63,2-k aipamenik ez.

Zabal.- %92,1-k aipamenik ez.

Aberatsa.- %94,7-k aipamenik ez.

Esamesak.- %94,7-k aipamenik ez.

Funtsioa.- %52,6-k komunikatzeko eta identifikatzeko, %47,4-k aipamenik ez.

Bat.- %21,1 "batua"-ren alde, %15,8 euskalkien alde, %5,3-k baietz, %52,6-k aipamenik ez.

Ofiziala.- Aipamenik ez.

Berbadunak.- %84,2-k aipamenik ez, baietz %13,2-k.

Ikus ditzagun bada zeintzuk izan diren ideia aipatuenak:

Gurea (%65,8).

Balioa (%63,2) Honetan sartuta agertzen da %47,4.

Garrantzia (60,5).

Zaharra/Funtzioa (%52,6) (komunikatzeko eta identifikatzeko).

Bigarren maila baten gelditzen dira:

Bat. (%42,2 osorik).

Hiztunak (%31,6).

Ez dira aipatzen: Idazleak, Zabala, Aberatsa, Esamesak, Ofiziala.

Zer esan, bada, talde honen hizkuntzaren imajinari buruz?

Gauzarik garrantzitsuena, guretzat, talde honetan jendea oso sartuta dagoela da. Erantzunen kopurua oso handia da eta ez dago inolako aipamen ezkorrik. Kuriosoa da ere, gehien erabiltzen dutenen artean hiztunen hutsunerik handiena sentitzea (%31,7). Bestaldetik, daukaten imajina, ideia nagusietan zertxobait ezbardintzen bada etxean erabiltzen duen taldearengandik, orokorrean antzekoa da.

Hauentzat hizkuntzaren garrantzia "gurea" izatean datza, balio handikotzat dute (sartuta dagoen kopururik handiena hemen agertzen da) eta zaharra izateari eta duen funtzioari garrantzi handia ematen diote.

Gainera, etxean egiten dutenekin batera datoz aipatzen ez diren ideietan.

Aipatzekoa da ere, talde honek "Indarra"-ri buruz aipamen baikorrena egiten duela, %18,4-k baietz esanez.

Ikastolan egiten dutenak22)

Gehien baten euskeraz erantzuten dute (%76,2).

- Aipamenak

%42,9-k gaztelera aipatzen du eta %4,8-k besteren bat.

- Herria

%76,2-k Euskalerria.

- **Imagina**

Balioa.- %19-k baietz, %9,5 sartuta, %71,4-k aipamenik ez.

Indarra.- %33,3-k guk egin behar dugula, %66,7-k aipamenik ez.

Garrantzia.- %23,8-k baietz, %76,2-k aipamenik ez.

Zaharra.- %42,9-k baikor, %57,1 aipamenik ez.

Idazleak.- Ez dira aipatzen.

Gurea.- %23,8-k baietz, %76,2-k aipamenik ez.

Hiztunak.- %47,6-k ezetz, %52,4-k aipamenik ez.

Zabal.- %4,8-k baietz, %95,2-k aipamenik ez.

Aberatsa.- %4,8-k baietz, %95,2-k aipamenik ez.

Esamesak.- %9,5-k bai, %90,5-k ez.

Funtzioa.- %38,1-k komunikatzeko eta identifikatzeko, %61,9 aipamenik ez.

Bat.- %14,3 batuaren alde, %9,5 euskalkien alde, %4,8-k bat dala eta %71,4-k aipamenik ez.

Ofiziala.- Aipamenik ez.

Berbadunak.- %4,8-k bai, %4,8-k ez, %90,5-k aipamenik ez.

Aipatuenak beraz, hauexek izan dira:

Hiztunak (%-47,6).

Zaharra (%42,9).

Funtzioa (%38,1).

Indarra (%33,3).

Bigarren maila baten:

Bat (%28,6 aipamen).

Balioa (%28,5).

Garrantzia/Gurea (%23,8).

Zabal, Aberatsa, Ofiziala eta Idazleak ez dira aipatzen.

Talde honetan, hiztunen faltarik handiena aipatzen da, ideia hau lehenengo postuan izanik.

Bestetik talde "arraroa" da. Puntu batzutan euskaldun aktiboekin batera ipintzen bada ere, beste batzutan ez. Esate baterako, "Funtzioa" (Komunikatzeko eta identifikatzeko) eta "zaharra" ideiak garrantzitsuak ere dira etxean eta kalean egiten dutenen artean; baina, etxean eta kalean egiten dutenen artean, hain nabari agertzen diren "Balioa", "Garrantzia" eta "Gurea", bigarrengo maila baten agertzen dira ikastolan egiten dutenengan.

"Herria" aukeratzean ere euskaldun aktiboekin bat datoz.

Gazteleraz erantzuten dutenak

(Gazteleraz erantzuten dute, jakina)

- Aipamenak

%35-k gaztelera, %5-k besteren bat.

- **Herria**

%40-k Euskalerria, %20-k Pais Vasco eta %40-k aipamenik ez.

- **Imajina**

Balioa.- %23,3 sartuta, %16,7-k baietz, %60-k aipamenik ez.

Indarra.- %26,7-k guk egin behar dugula, %5-k baietz, %6,6-k ezetz ezkor, %61,5-k aipamenik ez.

Garrantzia.- %26,7-k baietz, %1,7 sartuta, %71,7-k aipamenik ez.

Zaharra.- %61,7 baikor, %38,3-k aipamenik ez.

Idazleak.- %10-k baietz, %1,7-k ezetz, %88,3-k aipamenik ez.

Gurea.- %30-k baietz, %70-k aipamenik ez.

Hiztunak.- %40-k ezetz, %3,3-k baietz, %56,7-k aipamenik ez.

Zabal.- Aipamenik ez.

Aberatsa.- %6,7-k baietz, %93,3-k aipamenik ez.

Esamesak.- %10-k bai, %90-k ez.

Funtzioa.- %38,3-k komunikatzeko eta identifikatzeko, %5-k komunikatzeko, %56,7-k aipamenik ez.

Bat.- %21,7 batuaren alde, %6,7 euskalkien alde, %3,3-k asko daudela, %1,7-k baietz, %66,7-k aipamenik ez.

Ofiziala.- %6,7-k baietz, %93,3-k aipamenik ez.

Berbadunak.- Aipamenik ez.

Beraz ideia nagusiak, hauek dira:

Zaharra (%61,7).

Bigarrenean:

Hiztunak (%-40)/Balioa (%40).

Funtzioa (%38,3).

eta Hirugarrenean, kasu honetan:

Gurea (%30).

Garrantzia/Indarra (%26,7).

Ikusten den legez, "Zaharra" ideia nagusi-nagusia agertzen da talde honetan, (Ikasten ari direnen artean ere bai). Bestetan, euskaldun aktiboekin nahiko ados agertzen da ("Hiztunak", "Balioa", "Funtzioa"). "Gurea" eta "Garrantzia" agertzen badira ere, besteetan baino garrantzigabekoak dira.

Kuriositatez esango dugu, "Idazleak", (%10), eta "Ofiziala" (%6,7), talde honetan eta ikasten ari direnen artean bakarrik gertatzen direla.

Talde honetan eta ikastolan egiten dutenen artean, "Esamesak" maila altuenean dago (%10).

Amaitzeko eta orokorrean, gauza bat aipatu gura genuke.

"Indarra", normalean, "Guk egin behar dugu" ideiarekin lotzen da, edo horrela aipatzen da euskera aukeratzen duten talde guztietan, beraz, honek gauza bi suposatzen du:

1.- Sarpena neurri bat, hau da, gaian eta arazoan inplikapena dagoela.

2.- Indarrik ez dagoela berez.


Laburtuz:

Honekin eta taldekako azterketa eginda, ikuspegi orokorragoa izateko, ikus ditzagun taldei buruzko grafikoak.


Grafikoaren datuak ondoko hauek lirateke:

%	Gaztelera (183)	Euskera Euskaldunak (98)	Ikasten (150)	Ikasto. (21)	Gazteleraz (60)
Aip. Euskera	77,-	—	—	—	—
Aip. Gaztelera	—	35,7	26,7	42,9	35,-
Aip. Beste	31,1	2,-	4,7	4,8	5,-
Herria	68,3	77,6	61,4	76,2	60,-
Balioa	34,4	59,2	40,6	28,5	50,-
Indarra	14,8	32,7	16,-	33,3	26,-
Garrantz.	27,3	57,1	27,3	23,8	28,4
Zaharra	19,1	39,8	62,7	42,9	61,7
Idazleak	6,-	2,-	16,-	—	10,-
Gurea	13,7	60,2	14,-	23,8	30,-
Hiztunak	25,1	-26,5	-20,7	-47,6	-40
Zabala	36,1	4,-	4,7	4,8	5,-
Aberatsa	20,2	2,-	4,7	4,8	6,7
Esamesak	1,1	3,-	5,3	9,5	10,-
Funtzioa	20,8	61,2	32,7	38,1	38,3
Bat	2,7	34,7	36,-	23,8	28,4
Ofiziala	12,6	—	6,7	—	6,7
Berbadunak	3,8	5,1	,7	4,8	—


GAZTELERA


100
90
80
70
60
50
40
30
20
10
AIPATU EUSKERA
AIPATU GAZTELERA
AIPATU BESTE
HERRIA
BALIOA
IUDARRA
GARRANTZIA
ZAHARRA
IDAZLEAK
GUREA
HIZTUNAK
ZABALA
ABERATSA
ESAMESAK
FUNTZIOA
BAT
OFIZIALA
BERBADUNAK


EUSKERA


100
90
80
70
60
50
40
30
20
10
AIPATU EUSKERA
AIPATU GAZTELERA
AIPATU BESTE
HERRIA
BALIOA
INDARRA
GARRANTZIA
ZAHARRA
IDAZLEAK
GUREA
HIZTUNAK
ZABALA
ABERATSA
ESAMESAK
FUNTZIOA
BAT
OFIZIALA
BERBADUNAK


EUSKALDUNAK




IKASTOLAN


100
90
80
70
60
50
40
30
20
10
AIPATU EUSKERA
AIPATU GAZTELERA
AIPATU BESTE
HERRIA
BALIOA
INDARRA GARRANTZIA
ZAHARRA IDAZLEAK
GUREA HIZTUNAK
ZABALA ABERATSA
ESAMESAK FUNTZIOA
BAT
OFIZIALA BERBADUNAK

GAZTELERAZ|


100
90
80
70
60
50
40
30
20
10
AIPATU EUSKERA
AIPATU GAZTELERA
AIPATU BESTE
HERRIA
BALIOA
INDARRA
GARRANTZIA
ZAHARRA
IDAZLEAK
GUREA
HIZTUNAK
ZABALA
ABERATSA
ESAMESAK
FUNTZIOA
BAT
OFIZIALA
BERBADUNAK.

OROKORREAN: Talde bakoitzaren lgo., 2gn., eta 3gn. mailako hizkuntzaren aukerari buruzko aipamenak.



Honela, gauzak argiago agertzen direla uste dugu.

Hiru dira, gure ustez, puntu interesgarrienak:

1.- Puntu batzutan, danak batera agertzen dira.

2.- Talde bakoitzak, ideia ezbardinak nabaritzen ditu.

3.- Euskaldun aktiboak dira, aipamen kopururik handiena daukatenak.

1.- **Puntu komunak**

Bost talde dira eta gatxa da guztietan adostasuna agertzea, beraz, hiru taldetan antzeko maila lortu bada, ideia baten komentatuko dugu, salbuespenak adieraziz, jakina.

Hona hemen, bada, "komunak" (gehien bat) diren ideiak.

"Herria". Batzuk herri bat aukeratzen dute eta besteak beste bat, baina, aukera ezbardina izatetik aparte, aukeratzeko orduan indarrak antzekoak dira.
Umeentzat hizkuntza lotuta doa herri batekin.

"Balioa". Alde batetik, euskaldun aktiboak eta Gazteleraz erantzuten dutenak eta, bestetik, Gaztelera aukeratzen dutenak eta euskera aukeratuta gaztelaniadunak direnak, taldetxo bi osotu

arren, orokorrean, denek ondo eta oso baloratzen dute bere hizkuntza. Salpuespena, ikastolan egiten dutenak dira. Honek besteek baino gitxiago aipatu dute ideia hau.

"Garrantzia". Euskaldun aktiboek gorantza gorantza joan dira guztiz, puntu honetan, beste taldeek indar bardinaz aipatzen zuten bitartean. Dena dela, Ikastolan egiten dutenek, puntuazio urriena lortu dute.

"Hiztunak". Denek aipatzen badute ideia hau, aipatu egin behar da, ikastolan egiten dutenek eta gazteleraz erantzun dutenek, batera erantzuten dutela eta besteek baino indar handiagoz.

Bestetik, aipamenen zentzua ezbardina da, Gazteleraldekoek baikor eta euskeraldekoek ezkor, egiten dute.

Hiztunen ideia garrantzitsua da denentzat, baina euskera, bereiztasun hau barik agertzen da.

2.- **Puntu ezbardinak**

Talde bakoitzak ideia batzuk aipatzen ditu, beraz, taldeka egingo dugu ere, ideia hauen azalpena.

Euskera aukeratu

Gaztelera aukeratu	Gaztelera erantzun	Euskaldun aktiboak	Ikastolan	Gaztelaniadunak
1. Aip. eusk.	1. Zaharra	1. Funtzioa	1. Zaharra	1. Zaharra
2. Zabala	2. Funtzioa	Gurea	Aip. Gazte.	2. Bat
Aipa. beste	Aip. Gazte.	Garrantzia	2. Funtzioa	Funtzioa
3. Garrantzia	3. Gurea	2. Zaharra	Indarra	3. Garrantzia
Aberatsa	Bat	Aip. Gazte.	3. Gurea	Aip. Gaztel.
Funtzioa	Garrantzia	Bat	Bat	
		Indarra	Garrantzia.	

"Indarra", komentatzeko da, gazteleraldekoek zuzenean aipatzen ez badute ere, "Zabala" denean eta "Hiztunen" asko daukala esaten denean, indarraren ideia, neurri baten, suposatu egiten da.

Euskaldunen artean, barriz, hiztunekin gertatzen dana errepikatzen da. Hau da, ideia agertu egiten da baina zentzua, gazteleraldekoen artekoen kontrakoa da. Euskaldunek zentzu bat aipatzen dute batez ere, euskera "guk indartu behar dugu". Honek azpimarratzen du esan dugun lez, alde batetik, sarpena dagoela, inplikazioa: gu gara arduradunak eta egileak; bestetik, euskerak indarrik ez daukala, ez handirik behintzat, egiteko dagoen zerbait baita.

"Zaharra" ere komentatu egin behar dugu, hau oso hitz anbiguoa gertatu zaigulako. Zabala edo aberatsa beti baikor agertzen badira, esate baterako, (hau da, handikeria edo arrokeria, aberastasunen ondorio txarrak izango dira, baina, aberastasuna bera, beti baikortzat jotzen da). Zaharra barriz (eta komentatuko ez dugun "zaila" ere beste batzuen artean), zentzu bitan ager daiteke: baikor/ezkor. Alde batetik, antzinatik datorrela eta iturri ezezagun batetik, eta horrelako imajinei lotuta doa, baina, bestetik, zahartasunak gaurkotasunaren eza adierazten du. Bizi izan du baina geroa ez dago hain argi. Ezin dugu, beraz, nahiz eta ezkor ez agertu, guztiz baikortzat jo. Kuriosoa da, euskeraren aldeko talde gaztelaniadunengan eta ez aktiboengan agertzea. Aipatu dugun lez, talde hauek nahiko "mugagabeak" agertzen zaizkigu.

Orokorrean, gazteleraldekoek ideia "objetiboagoak" aipatzen dituzte, hau da, neurri daitezkenak, zenbagarriak, (zabalera, hiztunak). Talde honetan ere, bestelako hizkuntzen aipamen handiena egiten da. Euskaldunek berriz, neurri ezinezko ideiak agertzen dituzte, (Gurea dela garrantzitsua) eta neurri baten ere, "mugagabeak" (zaharra). Euskeraren alde agertzen diren gaztelaniadunak talde berezia agertzen zaigu. Aipamen ezkorrak dituen talde bakarra da. Aipamen baikorrei buruz, ikusi dugu zahartasuna ezin dugula zuzenean honela sailkatu, baina bestaldetik, idazleak gehien aipatzen dituen taldea da (gazteleraz erantzuten dutenek ere aipatzen dute) eta hau, alde batetik baikor eta, bestetik, neurgarria da. Talde hau ere, beste hizkuntzak, gitxien aipatzen dituena da.

Amaitzeko, beste zehaztapen bat. Komunak diren aipamenek balio ezbardina daukate talde bakoitzean, agertzen diren beste ideiekin konparatuz gero.

Honela, "Herria", kasu guztietan, goi mailako aipamenen artean agertuko balitz ere, "Balioa", gazteleraldekoen artean, 2garren mailan agertuko litzateke eta gazteleraz erantzuten duten euskaldun aktiboen artean, lgoan. Euskeraldeko gaztelaniadunen artean, 2garrenean ere, eta ikastolan egiten dutenen artean, 3garrenean.

"Hiztunak", Ikastolan egiten duten eta gazteleraz erantzuten dutenen artean, 2garren eta 3garren mailan agertuko litzateke.

3.- Aipamenen kopurua

Esan dugun lez, euskaldunen artean ematen dira kopuru handienak. Euskaldun talde honek ez du erdirik, hau da, aipamenak ba dira ala ez dira, aipatzen diren ideiak oso aipatuak dira eta, aipatzen ez direnak, ez dira ia aipatzen.

Beste taldeak, ideia guztietan zehar zabaltzen dira eta ideien aipamenak pisu ezbardinetakoak dira.

Gainera, aipamenen sarpen maila ere handiagoa da euskaldunen artean.

Datuen aurkezpenatik hurrunago joatea arriskutsua bada ere, euskaldunentzat, hizkuntzaren arazoa, gaztelaniadunentzat baino garrantzitsuagoa dela esango genuke. Garrantzitsuagoa eta mingarriagoa, sentikorrago agertzen dira behintzat.

Dena dela, eta amaitzeko, gauza bat azpimarratuko genuke: talde hauek nahiko heterogenoak direla, hau da, euskaldun aktiboak batzea posiblea izan bada, erantzunak edo aipamenen tendentzia bardinkorra zelako, beste hauek,-gazteleraz erantzuten dutenak, ikastolan egiten dutenak eta ikasten ari direnak- ezin dira batu, behintzat, ez puntu gehienetan. Baina, bai dirudi, puntu nagusietan bat datozela, hau da, aipatzen diren goitik-beherako ideiek zentzu bardina daramatela. Oraintsu ikusi dugun lez, beste gauza askotan barriz, nahastu egiten dira eta beste bi taldeekin batu ere batzutan. Gauza asko izan liteke hau azaltzeko edo ulertzeko, baina, guk aipatuko genuke:

1.- Erabileraren garrantzia.

2.- Aldagai soziodemografikoak antzerakoak izan arren, erantzunak, euskera erabiltzen ez dutenen artean, ez dira hain antzekoak.

Ikus dezagun orain zein den hizkuntza aukeratuen egoera.

- Egoera

A. Gaztelera aukeratzen dutenak

"Maila bardina".- %80,3-k ez du ideia aipatzen baina %18-k maila ezbardina dela esaten dute.

"Borroka".- Ideia hau, goikoari lotuta doa, batez ere goikoan ezbardintasuna aipatu denean. Kasu honetan, %86,3-k ez du aipatu. Aipatu dutenak, %7,7 gaztelera aren alde agertzen da eta %3,3, hizkuntza guztien bardintasunaren alde eta hizkuntza borrokaren alde.

"Erabiltzen".- %50,3-k baietz erantzuten du, gure hizkuntza erabiltzen duguna delaren alde.

Beste puntu honetan, sartu ditugun ideia guztiak, ez dira talde honetan aipatzen: trasmizioa, berreskuratzea, hauen gorabeheren arrazoiak etabar.

B. Euskera aukeratzen dutenak

Hementxe, gauzak aldatu egiten dira. Goian aipatzen ez ziren ideiak aipatu egiten dira eta, jakina, aukera ezbardinak dira. Baina zehatzago ikusiko dugu.

Orokorrean, batera azterttu baditugu ere, oraingoan, euskaldun talde biak ezbardindu egingo ditugu.

Etxean egiten dutenak

"Trasmizioa".- %21-k apurtuta eta berreskuratzea baikor aipatzen du. %8,3-k antzinatik apurtu barik eta %66,7-k ez du aipamenik egiten.

"Franco".- Apurketaren arrazoia %25-k jotzen du, %75-k ez du aipatzen.

Inork ez ditu, apurketaren arrazoien artean, ez aurrekoak ez eta hizkuntza bera ere aipatzen.

"Berreskura".- %33,3-k gorantza doala, %15-k beherantza eta %10-k ez du argi esaten besteek, %41.7-k ez dute aipatzen.

"Jaurlaritza".- %88,3-k ez du aipatzen, %6,7-k berreskuratzearen alde egiten duela eta %5-k kontra.

"Ikastolak".- %21,7-k berreskuratzearen gorakadaren arrazoia jotzen dute, %78,3-k ez du aipatzen.

"Gu".- %70-k aipamenik ez, %10-k baietz, eta %20-k ezetz, guk ez dugula berreskuratzeko behar dena egiten.

"Gizartea".- %10-k baietz, gizartea, berreskuratzearen eragin baikorra dala, %88,3-k ez du aipatzen.

"Erdaldunak".- %21,7-k ez dutela berreskuratzearen alde egiten dio, %3,3-k baietz eta %75-k ez du aipatzen.

"Hizkuntza".- eta "Madril".- ez ditu inork aipatzen.

"Maila bardina".- %35-k ezetz eta %63,3-k ez du aipatzen (%1,7-k baietz dio).

"Borroka". %43,3-k euskeraren alde, %5 gaztelerarenalde eta %51,7-k ez du aipatzen.

"Erabiltzen".- %73,3-k baietz, %26,7-k ez du aipatzen.

Hementxe, barriz, beste batzutan aipatu ditugun kontraesanak agertzen dira. Zelan uler daiteke bestela, bere hizkuntza euskera jotzen duen batek, gaztelerarenalde agertzea?

Kalean

Kalean euskeraz egiten dutenen erantzunak ikusiko ditugu orain.

"Trasmizioa".- %26,3 apurtuta eta berreskuratzean sartuta baikor agertzen da, %13,2-k betidanik datorrela dio, %57,9-k ez du aipamenik egiten.

"Franco".- %18,4-k Franco-ren errua aipatzen du, %78,9-k ez du aipamenik egiten.

"Aurrekoak".- %10,5-k euskeraren alde egin zutela aipatzen du, %89,5-k ez du aipamenik egiten.

Inork ez du hizkuntzaren errurik aipatzen.

"Berreskura".- %36,8-k gorantza, %10,5-k beherantza, %7,9-k argitu barik, %44,7-k ez du aipatzen.

"Jaurlaritza".- %92,1-k ez du aipatzen, %5,3-k alde aipatzen du,%2,6-k kontran.

"Ikastolak".- %71,1 ez du aipatzen, %23,7-k alde eta %5,3 kontran aipatzen ditu.

"Gu".- %26,3-k kontran, %18,4-k alde eta %55,3-k ez du aipamenik egiten.

"Gizartea".- %84,2-k aipamenik ez, %13,2-k alde eta %2,6-k kontran egiten du.

"Erdaldunak".- %7,9-k erdaldunen errua baieztatzen du, %2,6-k ez errudun eta %89,5-k ez du aipatzen.

"Hizkuntza" eta "Madril" ez dira aipatzen.

"Maila bardina".- %47,3-k ezetz esaten du (%18,4 sartuta) eta %52,6-k aipamenik ez.

"Borroka".- %7,9 euskeraren alde (%21,1 sartuta) eta %36,8-k aipamenik ez.

Hementxe, beraz, ez dago gaztelaniaren aldeko aipamenik. Talde honek aipamen kopuririk handiena dauka eta sarpen mailarik handiena ere.

Ikastolan bakarrik egiten dutenak

"Trasmizioa".- %23,6 apurtuta eta berreskuratzearen alde, %57,1-k ez du aipatzen, %4,8-k galduta ikusten du, eta beste %4,8-k apurtu barik.

"Franco".- %23,8-k errudun, %71,4-k aipamenik ez.

"Aurrekoak" eta "Hizkuntza".- Aipamenik ez.

"Berreskura".- %38,1-k gorantza, %14,3-k beherantza, %47,6-k aipamenik ez.

"Jaurlaritza".- Aipamenik ez.

"Ikastolak".- %19 baikor, %81-k aip. ez.

"Gu".- %23,8-k errudunak, %19-k errugabeak, %57,1-k aipamenik ez.

"Gizartea".- Aipamenik ez.

"Erdaldunak".- %4,8-k errudun, %4,8-k errugabekoak, %90,5-k aipamenik ez.

"Hizkuntza" eta "Madril".- ez dira aipatzen.

"Maila bardina".- %38,1-k ezetz, %4,8 sartuta, %59,2-k aipamenik ez.

"Borroka".- %47,6 euskeraren alde, %4,8 sartuta, eta, gauza kuriosoa, %4,8 gazteleraren alde sartuta, %42,9--k aipamenik ez.

"Erabiltzen".- %57,1-k baietz, %4,8-k ezetz, %38,1-k aipamenik ez.

Talde honek lotura ezbardinak ditu beste taldeekin. Hementxe ere kontraesanen bat agertzen da: euskera aukeratu eta gazteleraren alde agertu.

Bestetik, hementxe, ikasten ari direnen taldean agertuko dan moduan, gure hizkuntza ez da kasu guztietan, erabiltzen duguna izango.

Azkenean, "Maila ezbardina"-k eta "Borroka"-k lortzen dituzten aipamenak, euskaldun aktiboen parekoak dira.

Euskera aukeratu eta gaztelaniadunak direnak

"Trasmizioa".- %21,3 apurtuta eta berreskuratzearen alde, %63,6-k aipamenik ez.

Hementxe eta eskasak badira ere, euskerariko ikuspegi ezkorrenak agertzen dira, trasmizioa apurtuta dagoela eta ez dagoela berreskuratzerik %4-k aipatzen du.

"Franco".- %29,3-k errudun jotzen du, %4-k ezetz eta %66,7-k aipamenik ez.

"Aurrekoak" eta "Hizkuntza" ez dira ia aipatzen.

"Berreskura".- %44,7-k gorantza doala, %4-k beherantza, %2,7-k argitu barik eta %48,7-k aipamenik ez.

"Jaurlaritza".- %11,3-k alde egiten duela dio, %88,7-k aipamenik ez.

"Ikastolak".- %19,3-k alde egiten dutela, %80,7-k aipamenik ez.

"Gu".- %94,7-k aipamenik ez, %2,7-k baietz, %2,7-k ezetz.

"Gizartea".- %94,7-k aipamenik ez, %6,7-k baietz, baikor egiten duela.

"Erdaldunak".- %93,3-k aipamenik ez, %6-k ezkorrak direla eta %7-k baikorrak.

"Hizkuntza" eta "Madril" ez dira aipatzen.

"Maila bardina".- %24-k ezetz, %74-k aipamenik ez.

"Borroka".- %79,3-k ez du aipatzen, %7 gaztelerarenalde, %17,3 euskararen alde, %2-k ez du borroka

onartzen eta denak bardinak izan behar direla dio eta %7-k ez du borroka onartzen eta gaztelera aukeratzen du.

"Erabiltzen".- %21,3-k baietz, %2,7-k ezetz eta 76-k aipamenik ez.

Talde honetan ematen dira barriz, kontraesanak, eta, erabiltzen duguna eta geurea ez dutela gauza bera izan beharrean, alde ere agertzen dira batzuk.

Gazteleraz erantzuten dutenak

"Trasmizioa".- Berreskuratzearen alde %16,7 sartuta, %1,7 apurtu barik %5, aipamenik ez %75.

"Franco".- %30 errudun, %68,3 aipamenik ez.

"Aurrekoak" eta "Hizkuntza".- %98,3-k aipamenik ez.

"Berreskura".- %35-k gorantza, %15-k beherantza, %5 salantzan, %45-k aipamenik ez.

"Jaurlaritza".- %6,7 baikor, %93,3-k aipamenik ez.

"Ikastolak".- %25 baikor, %75-k aipamenik ez.

"Gu".- %18,3 errudun, %5 errubakoa, %76,7-k aipamenik ez.

"Gizartea".- %8,3 alde, %91,7-k aipamenik ez.

"Erdaldunak".- %21,7-k errudunak, %3,3-k ezetz, %75-k aipamenik ez.

"Hizkuntza" eta "Mardril".- ez dira aipatzen.

"Maila bardian".- %31,7-k ezetz, %68,3-k aipamenik ez.

"Borroka".- %28,3 euskeraren alde, batek (%1,7) bardinak izan beharko luketela dio, %70-k aipamenik ez.

"Erabiltzen".- %43,3-k baietz, %6,7-k aipamenik ez.


Hemen ez dago kontraesanik, denek aukeratzen dute euskera baina aipamen maiztasuna, euskaldun aktibo eta ikastoletan egiten dutenenen baino eskasagoa da.


Laburtuz


Grafikoak eta grafikoen azalpenak.

Euskera aukeratzen dutenak, luzkuntzaren eskeraari buruz.


(Grafiko hauetan, aipamenen artetik zeinetan agertzen da kapitalak bakarrik agertzen diren, ez zentsuz)







IKASTOLAN
80
70
60
50
40
30
20
10
GAZTELERAZ
80
70
60
50
40
30
20
10
TRASMIZIOA
FRANKO
AURREKOAK
HIZKUNTZA
BERRESKURA
JAURLARITZA
IKASTOLAK
GU
GIZARTEA
EKOALDUNAK
HIZKUNTZA
MADRIL
MAILA BAKOINA
BORROKA
ERABILTZEN

Gaztelera eta euskera aukeratzen dutenak.
(Euskaldun talde biak batuta daudela)




IKASTOLAN
60
50
40
30
20
10
TRASMIZIOA
FRANKO
AUKERKOAK
HIZKUNTZA
BERESKURA
JAUNLARITZA
IKASTOLAK
GU
GIZARTEA
ERDALDUNAK
HIZKUNTZA
HADKIL
MAILA
BARDINA
BOKROKA
ERABILITEN
GAZTELERAZ
50
40
30
20
10

Euskera aukeratzen dutenei buruz

Lehen egindako eskema bardina erabiliko dugu:

- Bardintasunak.
- Ezbardintasunak.

Bardintasunak

- **Ez aipamenak,** inork ez ditu Hizkuntza (ez bata ez bestea) eta Madril aipatu, euskeraren egoeren errudun moduan.

Besteek, aurrekoak aipatzen ez badituzte, kalean egiten dutenek bai berriz eta, zentzu baikor baten dala esan egin behar da. Talde honetan ere, eta behar bada horri lotuta, etenbariko trasmizioaren ideia besteetan baino gehiago aipatzen da.

- **Berreskuratzea.** Aipamen kopurua altua da kasu guztietan. Puntu honetan, euskera ikasten dabiltzanek aipamen kopururik handiena dutela esan behar da.

- **Ikastolak.** Hementxe barriz, euskera ikasten dutenen marra, goitik egotetik behera doa eta honela jarraitzen du beste itemetan. Dana dala, puntu honetan ere adostasuna dago, ikastolek euskeraren berreskuratze prozesoan garrantzia izan dutela esateko.

Ezbardintasunak

- **Franco.** Gaztelaniadunak ikasten dabiltzanak eta gazteleraz erantzuten dutenek dira. Francoren errua gehien aipatzen dutenek, eta nahiko hurbil daude, etxean euskeraz egiten dutenak. Kalean egiten dutenek barriz, 7 puntu gitxiagoz aipatzen dute ideia hau. Ikastolan egiten dutenak, euskaldun aktibo talde bien bitartean kokatzen dira.

- **Gu.** Ikasten ari direnak ez dute hauxe aipatzen. Euskaldunen artean barriz, nahiko aipatzen da eta, batez ere, kalean egiten dutenek, gu bagarela euskararen galtzearen errudunak. Gitxien aipatzen dutenak gazteleraz erantzuten dutenak dira.

- **Erdaldunak.** Hementxe, kalean egiten dutenek gitxi aipatzen dute eta gaztalniadunek apur bat gitxiago. Etxean egiten dutenek berriz, 10 puntu gehiagoz, euskeraren egoeraren arrazoi ezkor bat erdaldunak direla uste dute. Ikastolan egiten dutenek ez dute ideia aipatzen.

- **Maila Bardina, Borroka, Erabiltzen.**- Hirurak aipatzen dira asko, gazteleraz erantzuten dutenek eta gaztelaniadunek gitxiago aipatzen badituzte ere. Maila eta borrokaren arteko harremanei buruz, euskaldun aktibo eta ikastolan egiten dutenen taldeetan, batetik bestera, gorantza egiten badu, ikasten dabiltzan eta gazteleraz erantzuten duen taldeak beherantza egiten du.

Erabiltzeari buruz, etxean egiten dutenek, kalean egiten dutenek baino gehiago aipatzen dute, eta hauek, ikastolan egiten dutenek baino gehiago, Ikasten ari den taldea beherago gelditzen dala Gazteleraz erantzuten duen taldearen azpian baina antzeko egoera izanik.

Beraz, hiru ideia hauei buruz, joera bi ezbardintzen dira: euskaldun aktiboak eta ikastoletan egiten dutenak, alde batetik, eta, gazteleraz erantzuten dutenak eta ikasten ari direnak, bestetik.

Orokorrean, gehien aipatzen diren ideiak hauexek dira:

Etxean	Ikastolan	Kalean	Gazteleraz	Ikasten
Erabiltzen	Erabiltzen	Erabiltzen	Erabiltzen	Berreskuratzea
Borroka	Borroka	Borroka	Berreskura.	Franco
Maila bardi.	Maila bard.	Maila bard.	Maila bard.	Maila bardina
Berreskura.	Berreskura.	Berreskura.	Franco	Erabiltzen
Franco	Trasmizioa	Trasmizioa	Borroka	Ikastolak
Ikastolak	Franco/Gu	Gu	Ikastolak	Borroka
Erdaldunak	Ikastolak	Ikastolak	Erdaldunak	
Gu				

Euskaldun aktiboak eta ikastoletakoen artean lehenengo laurak bardinak dira. Ordena geroago aldatzen da.

Ikasten ari direnen artean, ordena guztiz ezbardina da eta

neurri baten, gaztelaraz erantzun dutenen antzekoa da. Ninyoles-[23] ek aipatzen duena gogoratzen badugu eta arrazoi intra eta extrapunitiboak kontutan hartzen baditugu, Etxean egiten dutenek, lehenengoz arrazoi extrapunitiboak aipatzen dituzte (Franco eta Erdaldunak) eta intrapunitiboak gero (Gu).

Kalean egiten dutenek barriz, intrapunitiboak batez ere (Gu) (Zerrendatik kanpo gelditzen da, baina bigarren maila baten geldituko lirateke extrapunitiboak).

Ikastolan egiten dutenek, biak neurri berdinean aipatzen dituzte.

Ikasten ari direnak, barriz, extrapunitiboak bakarrik agertzen dituzte. "Gu" ez da aipatzen eta "Erdaldunak" oso gitxitan. Gainera, "Erabiltzen" ideia ere ez da besteetan bezain garrantzitsua. Azkenean, gaztelaraz erantzun dutenek extrapunitiboak ere agertzen dituzte lehenago.

Gaztelera eta euskera aukeratzen dutenak

Euskaldun aktiboen taldeak batu arren, besteekiko harremank gorde egiten dira.

Bestaldetik, gaztelera aukeratzen dutenek ez dute trasmizioaren ideia aipatzen. Ez dute, baina hau logikoa da, berreskuratzerik aipatzen ere.

Baina maila bardina, Borroka eta Erabiltzen, bai aipatzen dira.

Lehenengo biak, beste taldeetaan baino gitxiago aipatu arren, haien artean, ikasten ari direnek eta gazteleraz erantzuten dutenek zentzu bardina daramate, hau da, beherantza. Baina erabiltzeari buruz, gazteleraldeko taldeak, gorantza egiten du guztiz, eta talde honetan gehien aipatzen den ideia bihurtzen da.

Zentzu edo ideia honetan, euskera aukeratzen duten euskaldunak eta gaztelera aukeratzen duten gaztelaniadunak, hurbil daudela esan daiteke.

Gogora dezagun bada, talde hauek garrantzi bardina eman diotela ideia nagusi biri:

1.- **Herria**. Hau da hizkuntza herriari lotuta doala.

2.- **Erabili**. Geure hizkuntza, erabiltzen duguna dela (nahiz eta euskera ikasten ari direnen artean hain garrantzitsua ez izan).

4.4.- Hizkuntzaren aipamena

Aipatzen diren hizkuntzei buruzko eritziak ezagutzen saiatuko gara orain. Esan behar da, aipatzen den hizkuntzari buruz, ez dala gauza askorik esaten ez eta jende askorik ere, horregaitik, zatika egin beharrean aipatzen diren ideia guztiak batera azalduko ditugu.

Aurkeztuko ditugu, beraz, aipamen minimoa (%5) daukaten ideiak. Aipatzen ez direnak azkenean idatziko ditugu. Taldezka egingo dugu ere, datuak argiago ikusteko.

A.- Gaztelera aukeratzen dutenak

Honek euskerari buruz egiten dute (%77 aipamen).

"Herria".- %24,6-k Pais Vasco, %12-k Euskalerria, %5,5-k Espaina, %9,8 mugagabe eta %48,1-k aipamenik ez.

"Balioa".- %14,8-k baietz, %9,8-k ezetz, %75,4-k aipamenik ez.

"Indarra".- %7,6-k ezetz, %90,7-k aipamenik ez.

"Garrantzia".- %7,7-k ezetz, %7,1-k baietz, %85,2-k aipamenik ez.

"Zaharra".- %14,8-k baietz, %85,2-k aipamenik ez.

"Hiztunak".- %85,2-k aipamenik ez, %13,7-k ezetz.

"Funtzioa".- %92,3-k aipamenik ez, %2,2-k komunikatzeko, %3,8-k komunikatzeko eta identifikatzeko, %1,6-k funtziorik ez.

"Bat".- %91,8-k aipamenik ez, %4,3-k baietz, %3,8-k ezetz.

"Trasmizioa".- %91,8-k aipamenik ez. Beste puntu guztietan oso aipamen gitxi dago eta guztiz sakabanatuta. Altuena %2,2-k apurtuta eta berreskuratzea aipatzen dutela.

"Franco".- %94,5-k aipamenik ez, %5,5-k errudun.

"Berreskuratzea".- %89,1-k aipamenik ez, %8,2-k gorantza.

"Idazleak", "Gurea", "Zabala", "Aberatsa", "Esamesak", "Ofiziala", "Berbadunak", "Aurrekoak", "Hizkuntza", "Jaurlaritza", "Ikastolak", "Gu", "Gizartea", "Erdaldunak", "Hizkuntza", "Madril" ez dira aipatzen.

Laburtuz, aipatuenak hauexek izan dira:

1.- Herria.

2.- Balioa.

3.- Garrantzia.

Zaharra.

Hiztunak.

Berreskuratzea.

"Herria", oso aipatua izan da: (%51,9). Aipamen kopuru hau oso altua da talde honetan, aukerari buruzko "erabiltzen" ideiaren parekoa. Ikusi dugu ere, ideia honetan, aukerei buruz, gaztelaniadunak eta euskaldunak joera bardina dutela.

Bestaldetik, "Balioa" baikor agertzen da, nahiz eta ezkorren kopurua ere handitsua izan. Honek, beraz, orokorrean aipatutako hizkuntzari buruz jarrera ona adierazten digu.

Esan behar dugu ere, talde honetan aukerari buruz agertzen ziren ideia nagusiak, "Zabala", "Hiztunak", "Aberatsa", ez dirala hemen agertzen eta, agertzen dan bakarra, "Hiztunak", ezkor agertzen dala, aipatzen dutenek hiztun gitxi daukala esaten dutelarik.

B.- **Euskera aukeratzen dutenak**

Hauek gaztelerari buruz egiten dute (%35,28).

- Etxean egiten dutenak

"Herria".- %5-k Espaina, %95-k aipamenik ez.

"Hiztunak".- %15-k baietz, %85-k aipamenik ez.

Ez dago beste aipamenik.

Beraz, talde honek aipatzen duen hizkuntzari buruz daukon ideia nagusia, hiztunen kopurua da.

- Kalean egiten dutenak

"Herria".- %10,5-k Espaina, %89,5-k aipamenik ez.

"Balioa".- %5,3-k baietz, %5,3-k ezetz, %89,5-k aipamenik ez.

"Indarra".- %18,4-k baietz, %81,6-k aipamenik ez.

"Garrantzia".- %26-k baietz, %2,6-k ezetz, %94,7-k aipamenik ez.

"Gurea".- %23,7-k ezetz, %76,3-k aipamenik ez.

"Hiztunak".- %10,5-k baietz, %89,5-k aipamenik ez.

Besteak ez dira aipatzen.

Talde honetan, beraz, ordena hauxe da:

1.- Gurea.

2.- Indarra.

3.- Herria.
    Hiztunak.
    Balioa.

Beraz, etxean egiten duten baino ideia gehiago agertzen dira, eta garrantzitsuenak: "Gurea", zentzu ezkorrean, aipatzen den hizkuntza ez dela adierazteko. "Indarra", agertzen da, gurea ez dan hizkuntza hori indartsua dela adierazteko.

- Ikastolan egiten dutenak

"Hiztunak".- %23,8-k baietz, %76,2-k aipamenik ez.

Talde honetan ez da besterik aipatzen.

Ikusten den legez, aipamen nahiko altua da eta ideia hau, errepikatu egiten da talde guztietan.

Talde honek oso ideia gitxi agertzen du aipatutako hizkuntzari buruz, baina aipatzen dena ideia garrantzitsua da. Baina, ez aipatzeak, ez agertzeak, zer suposatzen du? Ez dagoela interesik?. Aipamen ezkor egongo litzateke?. Hala, gaiari buruzko ardurarik ez?. Hala, eskolaren eragina?. Hala..., beste askotan moduan, hemen ere, isiltasuna ezin da irakurri.

Amaitzeko, hauxe da, "Herria" aipatzen ez duen talde bakarra.

- Ikasten ari direnak

"Herria".- %6-k Espaina, %2,7-k Euskalerria, %88,7-k aipamenik ez.

"Hiztunak".- %7,3-k baietz, %92,7-k aipamenik ez.

Ez da besterik aipatzen. Hementxe, talde hau eta etxean

egiten dutenen artean bardintasuna agertzen da. Biek aipatzen dituzte ideia bardinak baina neurri ezbardinean. "Hiztunak" puntu gehiago lortu arren, "Herria"-k baino aipamen gitxiago dauka talde honetan, eta hau da, "Herria" ideiaren aipamenak gehiago banatzen diralako.

Talde honetan, beraz, "Herria" ideia "Hiztunak" baino garrantzitsuagoa da.

- Gazteleraz erantzun dutenak

"Herria".- %11,7-k Espaina, %86,7-k aipamenik ez.
"Hiztunak".- %11,7-k baietz, %88,3-k aipamenik ez.
"Ofiziala".- %8,3-k baietz, %91,7-k aipamenik ez.


Honek beraz, besteen moduan aipatu dute, baina ofizialtasuna lehenengoz agertzen da. Indarraren adierazletzat hartu ahal izango genuke?


Datuak orokorrean komentatu baino arinago, beste grafiko bat aurkeztuko dugu.


Grafiko honetan, erantzunen kopuruak ipiniko ditugu, zelakoan diren kontutan hartu barik. Hau da, ehunetik, erantzuten ez dutenen kopuruak kenduta, eta hauxe, arrazoi bategaitik: zenbakiak txikiak diralako eta honela ideia orokorragoa izango dugulako.


Euskaldun aktiboen talde biak banatu egin dira, talde bien artean ezbardintasunak nabariak direlako eta talde bat egin ezkero, kalean egiten dutenak, etxekoen eraginez gitxitu egingo liratekelako.


Datuak aztertzean, gogoratu, kalean euskeraz egiten dutenen taldea eta Ikastolan bakarrik egiten dutenenak txikitxuak direla batetik, eta bestetik, zenbakiak ere (ehunekoak), eskasak direla askotan.



GAZTELERA
397
30
10
50
20
10
HERRIA
BALIOA
INDARRA
GARRANTZIA
ZAHARRA
GUREA
HIZTUNAK
FUNTZIOA
BAT
OFIZIALA
TRASMIZIOA
FRANKO
BERRESKURA


KALEAN
50
40
30
20
10
398
HERRIA
BALIDA
INDARRA
GARRANTZIA
ZAHARRA
GUREA
HIZTUNAK
GUNTRIDA
BAT
OFIZIALA
TRASMIZIOA
FRANKO
BERRESKURA


ETXEAN
50
40
30
20
10
399
HERRIA
BALIOA
INDARRA
GARRANTZIA
ZAHARRA
GUREA
AIZUNAK
FUNTZIOA
BAT
OFIZIALA
TRASMIZIOA
FRANKO
BERRESKURA


IKASTEN
50
40
30
400
20
10
HERRIA
BALIOA
INDARRA
GARRANTZIA
ZAHARRA
GUREA
HIZTUNAK
FUNTZIOA
BAT
OFIZINA
TRASMIZIOA
FRANKO
BERRESKURA


IKASTOLAN
50
40
30
20
10
/
HERRIA
BALIOA
INDARRA
GARRANTZIA
ZUHARRA
GUREA
HIZTUNAK
INTZIDA
BAT
OPTZALA
TRASMIZIOA
FRANKO
BERREKURA


GAZTELERAZ
50
40
30
20
10
402
HERRIA
BALIOA
INDARRA
GARRANTZIA
ZAHARRA
GUREA
HIZTUNAK
FUNTZIOA
BAT
OFIZIALA
TRASMIZIOA
FRANKO
BERRESKURA

Datu orokorretan esan genuen moduan, aipatutako hizkuntzari buruz oso gauza gitxi esaten da.

Gitxitasun honetan, gaztelera aukeratzen dutenak, euskera aukeratzen dutenen baino gehiago esaten dute.

Alde batetik, gazteleraldekoak dira, trasmizioari eta berreskuratzeari buruz zer edo zer esaten duten bakarrak. Hau aukeratutako hizkuntzari buruz, alderantziz gertatzen zela ikusi dugu eta normaltzat jo dugu, kontutan harturik gaztelerak ez duela honelako problemarik. Beraz, oraingoan ere, normaltzat jo behar dugu.

Baina, hizkuntza biei dagozkien ideietan ere, ezbardintasunak agertzen dira.

"Hiztunak", denek aipatzen duten ideia da. Aipatu, jakina, baina ez zentzu bardinean. Batzuentzat asko dira (gaztelerari buruz ari direnean), besteentzat gitxi (euskerari buruz), baina ideia moduan garrantzitsua agertzen da.

Gazteleraldekoek "Herria" aipatzen dute asko, baina maila ezbardinetan banatuta. Gehienek, Pais Vasco-rekin lotzen dute euskera. Hementxe bada, euskaldunekiko ezbardintasuna sortzen da, hauek, euskera Euskalerriarekin lotzen dutelako.

Euskaldunek gitxi aipatzen dute "Herria", aipatutako

hizkuntzarekin lotuta, (Ikastolan egiten dutenek aipatu ere ez) eta aipatzen dutenean, Espainarekin lotzen dute. Gazteleraldekoekin bat datoz bada, hauek ere gaztelera Espainarekin lotzen dutelako.

"Balioa", gazteleraldekoek aipatzen dute gehien eta kaleko euskaldunek bigarre, beste taldeek ez dute ideia hori aipatzen. Zentzuari buruz, gazteleraldeko %14,8-k, baliotsua dala esaten dute eta %9,8-k, ezetz. Kaleko euskaldunen artean, parean daude: %5,3, talde bakoitzean. Puntu honetan, beraz gazteleraldekoak, euskaldunak baino baikorrago gertatzen direla esan dezakegu. "Indarra"-ri buruz alderantziz gertatzen da, kaleko euskaldunek, gazteleraldekoek baino aipamen gehiago egiten dute (beste taldeek ez dute hontan aipamenik egiten). Zentzua ere alderantzizkoa da, euskaldunen %18,4-rentzat, gaztelera indartsua bada, gazteleraldekoen artean %7,6-k, ezetz dio, euskera indarbakoa dala.

"Garrantzia", Gazteleraldekoek gehiago aipatzen dute baina talde biak daude "mugatu" barik: gazteleraldeko %7,7-k, ezetz eta %7,1-k, baietz. Euskaldunak, %2,6-k, ezetz, %2,6-k, baietz.

"Zaharra", hementxe bai, gazteleraldekoak bakarrik daude. Besteek ez dute ezer esaten. Puntu honetan, behar bada, interesgarria litzateke, hitzaren mugagabetasunari buruz esan duguna eta aukeratutako hizkuntzari buruz asko agertu den ideia dala gogoratzea.

"Gurea".- Hau, kaleko euskaldunek bakarrik aipatzen dute, eta gogor, %23,7-k, gaztelera, ez dala gurea dio. Talde honetan, "Gurea" ere, ideia garrantzitsua izan da euskerari buruz ari izan direnean.

4.5.- Laburpen gisara

Orokorrean bada, aipatzen diren hizkuntzak ez dira oso garrantzitsu agertzen. Euskera aukeratzen duten hiru taldetan -ikastolakoak- etxekoak eta ikasten ari direnak- ez da ia aipamenik agertzen. Besteetan, kalekoak, gazteleraz erantzuten dutenek eta gazteleraldekoek, aipamen handiagoak egiten dituzte eta zentzu honetan pareko edo antzeko jarrera adierazten dute. Ezbardintasunak, bakoitzak aipatzen dituen ideietan agertzen dira. Ikusi dugun legez, "Herria"-k zentzu ezbardinak lortzen ditu talde bakoitzean eta aipatu eta aukeratutako hizkuntzen artean ere bai. "Zaharra"-k eta "Gurea"-k talde bana eskuratzen dute, eta, "Hiztunak", adostasun handiena lortzen du, denek aipatzen dute.

Esan dezakegu, beraz, lehen esandako moduan, "Herria" eta "erabilera" ideia "ardatzak" direla eta, kasu honetan, "erabilera"-ri lotuta doazen, "hiztunak" "zabala" eta, agian, "aberatsa" eta "indarra" ere.

Kasu bitan, hizkuntza aipatu eta aukeratu egiten denean, gaztelera Espainari lotuta agertu da, indartsua eta erabilia,

denentzat; gazteleraldekoentzat eta euskaldunentzat.

Euskararekin, neurri baten, gauza bera gertatzen da; baliotsua da, zaharra, hiztun gitxikoa, trasmizioaren arazoekin eta gorantza doan berreskuratze prozesu baten.

Danak daude ados, hizkuntza biak ez daudela maila bardinean ideiarekin.

Baina gaztelera aukeratzen dutenek, borroka horretan gazteleraren alde daude. Gaztelera Espainari lotuta dagoela diote eta euskera Espainari ere, Pais Vasco-ri hain zuzen ere.

Euskera aukeratzen dutenak banatuta daude puntu hoietan. Euskaldunen artean eta kalean egiten dutenen artean batez ere. Euskera Euskalerriari lotuta dago eta gaztelera ez da gurea. Beraz, euskera eta gaztelera (Esapina, Euskalerria ?) banatuta daude, ez dira gauza bardinak eta ez da beste aukerarik onartzen. Talde honek sarpen handiena adierazten du eta hizkuntzak aipamen handienak sorrarazten ditu.

Ikasten ari direnak, ez daude oso argi herriari buruz eta hiru aipamenak agertzen dira. Euskera Espainari Pais Vasco-ri eta Euskalerriari lotuta agertzen da, nahiz eta hizkuntza borrokari buruz euskeraren alde agertu.

Euskera aukeratzen duen taldea, ez da, ikusi dugun lez, oso bardintsua eta joera ezbardinak ematen dira bere baitan. Alde

batetik, aipatzen diren ideiak bardintsuak dira baina, ideien pisua eta harremana, loturak eta mailaketa, ezbardinak dira. Horregaitik, zaila egiten da euskera aukeratzen dutenak eta gaztelera aukeratzen dutenak, talde ezbardin bi direla esatea. Esango genuke, gaztelaniadunak (danak dira aktiboak kasu honetan) eta euskaldun aktiboak (gazteleraz erantzun dutenak, ezin dugu aktiboak diren ala ez jakin) talde ezbardinak direla eta bi hauen artean, hurbiltzen eta urruntzen diren joera ezbardinak daudela.

Dena dela, joera hauek hobeto mugatu eta aztertu beharko litzatekela uste dugu. Oso fenomeno konplexuak agertzen direlako eta beti aipatzen, baina inoiz sakontzen ez diren arrazoiak eta errealitateak argituko lizkigukelako.

OHARRAK

1.- Ikus. e.b.: Sanchez Carrión,J.M.:**El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra** (1.970), Institución Príncipe de Viana. Diputación de Navarra 1.972; Alvar, M.:**Estructuralismo, geografía linguística y dialectología actual**, Gredos, Madrid 1.979.

2.- Euskeraz dakitenak %35,2 dira osorik. Hizkuntzaren erabilera eta ehunekoen arteko harremanetan sakontzeko, aipatutako **Elebidun Gizarteen**...

3.- Espacio ideia aipatzen badugu ere, ez dugu oso zentsu mugatuan hartzen ideia hau. Egile ezbardinengan era ezbardinetara agertzen da. "Espazio" eta "eremu" kontzeptuak erabiltzen dira, bakoitzean hizkuntza aldaketak ematen direla azaltzeko. Aldaketok hizkuntza baten barruan zein hizkuntza ezbardinen artean ematen dira. Ideia honen barruan aipatu egiten da "espazioak" eta "eremuak" finkatzeko era ezbardinak daudela eta kasuak banan-banan aztertu behar direla. Ideia hauek "elebitasuna" eta "diglosia"-ri buruzko eztabaidetan garrantzitsuak izaten dira (Fishman,J. op.cit.). Gizatalde baten hizkuntza ezbardinak agertzen direnean, hizkuntzon iraupenerako bakoitzak eremu batzuen jabe izatearen garrantzia azpimarratzen da. Ideia honen aurka, elebitasunaren aldakortasuna aipatzen dutenak (Sanchez Carrión, Ninyoles, Aracil, aipatuak.) agertzen dira eta zentzu honetan, klasikoa den Weinrreich-en **Lenguas en contacto** Universidad Central de Venezuela, Caracas. 1.974 liburua, interesgarria da.

4.- "Pertsonal" eta "Sozial" ideiak oso eztabaidatuak izan dira Teoria soziologikoan. Beste bikoizketa famatuekin gertatzen den lez, mugak ipintzea, ideia bien esanahiak errealitatera eroatean nahastu eta ezberdindu ezinak gertatzen direnez, gatxa gertatzen da. Hemen, orokorrean, gurarizko jarrerak (ahalmen pertsonalak) eta gizarte egiturak aurkezten dituen baldintza materialak (ahalmen sozialak) ezbardintzenko erabili ditugu.

5.- Lambert,W.E.: "Algunas consecuencias cognitivas y socioculturales del bilinguismo" REVISTA DE OCCIDENTE. Extraordinario II. Febrero 1.982 Núms.10-11, 145-166 o.a.

6.- Sanchez Carrión,J.M-k,**El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra**, op.cit., liburuan dio, Nafarroan emakumeak direla euskera lehenengoz galtzen dutenak, eta askotan ez dutela berreskuratzen, beraz gaztelerako aldaketaren bultzatzileak direa. Zilegia litzateke, datuak ikusiz, hemen gauza bera esatea?

7.- Pentsatu egin behar dugu "eskola"-k esanahi ezbardinak izan

ditzatekela. Eskola izan daitezke gaiak, ikasbideak, irakasleekiko harremanak, ikasleen artekoak, ikasgela barruan zein ikasgelatik kanpo baina eskola orduetan gertatzen dena...

8.- "Gu" esaten denean, jakina, umeen ikuspegitik egiten da.

9.- Zentzu honetan zioen ume batek: "En realidad nosotros no tenemos lengua porque nadie la habla".

10.- Ikus: **Historia de la Educación en España**. Ministerio de Educación y Ciencia. Madrid eta, Puelles, M. **Educación e Ideología en la España Contemporánea (1767-1975)** Ed. Labor. Barcelona 1.980.

11.- Txillardegi eta beste.: **Elebidun Gizarteen** ... op. cit.

12.- Sanchez Carrión, Ninyoles eta beste askok dion moduan, una lengua no vive ni se muere, se habla o no se habla.

13.- Ferrer, M. Precedo, A.: **Las ciudades de Vizcaya y Guipuzcoa** op. cit.

14.- Hemen "elebitasun atzerakorra"-ren ideia aipatuko genuke. Sanchez Carrión-ek "Bilinguismo, Diglosia..." aipatutako artikuluan aipatzen du, euskaldunek euskera galtzen duten bitartean ez dagoela euskera ikasten duen talde erdaldunik. Datu honen arabera ere, **Euskeraren Borroka**, aipatutako liburuan esaten da, "euskaldunzahar" eta "berrien" arteko harremana 6/1-ekoa dela, hau da, sei euskaldunzaharren artean, euskaldunberri bakarra dagoela.

15.- Puntu honetan dispertsioaren ideia gogoratu gura genuke. Talde honetan maila txikienetatik altuenera heltzen da, nahiz eta hemen, gehiengoa bakarrik aipatu.

16.- Nahiz eta ideia hau nahiko mugagabea izan, normalean euskera eguneroko bizitzan ari direnen taldea adierazi gura dugu kasu honetan.

17.- Ikus: Calvet,J.L.: **Linguística y colonialismo**, Ediciones Jucar, Madrid 1.981; Sanchez Carrión,J.M.: "Fundamentos para una teoría de la territorialidad linguística" in **Hizkuntza Minorizatuen Soziologia** op.cit.

18.- Ruiz Olabuenaga eta beste: **Atlas linguístico Vasco**, op.cit. dena dela, "hiria" zelan definitzen den kontutan hartu behar da.

19.- Ideia hau: **Euskeraren Borroka**, JAKIN 26/27, 1.983, 133 o.a.

20.- Euskera ikasten ez dutenen taldea ez dugula kontutan hartu esan behar dugu. Arrazoiak hauexek dira:
1) Oso ideia gitxi agertzen dituzte
2) Talde heterogeneoa da. Aukera ezbardinak nahasten dira

talde honetako batzuk beste talde batzutan ere agertzen dira.

21.- Behar bada, baten batek hizkuntza zaharrik ez dagoela esango du, baina hemen umeek diotena aurkezten ari gara eta umeek dioten ideia bat "zahartasuna" da. Orain dela urte asko sortu zela, ondokoen baino arinago, nondik datorren ezagutzen ez dela... eta horrelako ideiak azaltzen ditu kategoria honek, orokorrean gainera zentzu baikor baten emanda.

22.- Hogeitabat pertsonek osotzen dute talde hau, beraz ehunekoekin argi ibili behar da.

23.- Ninyoles, R.Ll!: **Idioma y Poder Social**, op.cit.

IV

ONDORIOAK

Lan baten lorpenak zeintzuk izan diren jakin ahal izateko derrigorrezkoa dugu helburuak zeintzuk izan diren ezagutzea. Horregaitik gure lan honen amaieran, hasieran planteatu diren galderak gogoratu gura ditugu.

Puntu bitan finkatu dira galdera nagusiak:

1.- Baiezta dezadegu euskera eskolan ikasiz, erabilera eta zaletasuna, hots, euskeraren gizarteratzea lortuko dugula?

2.- Baiezta dezakegu gure zaletasuna eta umeena bardinak direla? Guk gura duguna haiek ere gura dutela?

Puntu bi hoiek horrela adierazi ditugu, orokorrean harturik:

Euskera gizarteratzeko edota gizartea euskalduntzeko, eskolan hainbat esperantza jarri den urteotan, zer-nola erantzuten diote eskolako umeek -beren buruz eta jarreraz- gure gizarteak haiengan jarri duen hainbateko esperantzari?

Galderoi erantzuteko, ikasleengandik hizkuntzari buruzko idazlanak batu eta aztertu egin dira eta lortutako datuak talde ezbardinetan aztertu dira. hona hemen taldeok:

1.- Orokorrean: Lortutako datu guztien azterketa, inolako aldagairik kontutan hartu barik.

2.- Ikastetxe moten arabera: Hiru mota ezberdindu dira: Ikastolak, Pribatuak (Ikastolak ez direnak), Publikoak. Ikastetxe mota bakoitzeko datuak,

bananduta aztertu eta erkatu dira.

3.- Aukeratu eta erabilitako hizkuntzaren arabera: Hemen talde nagusi bi izan da:

3.1. Gaztelera aukeratu dutenak. Denek gazteleraz erantzun dute.

3.2. Euskera aukeratu dutenak: Batzuk euskeraz eta beste batzuk gazteleraz erantzun dute eta honen arabera ondoko taldeak osotu dira:

- Euskeraz erantzuten dutenak eta:
  * Etxean bakarrik euskeraz egiten dutenak.
  * Eskolan bakarrik euskeraz egiten dutenak.
  * Kalean ere euskeraz egiten dutenak.
- Gazteleraz erantzuten dutenak.

Talde guzti hauengandik jasotako datuen azterketaren ondorioak dira ondoko orrialdetan aurkezten ditugunak.

1.- Talde guztien aipamen orokorrak.

Aurreko ataletan eman ditugu jadanik, talde edo banaketa bakoitzean sortzen diren ondorioak. Oraingoan beraz, hauen laburpen eta ikuspegi orokorrak azaltzen saiatuko gara.

Ikusi dugunez, datuek orokorrean harturik ez digute informazio handirik eskeintzen, oso aipamen gitxi ematen direlako eta honek, ideia bat eskeintzen digu: multzo horretan aipamen ezbardinak egiten dituzten talde ezbardinak agertzen direla.

Taldeka banatuz gero, aurreko ideia baieztu egiten da: ikastetxe moten arabera zein hizkuntzaren arabera, aipamenak ezbardindu egiten dira.

Aukeratzen diren hizkuntzak Gaztelera, alde batetik, eta Euskera, bestetik, dira; eta horrek gauza jakina badirudi ere, guk ez dugu hain normaltzat jotzen, dagoen hizkuntza nahasketa edo "elkarbizitza" kontutan harturik. Egia esateko guk, talde batek biak aukeratzea itxaroten genuen, baina itxaropen hau ez da bete, ez da "aukerabitasunik" agertu.

Aukeratzen direnen artean, aukeratuena euskera da. Hau ere, arraroa da euskaldun hiztunen kopurua begiratzen badugu, eta hementxe "konpentsazio" balioren bat ez ote den egongo galdetzen dugu.

Dena dela, horrela agertzen da: gehien aukeratzen den hizkuntza euskera da. Ez hori bakarrik: gehien **aipatzen** dena ere euskera da. Zelan ulertzen dugu hau? Alde batetik euskeraz ez

dakien askok euskera aukeratzen du, eta aukeratzen ez dutenen artean, askok aipatu egiten du. Izatez, gazteleradunek euskera, euskaldunek gaztelera aipatzen duten baino gehiago aipatzen dute. Ideia hau, orokorrean zein taldeka agertzen da.

Garrantzitsua agertzen den beste ideia "**Herria**" da. Ikusi dugu honek, hizkuntza horrekin lotuta agertzen den herriaren ideia adierazten duela. **Herria**-ren ideia oso aipatua izan da orokorrean zein taldeka, aukeratzen zein aipatzen den hizkuntzari buruz.

Arazoa, hizkuntzarekin lotuta doan herria mugatzeko orduan gertatu da. Orokorrean, **Espaina**, **Euskalerria** eta **Pais Vasco** agertu dira. Taldeka, Gaztelera aukeratzen dutenek, Gaztelera Espainarekin lotzen dute; Euskera aukeratzen dutenek, Euskalerria lotzen dute euskerarekin, batez ere euskaldunak direnak, euskaldunak ez direnak banandu egiten direlarik, batzuk Euskalerria beste batzuk Pais Vasco aukeratuz.

Aipatzen den hizkuntzari buruz antzeko arazoa sortzen da: gaztelera aipatzen dutenek Espainarekin lotzen dute, baina euskera aipatzen dutenek Pais Vasco-rekin gehien bat.

Hemen beraz, kanpoko eta barruko definizioen arteko ezbardintasuna eta kontrako ideiak ikusi ditugu.

Gaztelera-Espaina loturari buruz ez dago zalantzarik: denek, euskaldunek zein gazteleradunek, baieztu egiten dute lotura hori.

Euskera-Euskalerria barriz ez da hain argi agertzen. Euskalerria euskaldunek aipatzen dute (barruko definizioa) baina gazteleradunek Pais Vasco aipatzen dute (kanpokoa).

Ezin dugu esan **Pais Vasco** osagarri bateratzailea denik, hizkuntzari buruz ez dagoelako adostasunik. Guk, egia esateko ez dugu euskera/gaztelera aukeratzen dutenen arteko batasunerako arrastorik aurkitu.

Beste puntu interesgarri batzuk, **"Erabiltzea"**-ren ideia, **"Funtzioa"** eta **"Hiztunak"** izan dira.

Erabiltzearri buruz genuen ideia **"Gure hizkuntza", erabiltzen duguna da"** zela gogoratzen dugu.

Ideia honi buruz adostasuna nabari da talde guztietan eta gainera asko aipatu den ideia da.

Erabiltzearen garrantzia hiztunekin lotuta doa. Hizkuntzaren garrantzia, objetiboki definitzen denean, hiztunak eta zabaltasun geografikoa aipatzen dira. Berezitasun hauek, gaztelerarekin harreman zuzenean badaude, euskerarekin zeharkakoan daude. Hau da: hiztunen ideia eta zabaltasuna euskerari buruz berba egiten denean zentzu ezkorrean aipatzen dira, euskeraren gabezia adieraziz.

Zehaztu egin behar dugu, hemen aukeratzen den hizkuntzari

buruz ari garela berbetan, beraz, hau gazteleradunek gaztelerari buruz esaten dute eta euskerari buruz euskaldunek.

Erabiltzeari buruzko ideiak ere, lehenengo ezpaia sortzen digu, umeek orokorrean ideia hau onartzen badute ere, erabiltzen duten hizkuntzari buruzko galderekiko erantzunetan guztiz kontrakoak agertzen dira.

Gaztelerari buruz ez da ezpairik agertzen: gaztelera erabili egiten delako kasu guztietan eta edozein momentutan.

Euskaldunen artean, erantzun orduko, ezbardintasunak agertzen dira. Batzuk gazteleraz erantzuten dute. Euskeraz erantzuten dutenen artean oso gitxik egiten du euskeraz kalean; etxean barriz ia gehienek egiten dute. Datu hauek ikastetxe moten arabera aztertuz gero, sorpresa ugari ematen digute.

2.- Ikastetxe mota eta erabilitako hizkuntza

Etxean, ikastetxe mota guztietako euskaldun gehienek euskeraz egiten dute.

Ikastetxean, jakina, ikastoletakoek egiten dute gehien, baina diferentzia haundiz. Publiko eta Pribatuetakoek etxean eskolan baino gehiago egiten dute euskeraz, Ikastoletan barriz, eskolan etxean baino gehiago egiten dute euskeraz.

Kaleko erabilerari buruz, nagusia, zalantza barik eskola

publikoa da. Ikastolak et Pribatuak batera agertzen dira puntu honetan.

Hementxe hizkuntza erabiltzeko posibilitate materialen garrantzia agertzen dela uste dugu. Kalean euskeraz egiten dutenak, landa mailakoak dira gehienetan eta guraso eta giro euskaldunetakoak. Honelako herrixketan ez dago ikastolik ez pribaturik, eskola publikoa da dagoen ikastetxe mota bakarra, (eta bera ere gazteleraz oraindik maila hauetan).

Ikastolak eta pribatuak barriz, inguru hiritarretan ematen dira. Lekuotan biztanle guztien osoko euskaldunen ehunekoa murriztu egiten da asko, eta inguru honetan euskeraz egitea zaila bihurtzen da, ikastoletara doazen ume askoren gurasoek gainera ez dakite euskeraz eta, beraz, umeak eskolan baino ez du euskarazko eredurik.

3.- Aukeratutako hizkuntzari buruzko jarrerak

Talde guztietan, aukeratzen den hizkuntza, baliotsua eta garrantzitsua ikusten da.

Hizkuntzaren betebeharrari hau da, funtzioari buruz ari direnean ere, danak agertzen dira ados: hizkuntzak, komunikatzeaz aparte, hizkuntza hori erabiltzen duen herria identifikatu egiten du. Ikusi dugun lez identifikazio hau eztabaidagarria gertatzen da batzutan, kanpotik eta barrutik ipintzen diren mugak ezbardinak direnean.

Ezbardintasunei buruz aritzen bagara, esan egin behar dugu, gaztelerak aipamen "objetiboagoak" jasotzen dituela: Hiztunak, zabaltasuna; euskerak barriz "subjetiboagoak": Gurea, Garrantzia, Zaharra.

Gaztelèrak ere sarpen-aipamen gitxiago jasotzen du eta zentzu zabalean aipamen gitxiago ere, ideia gehienetan.

Euskerak barriz, aipamen sartuagoak eta ugariagoak. Hauxe ulertzeko ideia ezbardinak bururatzen zaizkigu:

Alde batetik, elebitasunari buruz ari garenean, onartu egiten da, gitxituta dagoen hizkuntza bat gorde nahi duten pertsona elebidunek, elebakarrek baino tentsio gogorragoa, handiagoa jasotzen dutela. Zentzu honetan, elebitasunak sortzen dituen iztiluak komentatzen direnean, iztilu hoiek ez hizkuntza berak baizik eta giza giroak sortuak direla onartu egin beharra dago.

Bestaldetik, hizkuntzaren arazoa, esankorragoa izan daiteke euskaldunen artean, gazteleradunen artean baino. Goiko ideia kontutan harturik eta "kontzientzia eza"-ren ideia pentsatuz ere, (hau da, normalean, guk geure berezitasunen kontzientzia besteenak ikusita lortzen dugula eta erreferentzia barik mugatzerik edo kontzientziarik ez dagoela eta hizkuntzarekin bardin gertatzen dela kontutan izanik), ulergarria ere bada, inguru gazteleradun eskola bateko irakasleak, bere ikasleei

idazlan bat eskatzera gentozela-ta, honako hau esatea:

> **"baina hauek behar bada, ez dute zer ipini jakingo, gazteleraz baino ez dutelako egiten".**

Euskerari buruz, gaztelerari buruz egiten ez diren aipamen batzuk egiten dira: "Trasmizioa", "Berreskuratzea" eta "Borroka"-ri buruzkoak hain zuzen.

Hau normala da: gaztelera ez dagoelako euskera dagoen egoeran.

Orokorrean umeek berreskuratzea gorantza egiten ikusten dute eta gora-beheraren arrazoiak azaldu orduko ezbardintasunak agertzen dira. Euskeraz egiten dutenen artean, intra eta extra punitibo arrazoiak orekatuta daude, talde hau delarik sarpen handiena adierazten duena eta errudunena aitortzen dena.

Euskera erabiltzen ez dutenen edo eta ez dakitenen artean, arrazoiak extrapunitiboak dira gehien bat: Franco, erdaldunak.

Danak daude, berriz ikastolak berreskuratzearen onerako izan direlakoan ados.

Gazteleradunek, euskerari buruzko aipamenetan, berreskuratzea gorantza doala aipatzen dute baina ez dago azalpenik ez eta intrapunitibo arrazoirik.

Borrokari buruz ere ezbardintasunak daude. Euskera

aukeratzen dutenak, gehienak, euskeraren alde agertzen dira. Gaztelera aukeratzen duten gehienek, aldiz, ez dute ideia hau aipatzen eta egiten dutenean gazteleraren alde egiten dute.

Hontan ezpairen batzuk agertzen dira: euskera aukeratzen duten batzuk gazteleraren alde agertzen dira. Eduki azterketari buruz aniztasunaren arazoak komentatu ditugunean, àrgi esan dugu aniztasuna/esankortasunaren arteko lotura onartzen den ideia bat dela, baina ez dagoela hau egiaztatzeko modu ziurrik. Beraz, horrelako ezpaien kasuetan, zer da pentsatu behar duguna? Baztertu egin behar ditugu ezpai hauek, gitxi direlako bakarrik? Ala metodoaren planteamendu hau zalantzan jarri behar dugu? Gogoratu egin behar dugu, ezpaia, batzutan, barne borrokaren adierazle moduan hartua izan dela eta egia esateko, izan da ezpai hori argi eta garbi adierazi duen ume bat:

> **"Y yo, castellano en el hablar, vasco en mi sentir lucho por definirme por una tendencia que debe ser el euskera en contra de una marea formada por una multitud, alguna de ella luchadora por implantar, reavivar sus raices y otra parte de esta multitud indiferente ante un dilema cierto"1).**

Nahiko esanguratsua dela uste dugu.

Amaitzeko gogoratu gura dugu hizkuntzarekin lotuta agertzen diren ideia nagusiak "Herria" eta "Erabiltzea" izan direla.

Biak arazogarriak gertatu dira. "Herria"-ri buruzkoan, alde batetik, kanpotiko eta barrutiko definizio ezbardinak suertatu direlako eta **Erabiltzea**-ri dagokionean maila biko ezpaiak sortzen

zaizkigulako:

Kontraesanak, hau da, euskeraz ez dakiten umeek euskera aukeratu eta erabiltzearen garrantzia aipatu egiten dutelako. **Kontraeginak**, dakitenek baina erabiltzen ez dutenek bardin jokatzen dutelako (aipatu bai, baina ez egin).

4.- Ikastetxe moten berezitasunak

Beste ideia bat aipatu nahi genuke. Guk datu orokorrak, ikastetxe moten arabera eta hizkuntza taldeen arabera aztertu ditugu.

Lehenengoak ez du datu handirik ematen agertzen diren bide ezbardinen indarrak topa egiten dutelako.

Ikastetxe moten araberako azterketak, ezbardintasun batzuk eskeini dizkigu.

Ikastoletan euskera aukeratzen den bitartean Publikoetan gaztelera aukeratzen da eta Pribatuetan, aukera biak nahiko orekatuak, baina gaztelararen alde agertzen dira.

Erabilerari buruz ere ikusi ditugu agertzen diren ezbardintasunak.

Orokorrean ikastoletan gehienak euskaldunak direla esaten

Koherentea diogunean, talde hoietan barruko adostasuna agertzen dela esan gura dugu. Eta maila bitan hain zuzen:

- Barrurantza: talde bakoitzak ezpaibariko erantzunak ematen dituelako.
- Elkarren artean: hizkuntza ezbardinei buruz baina, biek antzeko jarrerak adierazten dituztelako.

Talde "ezpaituek", hau da, kontraesanak zein kontraeginak adierazten dituztenek, ez dute eritzi batu bat eskeintzen. Alde batetik bategaz, besteteik besteagaz, mugagabe eta arazogarriak suertatu zaizkigu.

Talde hauek, gainera, garrantzitsuak dira euskera aukeratzen dutenen artean kopururik handiena osotzen dutelako. Euskeraren geroa erabakiko dutenak hauek direla esango genuke, edo hobe behar bada, hauek mugitzen diren arloetan erabakiko dela.

Bestaldetik, banaketa bi hauek: ikastetxe eta hizkuntza taldeak, ezin dira batu. Hau da, ezin dugu esan, hizkuntza talde hau honelako ikastetxe motan ematen da, kasu batzutan nahiko argi agertzen bada ere, beste batzutan mugaketa ezina bihurtzen da-ta.

Orokorrean, hizkuntza aukeraren arabera talde bi agertzen dira: Euskerazaleak/Gaztelerazaleak eta ez dago topa lekurik.

Talde bi hoiek berezitasun ezbardinak dituzte: lehenengoa, bertoko gurasoen seme-alabek osotua dago, baina nahiko

heterogeneo eta ezpaitua agertzen da.

Barruan, euskerazale euskaldunak eta euskerazale gazteleradunak agertzen dira. Euskaldunen artean pasiboak eta aktiboak. Euskerari lotuta doan herria Euskalerria dela diote. Sarpen eta mina maila haundiena adierazten dute.

Gaztelerazaleak homogeneagoak dira. Kasu askotan gurasoak Euskalerritik kanpokoak izanik, ez dute ezpairik agertzen. Gaztelerarekin lotzen duten herria Espaina da. Sarpen maila eskasa adierazten dute.

Bakoitzak besteari buruz duen eritzia hizkuntza mailan, "besteek" bere buruari buruz duten ideiarekin ados dator, baina hizkuntzarekin lotuta doan herriari buruz adostasuna apurtu egiten da: Gaztelerazaleentzat euskera Pais Vasco-rekin lotuta badoa, Euskerazaleentzat Euskalerriarekin doa. Dena dela: Euskerazaleentzat gaztelera Espainarekin doa lotuta, eta puntu honetan denak daude ados.

Denek adierazten dituzte jarrera baikorrak, bai norberen hizkuntzarenganako, baita besteen hizkuntzarenganako ere.

Hizkuntza biak bardin agertzen dira puntu batzutan, ezbardin bestetan. Erabiltzearen garrantzia -Funtzioa, Garrantzia, Balorapena- bientzat bardinak diren ideiak dira.

Baina, Gaztelera hiztun askorekin, zabala, aberatsa agertzen

den neurrian, Euskera, gurea, hiztun barik, "hestua" eta berreskuratze prozesu baten borrokatzen agertzen da.

Jarrerak beraz ez dira ezkor agertzen. Guk esango genuke, dena dela, erabiltzeko, jarrera baikorra beharrezkoa bada ere, ez dela baldintza nahikoa. Hizkuntza erabiltzeko, -eta hizkuntzak, esan dugu jadanik, erabili egin behar dira- baldintza material batzuk sortu behar dira.

6.- Azken puntua

Bestetik eta aurreko "ondorio" guztiak erlatibizatuz, zein neurritan agertzen da hau errealitatean? Zein neurritan agertzen dira elkarbizitzan, textuetan agertzen diren ezpaiak? Zein mailatan jaso dezake gizatalde batek, "teoria" eta "ekintza"-ren arteko banaketa?

Lanaren azken puntuan gaudenean, interesgarria eta beharrezkoa ikusten dugu hasieran planteatu ditugun galderak berreskuratzea. Beraz, zer da, berreuskeraduntzeari buruz umeek diotena? Eskolak, benetan lortzen du berreuskeratze hori? Zein mailatan?

Orokorrean esango genuke, "ideia" "planteamendu" edo maila teorikoan umeek ez dutela berreuskeratzearen kontrakorik esaten. (Beste gauza bat litzateke "esate" hori errealitatean gauzatzeko

momentuan gertatzeko litzakena).

Baina, beste alde batetik, guretzat nahiko argi dago eskolak ez duela eta ezin duela egoera aldatzeko, zeinbatek -hainbatek- uste izan duen beste egin. Eskolan, -hobe esanda ikastoletan-, umeek euskeraren ezagutza areagotzen dute baina, erabili, inguru euskaldunetan daudenak bakarrik erabiltzen dute. Guretzat behintzat "helduek" egiten ez duguna "umeek" egingo dutela pentsatzea, datu hauek kontutan izanik eta aztertu dugun puntuari buruz, ez da oso egokia.

Gauza gogorrak agertzen badira ere, errealitatea gogorragoa dela sentitzen dugu, sentitu izan dugu, batez ere lanak zabaltzen eta batzen ibili garenean. Gertatzen zaigunari buruzko galdera baten eztenkadaz ekin genion gure lan honi eta galdera berrien kezka sortu zaigu erantzuna eskaintzeko orduan. Baina galdera berri hau argitzeko, honako lan honi bere azkena eman nahi izan diogu lehenengo.

OHARRAK

1.- Mutila, erdalduna, hirikoa. %40-60 euskaldunak, pribatukoa.

V

BIBLIOGRAFIA

ALDABALDETREKU, Gurutze eta beste: **Euskeraren Egoera Iparraldean, Lehen hurbilketa**. Legazpi, Hots, 1986.

ALLPORT, Gordon W: **the Nature of Prejudice**, Cambridge-Massachusetts, Addison-Wesley Publishing Company Inc. 1954. (**La naturaleza del prejuicio**, Buenos Aires, EUDEBA 1977).

ALVAR, Manuel: **Estructuralismo, geografía linguística y dialectología actual**, Madrid, Gredos 1969.

ARACIL, Lluis: **Papers de Sociolinguistica**, Barcelona, Ediciones de la Magrana, 1982.

ARANA, Sabino: **"Aberria. Euzkotar bateri. Euskaltzale bateri" Baserritarra**. 6gn zenbakia, 1897-Bagilla-6 Bilbao. in **Obras completas**, Buenos Aires, Sabindiar-Batza, 1965.

AUSTIN, J.L.: **How to Do Things with Words**, The Clarendon Press. Oxford University Press: 1962 (**Palabras y Acciones**, Buenos Aires Paidos, 1971).

BALLY, Charles: **Le langage et la vie**, Ginebra, 1935. (**El lenguage y la vida**, Buenos Aires, Losada 1977).

BARANDIARAN, Jose Miguel : **Mitología Vasca**, Madrid, Minotauro 1960.

- **"Religiosidad y fenómenos sociales"** in **Obras Completas**, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1974. III. Alea, 117-197 o.a.

- **"Diversos aspectos de la cultura vasca"** in **Obras Completas** aipatua, 309 o.a.

- **"Los Vascos"** in **Obras Completas**, aip. 243-255 o.a.

BARDIN, L: **L'analyse de Contenu**, Paris, Presses Universitaires de France 1977.

BARTH, Frederik (Batulea): **Ethnic Groups and Boundaries (The Social Organization of Culture Difference)** Oslo Universitets forlaget, 1969. (**Los grupos étnicos y sus fronteras. La organización social de las diferencias culturales**, Mexico, Fondo de Cultura Económica 1976.

BATZUK: **Bilinguismo y Biculturismo**, Barcelona: Instituto de Ciencias de la Educación. Universidad de Barcelona.

CEAC, 1978.

BATZUK: **El bilinguismo, problemática y realidad**, REVISTA DE OCCIDENTE, Extraordinario II. 10-11 zenbakiak, 1982 Otsaila.

BATZUK: **"Elebitasunaren Auzia Ikastoletan"**, JAKIN 19/20, 1981.

BATZUK: **Estructuralismo y Sociología**, Buenos Aires, Nueva Visión 1973.

BATZUK: **Euskal-Herria, Presente y Futuro**, Donostiako Udako IV. Ikastaroak (1985), Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1986.

BATZUK: **Euskal linguistika eta literatura bide berriak**, Bilbo, Universidad de Deusto, 1981.

BATZUK: **Euskaldunak**, Donostia, Etor, 1978/1985 (5 ale).

BATZUK: **Euskeraren liburu zuria**, Bilbo, Euskaltzaindia 1978.

BATZUK: **"Euskeraren Soziolinguistika"**, JAKIN, 42/43, 1987.

BATZUK: **La problemática del bilinguismo en el estado español** (Jornadas de bilinguismo de Zarautz. 1979) Bilbao, Universidad del Pais Vasco 19.

BATZUK: **Lecturas de Sociolinguística**, Madrid. Edaf Universitaria, 1977.

BATZUK: **Plurilinguismo y Evolución Cultural**, Bizkaia XXI. Mende Aurrez, III Jardunaldiak, Bilbo, Comisión de Vizcaya de la RSBAP, 1986.

BEOBIDE, Ignacio M.: **"El Partido Socialista Obrero Español ante la lengua vasca en la actualidad"**, Bilbo, ESTUDIOS DE DEUSTO, vol. XXXII/2 Julio-Diciembre, 335-394 o.a.

BEOBIDE, Bernard: **Content Analysis in communication research**, New York, Hafner Press. Macmillan Publishing Co. Inc. 1952.

BERGER, Peter L; LUCKMANN, Thomas: **The Social Construction of Reality** 1966. **(La construcción social de la realidad**, Buenos Aires, Amorrortu,1972).

BERNSTEIN, Basil: **Language et classes sociales. Cades sociolinguistiques el control social**, Paris, Minuit, 1975.

BIDART, Pierre: **"Elementos para una Economía Política de la lengua"** SAIOAK, año IV, N. 4. 1980. 69-67 o.a.

BIDART, Pierre (Zuzendaria): **La nouvelle société Basque. Ruptures et Changements**, Paris, L'Harmattan, 1980.

BOUILLON, Antoine: **"Emprise discursive et domination"** COMMUNICATIONS, 1978, 28. zenbakia.

BOURDIEU, Pierre: **Ce que parler veut dire. L'economie des échanges Linguistiques**, Paris, Fayard 1982 (**¿Qué significa hablar?** Madrid, Akal 1985).

BOURHIS, R.Y: GILES, H.; TAJFEL, H.: **"Language as a Determinant of Welsh Identity"** EUROPEAN JOURNAL OF SOCIAL PSICHOLOGY, 3 (4), 447-460 o.a.

BRETON, Roland: **Géographie des langues**, Paris, P.V.F. 1979. (**Geografía de las lenguas**, Barcelona, Oikos-Tau, Colección ¿qué sé?, 1979)

CALVET, Luis Jean: **Linguistique et colonialisme**, Paris, Payot, 1974. (**Linguística y colonialismo**, Madrid, Ediciones Jucar, 1981)

CARO BAROJA, Julio: **El laberinto vasco**, Donostia, Txertoa, Estudios Vascos XII alea, 1984 (4. argit. 1985)

CHIGLIONE, Rodolphe eta beste: **Manuel d'Analyse de Contenue**, Paris, Armand Colin (Collection U) 1980.

CHOMSKY, Noam: **Language and Mind**, New York, Harcourt Brace Jovanovich, Inc. 1972. (**El lenguage y el entendimiento**, Barcelona, Seix-Barral, 1986).

CICOUREL, Aaron V.: **Method and Measurement in Sociology**. Free Press of Glencoe, 1964. (**El método y la medida en sociología**, Madrid, Editorial Nacional, 1982.

COHEN, Marcel: **Manuel pour une Sociologie du langage**, Paris, A. Michel, 1956. (**Manual para una Sociología del lenguage**, Madrid, Fundamentos, 1974). **50 Années de Recherches**, (Recueil publié par ses amis) Paris, Klincksieck, 1955.

COHEN, Morris; NAGEL, Ernest: **An Introduction to Logic and Scientific Method**, Harcourt, Brace&World, Inc.1961. (1go. argit. 1934). (**Introducción a la lógica y al método científico** Buenos Aires, Amorrortu, 1979.)

COSERIU, Eugenio: **Sincronía, Diacronía, Historia**, Madrid, Gredos, 1973.

DESCARTES, Rene: **Discours de la méthode** 1673. (**El discurso del método**, Madrid, Akal, 1982.)

DURKHEIM, Emile: **Les Régles de la Méthode Sociologique**, 1895. (**Las reglas del método sociológico**, Buenos Aires, Schapire Editor, 1976).

- **De la division du travail social**, 1893. (**La división**

del trabajo social, Madrid, Akal 1982).

- Le suicide (étude de Sociologie), 1897. (El suicidio), Madrid, Akal 1985).

ELZO, F. Javier: "Los valores de la juventud vasca actual". (Doktoradutza tesisaren laburpena. Egileari esker) Bilbao, 1986.

ESTORNES LASA, Bernardo: Mundua Euskal-Herriaren Gogoan, Donostia, Auñamendi, 1974 (Igo alea) 1975 (IIgn. alea).

ETXENIKE, P.M.; LETE, X; MITXELENA, K.; MONREAL, G.: "Idioma y convivencia social en el Pais Vasco", Bilbo, Aula de Cultura-El Correo. 82-83 Ikasturtea,, 137-153 o.a.

ETXEZARRETA, I; GARAGORRI, X; OSORO, I: Elebitasuna Ikastoletan: egoera eta irtenbideak" JAKIN, 32, 1984.

EUSKARAZKO KULTURAREN BATZARREA: "Euskeraren Plangintzarako Oinarriak" JAKIN, 34, 1985.

EUSKO JAURLARITZA: Euskararen Politikarako Oinarriak, Gazteiz 1983.

- Euskararen Borroka, Gazteiz, 1983

- Euskadiko Komunitate Autonomoko, 1981eko Zentsua Gazteiz, 1983.

FERGUSON; Charles A.: "Diglossia" WORD, 1969, 15. 325-340 o.a.

FERRER, M./PRECEDO, A.: Las ciudades de Vizcaya y Guipuzcoa, Bilbo, Leopoldo Zugaza Editor, 1977.

FISHMAN, JOSHUA (Argitaldaria): Readings in the Sociology of Language, The Hague, Mouton 1968.

FISHMAN, JOSHUA.: "Diglosia with and without Bilingualism, Bilingualism with and without Diglosia" JOURNAL OF SOCIAL ISSUES, XXIII, 1967.

- "The Sociology of Language", in Fishman J. (argitaldaria) Advances in the Sociology of Language, Madrid, Cátedra, 1979).

- "Bilingualism an Biculturalism as Individual and as Societal Phenomena" JOURNAL OF MULTILINGUAL AND MULTICULTURAL DEVELOPMENT, 1980. 1 (1), 3-15 o.a.

GARATE, JUSTO: "La primera nota de Guillermo de Himboldt sobre la lengua vasca, impresa en 1801". REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUSIOS VASCOS. Año 33. Tomo XXX N.1. Enero-Junio 1985.

GARMENDIA, Francisco: **"Euskara y Comunidad Vasca"** in **Euskaldunak** aipatua, 5gn. alean.

